

ARETXABALETAKO

12-18 urte bitarteko

GAZTEEN

DIAGNOSTIKOA

Azaroa, 2015 – maiatza, 2016

Aretxabaletako Udaleko Ongizate eta prebentzio saila



Aretxabaletako
Udala

Lan taldea:

Nerea Egurza Mayoral

Miren Zaloña Txintxurreta

Nerea Zubillaga Herran

Diagnostiko honetako lan-talde osoaren partetik eskerrik asko Aretxabaletako herritarrei eta bereziki prozesuan parte hartu duzuen guztioi, zuok gabe lan hau ez zen posible izango-eta :

Loramendi elkarteari, Leizarra musika eskolari, Leintz Eskola Kirolari, Arizmendi Kirol Elkarteari, UDARI, Gaztelekuko lan-taldeari, Sasoia elkarteari, HitzHartu errefortzu akademiari, Leber gabineteari, Kurtzebarri BHI-ko eta Arizmendiko Almen guneko zuzendari, orientatzaile, irakasle eta gurasoei, Arrasateko lanbide hastapenari, Aretxabaletako lanbide heziketari, Udaleko enplegu, euskara, kultura, parte hartze, gazteria eta berdintasun teknikariei, Udaleko idazkaritza eta errolda Sailari, Ongizate eta Prebentzio Sailari, Familia Hezitzaileari, Osasun zentroko profesionalei, DBH 1, 2, 3 eta 4ko ikasle guztiei, Batxilergoko ikasleei, Lanbide Hastapeneko neska-mutilei ... Eskerrik asko.

AURKIBIDEA

SARRERA

1.-TXOSTENAREN FUNDAMENTAZIOA	3-4
2.-HERRIAREN DESKRIBAPENA.....	5-6
3.-BALIABIDEEN GIDA.....	7-10
4.-DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK.....	11-25
5.-METODOLOGIA.....	26-29
6.-INFORMAZIO ITURRIAK.....	30-34
7.-HERRIAREN BANAKETA.....	35-46
8.-IKERKETAREN ANALISIA.....	47-70
8.1- Arlo pertsonala.....	49
8.2- Arlo familiarra.....	52
8.3- Arlo sozial eta interpertsonala.....	56
8.4- Aisialdi eta parte hartze arloa.....	62
8.5- Hezkuntza arloa.....	68
9.-ESKU HARTZERAKO ORIENTAZIO eta PROPOSAMENAK.....	71-85

ERANSKINAK

SARRERA

Eskuartean duzuen ikerketa-lan honetan, Aretxabaletako 12 eta 18 urte bitarteko gazteen diagnostikoa egin nahi da. Horretarako, hiru pertsona aritu gara talde-lanean sei hilabete zehar: 2015eko azaroa erdi-ingurutik 2016ko maiatzaren erdira arte.

Diagnostiko honetan, herriko nerabeen beharrianak zeintzuk diren identifikatu nahi izan dugu eta bide batez, aurkitu diren hutsuneei orientazio eta programa-proposamen batzuk planteatuz erantzun bat eman.

Horretarako, lehenik eta behin, herriaren deskribapena egin dugu lana errealitate jakin batean kokatze aldera eta herria fisikoki aztertzeaz gain bertako bizimodua zehatzago ezagutzeko. Horrekin batera, herritarren eskura dauden baliabideen inguruko informazioa jaso dugu, dagoen eskaintza ezagutzeko.

Ikerketa lan bat egiterako orduan ezinbestekoa da lanerako metodologia bat ezartzea, emango diren pausuak zehaztu eta bakoitza arrazoituta. Horrela, gure lana garatzeko oinarritzat hartu ditugun ikerketa-teknikak (kualitatiboak) azaldu ditugu bosgarren atalean, bakoitza bere azalpen eta justifikazioekin.

Aretxabaletako errealitatean kokatu eta teknika desberdinen bidez hainbat informazio jaso ostean, lanaren funtsean sartu gara: analisisan. Bertan azaldu ditugu hautemandako behar eta hutsuneak eta baita horietako bakoitzaren eragin edota ondorioak ere, teoriar oinarrituta egindakoak.

Txostenarekin amaitzeko, aurretik esan bezala, aurkitu diren beharrei erantzun bat (edo erantzun posibleak) eman nahi izan diegu eta horietatik azaltzen dira esku hartzerako orientazio eta proposamenen atalean.

Honetaz guztiaz gain, bi ohar eman nahi ditugu sarrera honetan. Batetik, ikerketa-lana taldean aritu garenon ikuspuntutik egina dagoela zehaztu nahi dugu. Beste modu batera esanda, geure irizpideen arabera egin dugu: gizarteko justizia sozialaren (genero, arraza, jatorri, klase eta abarren aukera berdintasuna) alde egin behar dela sinesten dugu, guztion ongizatea bermatzeko. Bestetik, kontuan izan behar da ikerketa osoa lagin baten arabera egin dela. Lagin hori anitza eta nahiko handia izan bada ere, ezin da profil, kasu eta egoera guztietara estrapolatu hemen jasotakoa.

1.- TXOSTENAREN FUNDAMENTAZIOA

TXOSTENAREN FUNDAMENTAZIOA

Ikerketa honek, ikerketa sozio-hezitzaileek bezala, errealitatea zehatz bat ezagutu nahi du, beraz hobetu eta eraldatzeko. Edozein errealitate defizitarioa edo problematikoa den oinarritik abiatzen da ikerketa: edozein egoerak eska dezake aldaketa bat, hobekuntza bat, konponbide berri bat edota fokatzeko berri bat. Horrexegatik diagnostiko bidez ikertuko da Aretxabaletako 12-18 urte bitarteko gazteen errealitatea lan honetan.

Diagnostiko bat egitea egoera edo arazo bat zehaztasunez identifikatzea da, hau da, egoera edo arazo hori azalratzea bere sintoma, gabezi, akats edo hutsuneen bidez. Lan horretan, ezinbestekotzat hartu ditugu **genero perspektiba** eta ikerketa burutzeko herritarren **parte-hartzea**. Azken hau bermatu nahian, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea (IEP) deritzon metodoan kokatu gara diagnostikoari ekiteko.

Gisa honetako lanetan, eskaera zehaztu eta ikerketaren diseinua adostu ondoren (metodologiaren atalean azalduko da), ikerketako subjektu den kolektiboaren **beharrak identifikatu eta definitu** beharra dago, egoeraren hobekuntzarako non eragin jakin behar baita. Behar horiek gainera, aldaketarako zailtasun edo oztopo moduan agertuko zaizkigu gehienetan. Detektatze lan honen helburua beharrak, herritarren interesak eta baliabideak (daudenak zein eskura egon litezkeenak) ahalik eta fidagarritasun handienarekin ezagutzea da.

Horrek guztiak, garatu beharreko proiektu edo programa mota zehaztea ahalbidetuko du, baita lorgarriak diren helburuak ezartzea erraztu ere. Ezagutza hau, ezinbestekoa zaigu ikerlari lanean gabiltzanoi, ondoren jaso eta emango den lan guztia testuinguratuta, ikerketa benetan erabilgarria eta eraginkorra izan dadin.

Horrez gain ezin dugu ahaztu, konponbidea edo hobekuntza herri, komunitate, talde edota pertsona bakoitzaren baretik irten behar dela eta horrela soilik lortuko dugula, lortzekotan, proiektu eraginkor bat.

Jarraitzeko, **lehentasunak ezarri** behar dira hautemandako beharren artean. Sarritan, denbora kontuak direla eta, ezinezkoa da identifikatutako behar guztiendako erantzun bat edo orientabide batzuk eskaintzea, eta beraz, lehentasunezkoztat jotzen ditugun behar jakinetara soilik mugatu beharko ditugu taldearen esfortzuak. Horretarako, irizpide batzuk ezarri behar dira oinarritzko beharrei garrantzi berezia emanaz, eta beti ere lanerako eskuragarri ditugun baliabideak kontuan hartuta, hau da, errealistak izanda.

Aretxabaleta

Diagnostiko bat egitean, beharrezkoa da ikerketa proposamen batetik abiatzea, nahiz eta diseinu horrek malgua eta progresiboki eraikitakoa izan behar duen. Beraz, ikerketaren analisisa eta gure ekintza sustengatuko duen erreferentzia marko teoriko bat izatea beharrezkoa denez, hurrengo orrialdeetan, metodologiari eskainiko zaion atalean azalduko da esandakoa.


2.- HERRIAREN DESKRIBAPENA

2.1.-KOKAPENA¹



¹ Turismodebagoiena.com-eko irudiak.

Aretxabaleta



Aretxabaleta Gipuzkoako hego mendebaldean dago, Bizkaia eta Arabaren arteko mugan. Iparraldera Arrasate-Mondragon dago, mendebaldera Eskoriatza, ekialdera Oñati eta hegoaldera Aramaio (Araba). Udalerriaren hedadura 26 kilometro karratukoa da, itsaso mailatik 235 m-ko altueran dago eta 7.005 biztanle ditu (2015/11/20).




Udalerri honen bilakaera historikoaren ezaugarri nagusienetarikoa bertako herritarren dinamismoak markatu du, eta haien eraginez, denborarekin, udalerri aberats eta industrializatu bihurtu da. Aretxabaleta kooperatibismoaren sorlekuetako bat da, Gipuzkoako bilakaera ekonomikoan eragin nabarmena izan duen enpresa mugimenduaren sorguneetako bat.

Bere adierazle ekonomikoei begirada bat emanez, ikus daiteke Aretxabaletaren errealitatea zein den. Industriarekin zerikusia duen lan bat egiten duten biztanleen portzentajea Gipuzkoako batez bestekoaren bikoitza² da. Zerbitzuek ere udalerriaren ekonomian pisu garrantzitsua dute, herritar askoren langune baitira.





² 2015-12-31 an Gipuzkoan %22,27 zen eta Atxabaltan %44,61. (Observatorio Gipuzkoa SEPE)

3.- BALIABIDEEN GIDA






Herriko behar eta gabezien diagnostikoa egiterako orduan, ezinbestekoa da bertako baliabide eta zerbitzuak ezagutzea. Horretarako, baliabideen gida bat sortu da. Hurrengo lerroetan, baliabide horien artean gazteei zuzenduak direnak azaltzen dira eta gainontzekoak 11.eranskinean aurkitu daitezke.

AISIALDIRAKO BALIABIDEAK	
<p>Haur, nerabe eta gazteen sustapena</p> <p>Arduradun politikoa: Miren Karnele Uribarri</p> <p>Arduradun teknikoa: Mainer Etxaniz Belategi (Gazteria teknikaria)</p> <p>Helbidea: Udaletxea. Otorala kalea, 1</p> <p>Tel.: 943711862</p> <p>E-posta: gazteria@aretxabaleta.eus</p> <p>Web: http://www.aretxabaleta.eus</p>	<p>Ibarra Kiroldedia</p>  <p>www.ibarrakiroldegia.com</p> <p>Arduraduna: Asier Mujika</p> <p>Helbidea: Markole Auzoa z/g</p> <p>Tel.: 943039842</p> <p>Web: http://ibarrakiroldegia.com/</p> <p>E-posta: info@ibarrakiroldegia.com</p>
<p>Kultura</p>  <p>Arduradun politikoa: Jose Miguel Uribarren Azpiazu</p> <p>Arduradun teknikoak: Inma Miguel Quintero (Kultura teknikaria) eta Anabel Díez Ugarte (Kulturako laguntzailea. Lan jarduna egun erdikoa)</p> <p>Helbidea: Arkupe Kultur Etxea (2. solairua). Santa Kurtz, 20</p> <p>Tel.: 943081001 E-posta: kultura@aretxabaleta.eus</p> <p>Web: http://www.arkupe.eu/</p>	<p>UDA Aretxabaleta Kirol Elkartea</p>  <p>Arduradunak: Adrian Merino eta Agurtzane Elgoro</p> <p>Harremanetarako: Igor Arenaza</p> <p>Helbidea: Ibarra Futbol Zelaia / Markole auzoa</p> <p>Tel.: 943797629</p> <p>Helburua: kirola sustatzea.</p> <p>Ekintzak: futbola, atletismoa, pilota, areto futbola, txirrindularitza, karatea, gimnasia erritmikoa...</p> <p>Web: http://www.udaretxabaleta.eus/</p> <p>E-posta: udaretxabaletake@gmail.com</p>

Aretxabaleta

<p>Udal Liburutegia</p>  <p>Aretxabaletako Udala UDAL LIBURUTEGIA</p> <p>Liburutegiko arduraduna: Joseba Lopez de Armentia</p> <p>Liburutegiko laguntzaileak: Izaskun Leibar Balanzategi eta Nerea Altuna Arkauz</p> <p>Helbidea: Arkupe Kultur Etxea. Santa Kurtz, 20 Tel: 943081001 Web: www.arkupe.eu</p> <p>E-postak:</p> <p>liburutegia@aretxabaleta.eus haurliburutegia@aretxabaleta.eus</p>	<p>Leintz Eskola Kirola</p>  <p>leintz eskola kirola</p> <p>Ikastetxeetako, guraso elkarreetako eta udalen proiektua.</p> <p>Kudeaketa: Athlon (Loramendi 4, 20500 Arrasate) Arduraduna: Oinatz Agirre Tel.: Athlon bulegoak 943 712033 Helburua: kirola sustatzea, eskaintza anitza osatzea, lema "kirolaz hezi, kirolaz bizi, osasuna irabazi" da. Ekintzak: LH 1-2 Kirol jolasak / LH 3-4 eta 5-6 multikirola programa edota aisialdi programa / DBH 1-2 espezializazioa edo fitness jarduerak Web: http://leintzeskolakirola.com/ E-posta: oagirre@athlon.es Helbidea: LEK Elkano 27, 20500 Arrasate.</p>
<p>Atxagazte Gaztelekua</p>  <p>Atxagazte Atxagazte gaztelekua</p> <p>Arduraduna: Gazteria teknikaria Helbidea: Arkupe. Santa Kurtz 20 Web: http://blogak.goiena.eus/atxagazte/ Kudeatzailea: TXATXILIPURDI (Arrasate)</p>	<p>Arizmendi Kirol Elkarte</p>  <p>arizmendi kirol elkarte</p> <p>Arduraduna: Urtzi Amiano Helbidea: Torrebaso Pasealekua, z/g. Telefonia: 943772025 Helburua: kirola sustatzea. Ekintzak. Areto futbola, boleibola, futbola, igeriketa, mendi lasterketak, ... Web: http://www.arizmendi.eus/eu/hezkuntza-ez-formala/kirol-elkarte/</p>

Nerabeen Diagnostikoa

<p>Leizarra Musika Eskola</p>  <p>Arduradunak: Mariatxen Urkia eta Marian Uribesalgo Helbidea: Santakurtz kalea, 20 Tel.: 943081001 Helburua: hezkuntza eta kultura musikala bultzatzea Ekintzak: solfeo, armonia, musika tresnak, musika banda... E-posta: leizarra.mariatxen@gmail.com</p>	<p>Dorletako Ama Txirrindulari Elkarte</p>  <p>Harremanetarako: Iñigo Azkarate Helbidea: Murubide plaza 5, behea. Tel.: 635859134 Helburua: Dorletako neska mutikoak txirrindularitzan hezitzea, honek daraman guztiarekin: laguntasuna, bide heziketa, talde lana, errespetua, sakrifizioa... Ekintzak: urtean zehar hurrekin entrenamentuak, lasterketak, hitzaldiak... Bailaran prestatzen dutenaz gain, Gipuzkoan zehar egiten diren lasterketetan parte hartzen dute, eta Kadete mailan Euskal Herriko zenbait herritan egiten diren ekintzetan parte hartzen dute, bai errepidean, mendian edo ziklo-krosean. Mendi Bizikletakoak kanpora ere joaten dira, ahal den neurrian. E-posta: dorletatxe@hotmail.com</p>
<p>Loramendi Elkarte</p>  <p>Helbidea: Durana kalea, 11 Tel.: 943770970 Helburua: Aretxabaletan euskararen normalizazioa lortzea. Ekintzak: hitzaldiak, ikastaroak, jaialdiak, kanpainak, herriko beste talde batzuekin harremanak... Web: www.loramendielkartea.eus E-posta: loramendielkartea@gmail.com</p>	<p>Arlutz Xake Elkarte</p>  <p>Arduraduna: Aitor Alcaide Helbidea: Iralabarri plaza, 4-5 behea Helburua: Aretxabaletan xakea sustatzea eta nahi duten guztiak parte har dezaten saiatzea Ekintzak: egunero entrenamenduak egiten dira eta larunbatetan txapelketak, Federazioak ezarritako egun eta orduetan. E-posta: alcaide.aitor@gmail.com</p>
<p>Loramendi Euskal Dantza eta Txistu Taldea</p>  <p>Arduraduna: Jokin Antxia Tel.: 688876421 Helburua: euskal dantzak eta txistua mantendu eta suspertu. Ekintzak: Santageda mutilak.-Soka Dantza. Karnabalak- Diana , Txino Dantza eta Soka Dantza Ojala-Zelai – Diana-Dantzak. San Juan Bezpera – Buruhaundiak - Zortzikoa Andramaixak- Dianak- Ikurriñari agurra- Alkate soinuak. San Migelak- Diana- Buruhaundiak. Olentzero – Kalejira eta Olentzero. Hurren Egunak. E-posta: jokinantxia@gmail.com</p>	

Aretxabaleta

HEZKUNTZA BALIABIDEAK	
<p>Kurtzebarri B.H.I. DBH (12-16 urte) Helbidea: Herriko plaza 1 Tel.: 943795740 Ikasketak: Bigarren Hezkuntza (DBH 12-16 urte) Web: http://www.kurtzebarribhi.hezkuntza.net E-posta: 012945aa@hezkuntza.net</p>	<p>Berbetan Akademia Hizkuntzak. Helbidea: Belorrieta 4 Tel.: 943790069 E-posta: berbetaneskola@gmail.com</p>
<p>IEFPS Aretxabaleta GLHBI (Lanbide Eskola)  Helbidea: Apotzagaetxebarri auzoa, z/g Tel.: 943797900 Ikasketak: Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak, Formazio ez Arautua Web: www.iaretxabaleta.com E-posta: ia@iaretxabaleta.com</p>	<p>Leber Gabinete CB Arduraduna: Virginia Armentia Helbidea: Basabe industrialdea 7 Tel.: 943795698</p>
<p>Arizmendi: Almen Gunea LH (6-12 urte)/DBH (12-16 urte)/Batxillergoa (16-18 urte) Helbidea: Torrebaso pasealekua z/g Tel.: 943772025 Web: www.arizmendi.eu E-posta: arizmendi@arizmendi.ikastola.net</p>	<p>UP English School Helbidea: Loramendi 3 Tel.: 679963447</p>
<p>Leintz Udal Euskaltegia  Helbidea: Nafarroa, 2 eta 4 Tel.: 943792168 Arduraduna: Karmele Agirregabiria Helburua: Aretxabaleta eta Eskoriatzako biztanleak euskaldundu eta alfabetatzea. Ekintzak: euskalduntze eta alfabetatze maila guztietarako euskara klaseak; Titulazio ofizialak. Talde bereziak (dendariak, gurasoak, merkatariak...). Etorikinei bideratutako ikastaroak. Itzulpengintza, Euskalkia... Online ikasteko aukera. E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net</p>	<p>Debagoieneko Oinarrizko Lanbide Heziketa (Lanbide Hastapena) Harremanetarako: Rafa Ugarte Helbidea: (Mankomunitateko Garapen Ajentzian) Nafarroa Etorbidea, 21 (Arrasate) Tel.: 943792890 Helburua(k): Hezkuntzako ohiko ikasketa-ibilbidean aurrera egiteko arazoak dituzten gazteen gizarteratzea, eskolatzea eta laneratzea bultzatzea. Inolako kualifikaziorik gabe ikasketak goiz utz ditzaten eragozte, eta horrela, Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua eskura dezaten lortzea. Hartzailak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua eskuratu ez duten 16-17 urteko gazteak. Ikasketak: Erdi mailako moduluak, ... Web: debagoienalanbidehastapena.blogspot.com.es E-posta: idazkaritza@lanbidehastapena.com</p>
<p>Hitzhartu Errefortzu akademia.  Arduradunak: Aida Merino eta Eukene Marrodan Helbidea: Mitarte 8 Tel.: 943087632 Helburua: Herriko haur, nerabe zein helduei ikasketa programa pertsonalizatua eskaintzea. Ekintzak: (ikasleekin egindako aparteak) postal lehiaketa, jolasak, marrazki lehiaketa... Web: http://www.hitzhartu.com/ E-posta: hitzhartu@gmail.com</p>	

4.- DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK

Ingurune bat eta bertako errealitatea ezagutu nahi direnean, garrantzitsua izaten da, lehenengo, bertako datuak ezagutu eta aztertzea, hots, datu sozio demografikoen azterketa labur bat gauzatzea. Horrela, hainbat egoeren azalpenarekin lotu eta errealitatea hobeto ulertu ahal izango da.

Diagnosi honetan aztertuko diren datu sozio demografikoak, besteak beste, biztanleriaren, jaiotza eta heriotza tasen, langabeziaren, migratzaileen, euskararen erabileraren eta diru sarrerak bermatzeko errentaren ingurukoak izango dira. Edonola ere, aipatzekoa da datuak betiere diagnosi honen objektu diren gazteengan zentratuta egongo direla.

Biztanleriaren datuei erreparatuz, gaur egun, 2015eko azaroaren 20an, Aretxabaletak 7.005 biztanle ditu.

1.TAULA: Aretxabaletako Biztanleria.

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
BIZTANLEAK	3.485	3.520	7.005

ITURRIA: Aretxabaletako Udal Errolda.

Aretxabaletako biztanleria osoaren zati bat, hots, 310 biztanle, landa eremuko auzoetan bizi da eta horri ere erreparatuko zaio. Horietatik emakumeak 153 dira eta gizonezkoak, berriz, 157; beraz, oso parekatuta dagoela esan daiteke. Jende gehien bizi diren auzoak, Larrino eta Galartza dira, 49na biztanlerekin. Bi auzo hauetan, gainera, emakumezkoak gehiago dira gizonezkoak baino, eta Areantzan ere gauza bera gertatzen da. Gainontzeko auzoetan, gizonezkoen populazioa, emakumezkoena baino altuagoa da. Populazio gutxien dituzten auzoak, Izurieta eta Apotzagaetxebarri dira, 14 eta 15 biztanle dituztelarik. Gainontzeko auzoak 30 eta 40 biztanleren artean kokatzen dira.

Aretxabaleta

2.TAULA: Landa eremuetako auzoetako biztanleria orokorra.³

	M	V	GUZTIRA BIZTANLEAK
AOZARATZA ELIZAURREA	21	21	42
APOTZAGAETXEBARRI	7	8	15
AREANTZA ELIZAURREA	14	13	27
ARKARAZO ELIZAURREA	14	20	34
GALARTZA ELIZAURREA	28	21	49
GOROETA ELIZAURREA	15	20	35
IZURIETA ELIZAURREA	5	9	14
LARRINO ELIZAURREA	27	22	49
ORO AUZOA	22	23	45
	153	157	310

ITURRIA: Aretxabaletako Udaleko Errolda.

Bestalde, subjektu den adin tartean gehiago enfokatuz, 12-18 urte bitarteko 22 biztanle daude guztira landa eremuko auzoetan, eta horietatik 12 emakumezkoak dira. Biztanleria gutxien duten auzoetan, hau da, Izurietan eta Apotzagaetxebarrin, ez dago adin tarte horretako biztanlerik. 12-18 urte bitarteko auzotar gehien duten elizateak Arkarazo, Galartza eta Larrino dira, bakoitzean tarte horretako 4 biztanle daudelarik, lehenengo bietan, gainera, gizonetzko eta emakumezko kopuru berarekin. Larrinon berriz, emakumezko bakarra dago eta hiru gizonetzko. Beste guztietan, bi eta hiru biztanle daude biztanleria muga horretan.

3.TAULA: Landa eremuetako biztanleria (12-18 urte bitartean)

	M	V	Guztira: 12 urteik 18ra
AOZARATZA ELIZAURREA	2	0	2
APOTZAGAETXEBARRI	0	0	0
AREANTZA ELIZAURREA	2	1	3
ARKARAZO ELIZAURREA	2	2	4
GALARTZA ELIZAURREA	2	2	4
GOROETA ELIZAURREA	2	0	2
IZURIETA ELIZAURREA	0	0	0
LARRINO ELIZAURREA	1	3	4
ORO AUZOA	1	2	3
	12	10	22

ITURRIA: Aretxabaletako Udaleko Errolda.


Biztanleria datuei begiratuz gero, badu garrantzia, honek azken urteetan izan duen garapenari so egitea. Aretxabaletako herrian, 2001etik gaur egun arte, biztanleriak

³ (M) Emakumeak
(G) Gizonak

Nerabeen Diagnostikoa

gora egin du progresiboki. Zehatzago esanda, 2001 urtean, 5.991 biztanle zituen udalerrriak eta gaur egun, 2015eko azaroan, 7.005 ditu. Beheko grafikoari begiratu gero, urtero hazi egiten dela ikus daiteke, urte batzuetan gutxiago eta beste batzuetan gehiago den arren, 100 pertsonako hazkundearekin batez beste. Azken bost urteetan, 2012 urtean izan ezik, moteldu egin da hazkundera, baina tendentzia mantendu egin da.

1.GRAFIKOA: Aretxabaletako biztanleriaren garapena (2001-2015)




ITURRIA: EUSTAT⁴.

Bestalde, EUSTATEk egiten dituen adin tarteen arabera⁵, gure ikerketako objektu den adin taldea barne hartzen duen tartean gehiago zentratuz, aipatzekoa da 0-19 adin tarteari dagokionean, hazkundera osotasunean baino motelagoa izan den arren, goranzko tendentzia eman dela 2001 urtetik gaur egun arte.

⁴ EUSTAT Euskal Estatistikaren Institutua da.

⁵ EUSTATEk hiru adin talde nagusietan banatzen du populazioa, normalean: 0-19, 20-64 eta 64 urtetik gorakoen adin taldeak.

2.GRAFIKOA: 0-19 Adin tarteko biztanleriaren garapena (2001-2015)




ITURRIA: EUSTAT

Biztanleria datuekin jarraiki, generoari dagokionean, 7.005 biztanleetatik 3.485 emakumezkoak dira eta 3.520 gizonetzkoak.

Honetan ere garapena eman da, beheko grafikoan ikus daitekeen bezala: 2000 urtean, emakume eta gizonen arteko aldea gaur egun denaren parekoa zen, eta tendentzia egonkorra izan zen 2006 urtera arte. Aldiz, urte horretatik aurrera eta 2012 urtera arte, gizonen eta emakumeen arteko aldea handitzen joan da, 2012 urtean ia 170 pertsonakoa izanik.

Azken hiru urteetan, alde hori gutxitzen joan da eta 2015eko azaroko datuen arabera, 35 gehiago dira gizonetzkoak emakumezkoak baino.

3.GRAFIKOA: Biztanleriaren (Emakume eta gizon) garapena (2001-2014)



ITURRIA: EUSTAT.


Biztanleriaren garapenean eman den hazkundera, hainbat arrazoiengatik izan daiteke, besteak beste, Aretxabaletara inguruko herrietatik etorri diren biztanle gazteek familiak

osatu dituztelako, edo krisia dela-eta Euskal Herrian bizi ez ziren herritarrak bertaratu direlako.

Biztanleriaren garapena gehiago aztertu ahal izateko, garrantzitsua da jaiotza eta heriotza tasen garapenean⁶ arreta jartzea.

Jaiotza tasa nahiko egonkor mantendu da eta ez da gorabeherarik antzematen 14 urte horietan. Hala ere, aipatzekoa da 2007 eta 2008 urteetan, gainontzekoetan baino haur gehiago jaio direla, grafikoan ikusten den puntu gorena urte horietakoa delarik. 2008 urtean 92 jaiotza egon ziren, 2000tik 2014ra bitarteko batez bestekoa 72koa den bitartean; beraz, batez bestekoa baino 20 jaiotza gehiago egon ziren urte horretan. 2012an ere antzeko zerbait gertatzen da, jaiotzak 91 izanik. Horrenbestez, urte batzuetan kopuru altuagoak eman arren, jaiotza tasa egonkorra dela esan daiteke, nahiz eta demografiaren garapenean ikusi den gaur egun Aretxabaletan 2000 urtean baino 1000 biztanle gehiago dagoela.

4. GRAFIKOA: Jaiotza tasaren garapena (2000- 2014)




ITURRIA: EUSTAT

Aretxabaletako biztanleria adin taldetan banatuz gero, EUSTAT Euskal Estatistika Institutuaren irizpideak oinarri hartuta, 2015 urtean 0-19 urte bitarteko populazioa 1.420koa da, hau da, biztanleriaren %20; 20-64 adin tartean 4.173 pertsona daude, eta azkenik, 64 urtetik gorako tartean 1.383 pertsona daude, hots, populazio guztiaren %19,8a.

⁶ Heriotza taden inguruko informazioa 1. eranskinean aurkitzen da.

5.GRAFIKOA: Biztanleria adin taldeetan banatuta.




ITURRIA: EUSTAT.

Diagnosi honetan, ikerketaren objektu izango den adin taldea nerabe- gazteen adin taldea da, zehatzago esanda, 12-18 urte bitarte dituzten gazteak.

Aretxabaletan, adin tarte horretako 447 gazte daude. Beheko grafikoan ikus daitezke datuak, adinka eta generoaren arabera desglosaturik. Adin gehientsuenetan 65 eta 80 gazte bitartean daude. Hala ere, talderik ugariena 12 urteko gazteena da (80 pertsona guztira) eta talderik urriena 17 urtekoena (38 gazte, guztira). Gainontzeko adin taldeetan, guztizko kopuruak hauek dira: 16 urtekoak, 54; 13,14 eta 15 urtekoak, 68; eta 18 urtekoak, 71.

Generoari dagokionean, adin gehientsuenetan, emakume eta gizonezkoen kopurua antzerakoa da, gehienik 4 gazteren aldearekin. Aldiz, ezberdintasunik handiena 18 urte dituzten gazteen artean dago, 71tik 30 soilik baitira emakumeak 41. 13, 15 eta 17 urteko gazteen artean, gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino, nahiz eta, lehen aipatu bezala, ezberdintasuna oso txikia den.

6. GRAFIKOA: 12-18 urte bitarteko Aretxabaletako biztanleria.



ITURRIA: Aretxabaletako Udal Errolda.

Migrazioak dira gaur egun gure biztanleriaren eta gizartearen aniztasunaren adierazle nagusienak, eta hauek aztertzea ere ezinbestekoa da lan osatu bat egiteko.


Aretxabaletan, gaur egun, 309 etorkin daude, populazio osoaren %4,48a. 25 herrialde ezberdinetatik etorriak dira eta beraz, Aretxabaleta aniztasunean murgildurik dagoen herria dela esan daiteke, nahiz eta Euskal Herriko beste herri askotan tasa altuagoa dela ikusi. Esaterako, Gipuzkoan etorkinek populazio osoaren %6,5 a osatzen dute.

Beheko grafikoa Aretxabaletako herrian 2003tik 2015era bitartean egon den populazio etorkinaren garapenaren inguruko datuak ikusi daitezke.

2003.urtean, 63 ziren Aretxabaletan bizi ziren etorkinak eta populazio osoaren %1,02a suposatzen zuten. Hortik aurrera tendentzia haztea izan den arren, 2005.urtetik aurrera prozesua azkartu egiten da, hazkunderik nabarmenena 2005etik 2007ra izanik. 2005 urtean, 84 etorkin zeuden eta 2007.urtean berriz, 2209, %1,33 izatetik %3,20 izatera pasaturik. Hortik aurrera ere, tendentzia haztekoa izan da eta 2009.urtean 288an kokatu zen etorkinen kopurua (%4,31). Urte pare batean egonkor mantendu zen arren, 2012tik 2014.urte bitartean, hazkundera berriz bizkortu zen, eta urte horretan populazio etorkina 373 pertsonara iritsi zen, hots, biztanleria osoaren %5,33. Hori izan da Aretxabaletan ehuneko altuena izan den urtea.

Gaur egun, biztanleen %4,48 dira etorkinak, 373 pertsona.

7. GRAFIKOA: Atzerritik etorritako biztanleriaren garapena (2003-2015)




ITURRIA: Ikuspegi.

Generoari erreparatuz, azpialdean dagoen grafikoan ikus daitekeen bezala, gizonezkoen garapena etorkinek guztira izan duten garapenaren antzekoa da, osotasunean etorkinen tasa hazi zenean, gizonezkoena ere ia proportzio berean hazi zelarik, mantendu izan denean mantendu delarik eta jaisten hasi denean, pareko jaitsi delarik.

Emakumeei dagokienean aldiz, garapena motelagoa eta konstanteagoa izan dela ikusten da. Etorkin kopurua igotzen hasi zenean, emakumeena ere igo zen arren, ez zen gizonezkoen kopurua bezain beste hazi, nahiz eta tendentzia gorakoa izan. Azken urtean aldiz, gizonezkoen tasa eta etorkinen tasa orokorra jaitsi egin den bitartean, emakume etorkinen kopuruak gora egin du, aurreko urteetan egin duen antzera.

Hau horrela izanik, gaur egun, emakume eta gizon etorkinen kopurua parekatu egin da lehen aldiz Aretxabaletan.

8.GRAFIKOA: Atzerritik etorritako biztanleriaren (emakume eta gizonak) garapena (2003-2005)



ITURRIA: Ikuspegi.

Garapen datu hauei dagokionean, ikusten da etorkin kopuruaren hazkundera krisiaren hasieran ematen dela era nabarmenenean. Hasiera batean, gizonetakoak etortzearen arrazoia ere hori izan daiteke, izan ere, langabezia baxuagoa eman ohi da gizonen kasuan emakumeenean baino. Krisia areagotzen joan den eran, etorkinen kopurua egonkortzen hasi dela ere ikus daiteke.

Bestalde, azken urteetan, populazioa hazi egin da eta horrek, etorkinen etorrerarekin izan dezake harremana. Egia da biztanleriaren garapena konstanteagoa izan dela etorkin populazioaren hazkundera baino, baina hala ere, zerikusia izan dezake bata bestearekin.

Etorkinen datuekin jarraiki, lehen aipatu bezala, 2015 urtean, lehen aipatu bezala, etorkinak 309 dira. Bigarren eranskinean aurkitzen den grafikoan ikus daitekeenez, herriko populazio osoaren %4,48a suposatzen dute. Horietatik, emakumezkoak 156 dira eta gizonetakoak 160.

Gipuzkoako datuei dagokienean, 2015ean 46.408 etorkin zeuden, hots, populazio osoaren % 6,5a. Horietatik, emakumezkoak 22.850 dira, eta gizonetakoak, 23.558.

Hasieran aipatu bezala, Aretxabaletako etorkinen tasa Gipuzkoakoa eta beste herri askotakoa baino baxuagoa da. Aldiz, generoari dagokionean, Aretxabaletan

Aretxabaleta

emakumeak etorkin guztien %49,3a suposatzen dute, Gipuzkoan %49,2 a direlarik. Aspektu honetan, beraz, Gipuzkoako datuekin parekatzen dira Aretxabaletakoak.

Ondoren, ikerketa honen jomuga izango diren gazteengan gehiago enfokaturaz, 12-18 urte bitarteko etorkinen inguruko datuak aztertuko ditugu.

Adin tarte honetan 447 gazte daudela aipatu da biztanleria bere osotasunean aztertu denean, eta horietatik etorkinak 32 dira.

Aretxabaletako Udal erroldako 2015eko azaroko datuen arabera, 32 dira, beraz, adin tarte horretan dauden etorkinak, tarte horretako populazio osoaren %7,15a suposatzen dutelarik.

Generoari erreparaturaz, 16 dira emakumeak eta 16 gizonezkoak, beraz, batak zein besteak % 50a suposatzen dute.

Adin talde honetako etorkinen ehunekoa, biztanleria osokoa baino altuagoa da, baita, Gipuzkoako populazioaren osotasunekoa baino altuagoa ere.

Bestalde, hasiera baten aipatu den bezala, 35 herrialde ezberdinetako etorkinak daude Aretxabaletan⁷ eta honen inguruko zehaztapenak 3.eranskinean aurki daitezke.


Langabeziari erreparatzea ere garrantzitsua izaten da herri bateko egoera ezagutu ahal izateko, eta gainera, aztergai diren gazteen etorkizuneko egoera aurreikusteko ere balio izango du.

Langabezia tasa nabarmen handitu da Aretxabaletan krisia hasi zenetik. Historikoki langabezia tasa baxua izan duen eremua da Debagoiena orokorrean, izan ere, Kooperatibismoaren mugimendua hasi zenetik, industrian murgildu ziren eskualdeko herriak dira.

Hala ere, gaur egun, Aretxabaletako langabezia tasa ez da duela hamarkada bat bezain baxua, inguruko herrietako tasekin parekatzen delarik.

⁷ EUSTATEko 2014.urteko datuetatik ateratako informazioa. 2015eko datuak, 2016.urte erdi aldean kaleratzen baitira.

9.GRAFIKOA: Langabeziaren garapena Aretxabaletan



ITURRIA: Lanbide

Goiko grafikoan ikus daitekeen bezala, Aretxabaletan 2000 urtean 75 langabe zeuden, hau da, populazio aktiboaren⁸ %2,66a. 2001 urtean, berriz, %4,85era igo zen langabezi tasa⁹, 131 langaberekin. Ondorengo 6 urteetan gorabeherak ematen diren arren, nahiko egonkor mantentzen da krisiaren hasiera arte.

2006.urtean 170 langabetu daude Aretxabaletan eta krisiaren hasierarekin batera, langabezia ere nabarmenean igotzen hasten da. 2007 urtean langabezi tasa %6,82koa zen (227 langabe) eta urtebete beranduago 317 langabe izatera pasatzen da, tasa %9,35ean kokatuz. 2009 urtean langabeak %9,53 dira, herrian langabetu gehien dagoen urtea izanik, hau da, 353 langabetu. Urte horretatik 2011 urtera, langabeen kopurua jaitsi egiten da, baina hala ere, langabezi tasa mantendu egiten da, populazio aktiboan ere beherakada ematen baita. 2012 urtean berriz igotzen da eta egonkor mantentzen da bi urtetan zehar.

Garrantzitsua da esatea, 2013 urtean ematen dela langabezi tasa altuena %10,07 (344 pertsona langabezian). Izan ere, langabezian dauden pertsonen kopurua 2009an altuagoa bazen ere, populazio aktiboaren kopurua ere altuagoa zen, hau da, 2009 urtean 3.711 pertsona eta 2013an, berriz, 3.413. Horren ondoren, 2014 urtean, jaitsi

⁸ Populazio aktiboa: Lan merkatuan dauden pertsona kopurua da, hau da, enplegu bat duten pertsonak eta lanpostu baten bila dauden pertsonak osatzen dutena, horretarako adinean egonda.

⁹ Langabezi tasa: Langabeak suposatzen duten kopurua, populazio aktiboarekiko.


egin da tasa hori eta 2015 urtean 309 langabe daude Aretxabaletan, eta langabezi tasa %9,14an kokatzen da.

Hurrengo lerroetan, gaur egun, hots, 2015ean, Aretxabaletan dagoen langabezia aztertuko da.

Esan bezala, Aretxabaletak¹⁰ orain, langabezian dauden 309 pertsona ditu eta langabezia tasa 9,14koa da.

Generoari erreparatuz, horietatik 173 emakumezkoak dira eta 136 berriz, gizonezkoak. Emakumeen langabezia tasa %10,98koa da eta gizonezkoena %7,53koa. Datu hauek ezberdintasuna egon badagoela adierazten dute, beheko grafikoan ikus daitekeen bezalaxe, emakumeek langabetuen %55,9a osatzen baitute.

10.GRAFIKOA: Langabezia Aretxabaletan (emakume eta gizonak)



ITURRIA: Lanbide.

Datuak beste datu batzuekin konparatzea garrantzitsua izaten da, eta kasu honetan Debagoieneko eskualdeak eta baita Gipuzkoako herrialdeak ematen dituen datuekin egingo da alderaketa (Ikusi 4.eranskina).

Datu hauek aztertuta, Aretxabaletako langabezia Gipuzkoako langabezia baino baxuagoa dela ikus daiteke, bai osotasunean eta baita generoari dagokionean ere.

Hala ere, aipagarria da, genero ezberdintasuna. Datu guztiak erreparatuz, langabetuak diren emakumezkoak gehiago dira gizonezkoak baino, eta tasari dagokionean ere horrela gertatzen da, ezberdintasunak esanguratsuak direlarik. Horrela, lan merkatuan sartzeko, gizonezkoek emakumezkoak baino erraztasun gehiago dutela ikus daiteke.


Aretxabaletan gehiago zentratuz, adin tarteen eta gizon eta emakumeen artean dauden ezberdintasunei erreparatu diegu hurrengo orrialdeko grafikoaren bitartez.

¹⁰ Aretxabaletako enplegu teknikariaren bitartez jasotako datuak. (LANBIDE)

Nerabeen Diagnostikoa

Lehenengo hiru adin tarteei begiraten bazaie, ikus daiteke adin tarte hauetan (16-29) nahiz eta populazio aktiboa ere baxuagoa den, gizonezkoen langabetu kopurua emakumezkoena baino altuagoa dela. 20 urtetik beherako adin tarteari begiratu, 3 dira langabezian dauden gizonezkoak eta 2 emakumezkoak; 20tik 24ra bitartean, 10 dira gizonezkoak eta 6 emakumezkoak, eta 25tik 29 bitartean, berriz, 18 dira langabezian dauden gizonezkoak eta 15 emakumezkoak. Adin tarte hau (16-29) ikasketa garaia izan ohi da gazteentzat, eta maiz, ikasten dauden gazteak ez dira Lanbiden izen emanda egoten. 30 urtetik 34 urte bitartean, genero arteko ezberdintasuna hazi egiten da: langabezia egoeran aurkitzen diren emakumeak 22 dira, eta gizonezkoak, aldiz, 12. Hala ere, hurrengo adin tartean berriz parekatzen dira datuak eta 22 gizonezko eta 23 emakumezko daude egoera horretan. 40 urtetik aurrera hazi egiten da ezberdintasuna, eta adin tarte batean izan ezik, beste guztietan, emakumezkoen langabezia tasa altuagoa da gizonezkoena baino. 45 urtetik 49 urtetara, gizonezko langabetuak 24 dira eta emakumezkoak 12. Dena dela, ezberdintasun nabarmenenak 40 urtetik 44 urteko adin tartean ematen dira, 19 pertsonako aldearekin (29 emakume eta 10 gizonezko). 60 urtetik gorako emakumeekin berdintsu gertatzen da, langabezia egoeran 15 emakume aurkitzen direlarik, gizonezkoak 4 bakarrik diren bitartean.

11.GRAFIKOA: Langabezia Aretxabaletan (Adin eta sexuaren arabera)



ITURRIA: Lanbide.

Lan honetako ikergai diren gazteetan zentratuz, langabezia egoeran gazte asko ez dagoela ikusten da, 5 bakarrik baitaude egoera horretan. 18 urtetik beherako langabetuen egoeraren inguruko informazioa ezin izan da eskuratu, eta beraz, ez dakigu zein adinetan kokatzen diren 5 langabetu horiek zehazki. Hala ere, gazteak kolektibo bezala hartuz gero, hots, 16-25 urte bitartean, Debagoieneko langabetu

gazteak %6,23a dira, eta aipatzekoa da langabeziak gogor astintzen duen kolektiboa izan ohi dela.

Langabeziaren inguruko datuak ezagutu eta gero, diru sarrerek bermatzeko errentaren eta bestelako **prestazio ekonomikoen** inguruko datuak aztertzea ere garrantzitsua izan ohi da, horrelakoek beste mota bateko informazio demografiko garrantzitsua eskaintzen dutelako.

Gizarte Zerbitzuen bitartez jaso daitezkeen prestazio ekonomikoak (nahiz eta batzuk Lanbidetik kudeatu), hiru motatakoak izan daitezke:

Batetik, Diru Sarrerek Bermatzeko errenta dago, orokorrean, gizarte zerbitzuetara bertaraten direnek jasotzen duten prestazio ekonomiko nagusia. Bestetik, Diru Sarrerek Bermatzeko Laguntza dago. Laguntza hori aurretik aipatutako laguntzaren ordezkoa da, izan ere, Eusko Jaurlaritzak Diru Sarrerek Bermatzeko Errenta jasotzeko baldintzak igo zituenean (urtebete erroldatuta egon behar izatetik, hiru urtetara), Gipuzkoan hori osatzeko edo gizarte bazterketan geldituko liratekeen pertsona horiei babes ekonomikoa emateko, mota honetako laguntza sortu zuen Foru Aldundiak. Azkenik, berriz, Gizarte Larrialdietarako Laguntza dago. Laguntza hori mota ezberdinetako larrialdietarako izan daiteke, beste askoren artean, esaterako, momentu puntualetan, baita alokairua ordaintzen laguntzeko ere.

Diru sarrerek bermatzeko errentari dagokionean, Aretxabaletan 87 bizikidetza unitatek jasotzen dute. 87 horietatik 21ek daukate familia, eta horietatik 8 guraso bakarreko familiak dira.

Diru sarrerek bermatzeko laguntzari dagokionean, berriz, 14 bizikidetza unitatek jasotzen dute. Horietatik 7 dira, familia duten bizikidetza unitateak.

Goian aipatutako hirugarren prestazio ekonomikoari dagokionean, hau da, gizarte larrialdietarako laguntzari dagokionean, 54 onuradun daude eta horietatik 29 dira familiak.

Beraz, gizarte laguntza edo prestazioei dagokionean, mota bateko edo besteko prestazioa jasotzen duten bizikidetza unitateak 155 dira guztira, eta horietatik 57 dira familiak.

Langabeziako datuak aztertu eta gero, **euskararen** ingurukoak aztertuko dira, Euskal Herrian bizi garen heinean garrantzitsua baita euskarak herrian sozialki hartzen duen esparrua ere ezagutzea.

Gaur egun, Aretxabaletako gazteen %100ak ikasten du euskaraz, Debagoienera ez baitago D eredia ez den hezkuntza eredurik erakusten duen zentrorik. Hala ere,

Nerabeen Diagnostikoa

euskararen erabileraren inguruko datuek ez dituzte ezagutzaren emaitza berak ematen.

Aretxabaletari dagokionean, azken kale neurketen datuak 2011koak dira eta horiek dira aipatuko direnak.

4.TAULA: Euskararen erabilera adin taldeen arabera.

Haurrak	Euskaraz	496	EUSKARAZ % 70,8
	Gaztekeraz	202	
	Bestelakoetan	3	
Gazteak	Euskaraz	89	EUSKARAZ % 36,2
	Gaztekeraz	143	
	Bestelakoetan	14	
Helduak	Euskaraz	423	EUSKARAZ % 39,9
	Gaztekeraz	603	
	Bestelakoetan	33	
Adinekoak	Euskaraz	128	EUSKARAZ % 40,9
	Gaztekeraz	185	
	Bestelakoetan	0	

ITURRIA: Aretxabaletako Udaleko Euskara Zerbitzua

Adin taldeei dagokienean, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, hauen artean, %70,8ak erabiltzen duen artean. Helduen artean, %39,9ak erabiltzen du euskara eta adinekoen artean, berriz, %40,9ak.

Erabileraren inguruko datu baxuena gazteen artean ematen da, helduen datura gehien gerturaten den taldea izanik. Aretxabaletako gazteen artean %36,2ak egiten du euskaraz, 2011ko kale neurketen arabera.

Bestalde, generoari dagokionean, emakumezkoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, erdiak baino gehiagok hain zuzen ere (%51,2ak). Gizonezkoetan, aldiz, euskararen erabilera eta %46,7ra jaisten dela adierazten dute 2011 urtean burututako kale neurketek¹¹.

¹¹ 5.ernaskinean aurkitzen dira datu horien inguruko grafikoak.

5.-ERABILITAKO METODOLOGIA

Ikerketa prozesuek analisirako erabiliko diren metodoen sistematizazio bat behar beharrezkoa dute, baita kronologia nolakoa izan den zehaztea ere (6. eranskinean agertzen da lana kronologikoki banatuta). Metodoen sistematizazio egokia egiteko, hurrengo lerroetan azalduko dira helburuak bete ahal izateko erabili diren analisirako metodoak.

Lan honekin egin den ikerketa mota, oinarriko ikerketa izan da, izan ere, helburua ez da arazo zehatz bat konpontzea, baizik eta gai baten inguruko ezagutza handitzea eta egoeraren azterketa egitea.


Hau horrela izanik, behin ikerketa diseinua aurreikusita, lan urratsak eta teknikak zehaztu ditugu, testuinguruari dagokionez egokienak aukeratuta. Ikerketa gizarteko kolektibo baten ingurukoa izanik, **teknika kualitatiboak** ulertu dira aproposen. Izan ere, metodo kuantitatiboaren bidez, hainbat pertsonak esaten dutena batzen da eta horrela, elementu indibidual bezala aztertzen dira. Aldiz, metodo kualitatiboaren bidez, norbanako bakoitzak, beste norbanakoekin duen harreman edo erlazioaz aritzen da, estruktura osatzen duten elementu guztien harremanari so eginez. Hau horrela izanik, ezinezkoa bihurtzen da elementuak banakako eran edo era isolatuan aztertzea, izan ere, gizartea bera ere norbanakoen arteko harremanek osatzen baitute.

Beraz, Aretxabaletako gazteen errealitatea eta dituzten beharrianak aztertzeko, teknika kuantitatiboak informazioren bat ematen badigute ere, teknika kualitatiboak erabiliz hurbilpen integralago bat lortuko dela ikusten dugu. Metodologia hau prozesu sozialetako harremanetan zentratzen da, gizarte bat bertako kide eta sistemen artean eratzen dela kontuan hartuta. Pertsonak beraien erreferentziazko marko barruan ulertzea da honen ezaugarrietako bat.

Teknika kualitatiboan artean, aurretik fundamentazioan aipatu bezala, **Ikerketa Ekintza Parte-hartzailearen** "filosofian" kokatu gara. IEP-aren teoriarik murgilduta, gure diagnostikoa prozesu horren baitan kokatzea erabaki dugu. Prozesu hau talde batek dinamizatua da eta horien arteko lana eremu itxian egiten da. Ondoren, hortik jasotakoarekin herrira edo zuzendu beharreko kolektibora irekitzen da ikerketa; eta hortik berriz ere talde dinamizatzaile itxira. Jarraian, kolektibo edo jendarteko parte-hartzetik jaso eta analizatutako ezagutza, berriz ere modu irekian transmititzen da, hau da, diagnostikoa parte-hartzaile kolektibora aurkeztuta. Eta amaitzeko, garrantzitsu ikusten da ikerketa lana, txostena, herri osora zabaltzea: gune publikoren batean lanaren aurkezpena egitea, ikerketak beharrezko duen transbertsalitatea

Nerabeen Diagnostikoa

lortzeko. Berez, IEP prozesuak beste urrats batzuk ere hartzen ditu barne baina gure lana ikerketara mugatzen denez, horra egokitu dugu eskema:



● Puntu beltz honek markatzen dituenak dira ikerketa talde itxira mugatuko den uneak.

Ikertzaile taldea metodologia orokor honetan kokatuta, ikerketaren diseinuan murgildu beharrean gaude. IEP-a bada jada teknika bat baina honen baitan, beharriak identifikatzeko ezinbesteko zaigun informazio eta ezagutza lortzeko, teknika zehatzagoak aukeratu behar izan ditugu. Egokiena ikusi dugun ordena kronologikoan aurkeztuko da jarraian teknika hauen aukeraketaren zergatia eta erabilpenaren nondik norakoak: behaketa zuzena, elkarrizketa eta eztabaida taldeak.

Behaketa zuzena

Hasiera batean herriko dinamikak eta bertako auzune desberdinetako bizimodua ezagutu nahi izan ditugu bertatik bertara. Horretarako **Behaketa zuzenaz** baliatu gara. Hara eta hona ibiltze hori ez da besterik gabe, helburu eta oinarririk gabe, egiten: herriak eta zehazki bertako gazteek, beraiengan eragin gabe, duten egunerokoa ikustea izan da helburua, zein bizikidetzatza mota duten, zein bizi-ohitura eta abar. Behaketaren bitartez, fenomeno edo egoeraren deskribapenarekin lanean hasi nahi izan dugu.

Elkarrizketa

Elkarrizketak ikertzaile eta elkarrizketatuaren arteko elkarrekintzak dira. Horrekin, gai, egoera edo arazo baten inguruko informazioa jaso nahi da, hala nola aspektu objektiboen gainean zein subjektiboen gainean. Honen baitan dauden mota desberdinen artean, elkarrizketa erdi egituratua egitea erabaki dugu. Gidoi batean oinarritutako elkarrizketa da, baina honen garapenean galderak ordenatu eta egiteko askatasuna mantentzen da. Estilo erdi ireki honek, elkarrizketatuaren hitzetatik eta ikuspegietatik informazio aberatsa jasotzeko aukera ematen du.

Teknika honen zailtasunik handiena denborari dagokionean aurkitu dugu. Elkarrizketatzailearen denbora asko eskatzen du elkarrizketak, bai egiterako orduan, eta baita informazioa sistematizatzerakoan ere. Herrian esanguratsuak diren baliabide, eragile, zerbitzu eta subjektu diren gazteekin kontaktua izan eta elkarrizketarako egun bat zehaztu izan dugu.

Elkarrizketak zehazteko, orokorrean harreman zuzenaz baliatu gara. Gazteen kasuan eskolak erabili ditugu beraiengana heltzeko, hasiera batean behaketa parte hartzaile teknika erabiltzea planteatu baguenen ere. Erabaki hori hartu genuen, lanerako denbora mugatua izanik, ahalik eta kopuru handienara iristeko eta elkarrizketatuen lagina¹² ahalik eta anitzena izan zedin.

Gauzatzerako orduan, elkarrizketak grabatu egin dira, ahozkoa ez den komunikazioan inongo informaziorik ez galtzeko, eta elkarrizketatzaileen idatziekin oztoporik ez izateko. Ondoren, transkribatu egin da elkarrizketa bakoitza, informazioaren sistematizazioa errazteko.

. Gida-sortzea

Edozein azterketa, gehiago zein gutxiago zehaztua izan arren, gai jakin batzuk jorratzeko helburuarekin sortzen da, eta elkarrizketaren gidoiak landu behar diren gaiak eta azpi-gaiak jasotzen ditu, beti ere ikerketaren helburuari jarraituta. Landu behar diren gaien gaineko eskema irekia da, orden finkorik gabekoa. Orientazio gisa erabiltzen da, elkarrizketatuekin egotean baliagarria den informaziorik ez galtzeko.

Gure kasuan, gazteak garatzen diren testuinguru osoa kontuan hartu nahi izan dugu, eta horretarako, berauek inguratzen dituzten sistema desberdinak identifikatu eta bost arlo desberdinetan multzokatu ditugu: arlo pertsonala, familiarra, interpertsonala edo soziala, hezkuntza arloa eta, azkenik, parte-hartze eta aisialdi arloa.

Eztabaida taldea

Azkenik, beharrezkoa iruditu zaigu, aurreko bi tekniken bidez jasotako informazioa, gazteen beharrezkoa alegia, ikerketarako subjektu nagusi izan ditugun gazteei eta hauekin batera bigarren maila batetik parte hartu duten zerbitzu eta baliabideei transmititzea beharrezkoa iruditu zaigu, IEParen metodologiak ere horrela iradokitzen

¹² Ezaugarri jakin batzuk dituen subjektu talde bat. Lagin teorikoak eraikitzeke biztanleriari buruzko ezaugarriak ezagutu behar izan ditugu. Hautaketa lan horretan ahalik eta talde handiena eta esanguratsuena aukeratzeko ahalegina egin den arren, argi utzi nahi da beti egongo dela diagnostikoa pertsona talde horren eta lana egin den denbora tartearen subjektibotasunaren baitan.

baitu. Informazio partekatze horretarako **eztabaida taldeen** teknika erabili dugu. Hauek taldeko bilerak dira, parte hartu duten guztiak elkartu eta denbora batean zehar gai baten gaineko eztabaida ireki eta aberats batean murgiltzeko topaketak. Topaketa horietan, beste tekniketarik ateratako informazioa “birpasatu” nahi da, jaso dena ondo jaso den ikusi eta gehigarriei atea irekitzeko. Talde hauek moderatzaile batek zuzendutako edo erdi-zuzendutakoak izatea ikusi dugu beharrezko, batez ere elkarrizketaren formatua pixka bat egituratua izan dadin.

Guzti honetaz gain, badira eztabaida taldeetan kontuan izan ezean informazio bilketarako arriskutsuak izan daitezkeen faktore batzuk: taldeko kideen erantzunak ez dira batzuen eta besteen artean independenteak; kide oso dominatzailearen bat dagoenean, besteen esanak baldintzatuak egon daitezke; eta moderatzaileak berak ere, hau da, guk, baldintzatu egin ditzakegu taldeko kideak espero denari buruzko pistak kontzienteki edo inkontzienteki emanda.

Eztabaida taldeak egiterako orduan, hauek izan dira eduki diren helburuak: bata, egindako analisian jasotako informazioa, informazio iturri izan direnei bueltatu eta hauekin partekatzea; bigarrena, hauen ekarpenak jasotzea, berriz ere, analisian txertatu eta osatuagoa izan dadin, eta hirugarrenik, egindako lanaren ebaluazioa egitea.

Honen antolaketarako, rolak banatu dira, eta bi pertsonak jasotako informazioa aurkeztu eta saioak dinamizatu dituzte, beste bat ekarpenak eta bertan botatakoak jasotzen egon den bitartean, idazkari lanetan.

Aurkezpen irekia

Aurkezpen irekia ez da berez metodo kualitatibo bat, baina garrantzitsua iruditu zaigu ikerketa honetan teknika bezala erabiltzea, jaso den informazioa herrian barna lau haizetara zabaldu ahal izateko. IEPko metodologiak iradokitzen duen bezala, talde itxian analizatzen direnak gero irekiera bat behar dute, eta talde eztabaiden bidez emandakoaren ondoren, behin betiko analisisa osatuta, lanari amaiera irekia eman nahi izan zaio aurkezpen publiko honen bidez.

Aurkezpena, udaleko departamentu guztientzat eta prozesu honetan parte hartu dutenentzat izateaz gain, uste dugu garrantzitsua dela herritarrek ere bertan egotea, bildutako informazioa guztion esku eduki ahal izateko, eta herritarrek, eragileek, taldeek... erabili ahal izateko.

6.- INFORMAZIOA ITURRIAK

Erabilitako metodologia aipatu eta gero, garrantzitsua da elkarrizketak eta eztabaida taldeak norekin egin diren aipatzea.

Analisia egiterako orduan, informazioa era ezberdinetakoa eta ikuspuntu ezberdinetatik ateratakoa izateko, ahalik eta profil ezberdinenak aukeratzen saiatu gara. Horretarako, lau multzo nagusi hartu ditugu: gazteak beraiek; aisialdi baliabideetako arduradunak; eskola eta ikastolako profesionalak; eta azkenik, informazio baliagarria jasotzen duten hainbat pertsona, hala nola, gurasoak, osasun zentroko profesionalak eta udaleko hainbat teknikari.

Elkarrizketei dagokionez, 213 pertsonekin batu gara guztira. Hurrengo lerroetan zehaztaperen gehiagorekin ageri elkarrizketatuak izan diren pertsonak zeintzuk diren, eta talde hauek hautatzearen zergatiak zehaztuko dira.

-Gazteak:

Gazteak beraiek dira ikerketa honen protagonista nagusiak, eta hala azaldu zaie elkarrizketatuak izan direnean, gainera, informazioaren kudeaketan ere horrela erabili ditugu lortutako datuak, lehentasun berezia emanez.

Denbora dela-eta, behaketa parte-hartzailea egiteko zailtasunak aurreikusi direnez, elkarrizketak eskola edo zentro desberdinetatik kudeatu dira, nahiz eta hasiera batean hori ez izan asmoa.

Kurtzebarri eskolarekin, Arizmendi ikastolako Almen gunearrekin, Aretxabaletako lanbide eskolarekin eta Arrasateko Lanbide hastapenarekin jarri gara harremanetan eta elkarrizketetarako pertsona kopuru bat zehaztu ondoren, beraien esku utzi da gazteen hautaketa, aurrez azalduta ahalik eta profilik ezberdinenetako informazioa lortu nahi dela.

Elkarrizketatuen lagin kopurua zehazterakoan, gazteen %25a baino gehiagorekin biltzea jarri zen helburu, eta elkarrizketak bukatu eta gero, ikusi da gazteen % 39,59a iristea lortu dela, guztira 177 gazterekin elkarrizketatu baikara.

Elkarrizketa guztietan neska eta mutil kopuru bera egon da, genero ezberdinetako presentzia parekatua egotea nahitaezkoa ikusi baita.

Gazteekin burututako elkarrizketak beraien eskola orduetan gauzatu dira, aurrez, zentroko irakasleekin adostuta eta ahalik eta enbarazu gutxien sortzen saiatuta. Eskola orduetan egitearen arrazoia kopuru minimo bat bermatzea izan da, eta elkarrizketak beraien zentroetan gauzatu dira, hauen erosotasunerako, beraiek ondo kontrolatzen duten esparrua denez, erosoagoa sentituko zirelakoan.

Nerabeen Diagnostikoa

Gehientsuenetan 4 pertsonako taldeetan egin dira elkarrizketak, taldekide guztiak maila berekoak izanik, gehienbat, hitz egitea eta elkarrizketatzaileekin solteago egotea bermatzeko.

Horrela banatu dira elkarrizketak:

- Arrasateko Lanbide hastapena: 12 gazte.
- Aretxabaletako Lanbide Eskola: gazte 1.
- Kurtzebarri eskola:
 - DBH 1.maila: 20 gazte
 - DBH 2.maila: 24 gazte
 - DBH 3.maila: 16 gazte
 - DBH 4. Maila: 12 gazte

- Arizmendi ikastolako Almen gunea:
 - DBH 1.maila: 24 gazte
 - DBH 2.maila: 16 gazte
 - DBH 3.maila: 12 gazte
 - DBH 4. Maila: 16 gazte
 - Batxilergoko 1.maila: 12 gazte
 - Batxilergoko 2.maila: 12 gazte

·Aisialdiko baliabideak:

Aisialdiko baliabideei dagokienez, guztiak zerrendatu dira eta horrela, bakoitzeko arduradunarekin elkarrizketatu gara, baita zenbait hezitzaileekin ere, nahiz eta batzuetan pertsona bera izan.

Elkarrizketa hauek banakakoak izan dira eta gehientsuenak udaletxeko bulegoan gauzatu dira, nahiz eta batzuetan berauenetan ere gauzatu izan diren.

Hau da elkarrizketatutako pertsonen zerrenda:

- Arizmendi kirol elkarteko arduraduna.
- Leintz Eskola Kiroleko Aretxabaletako arduraduna.
- UDAko arduraduna
- Loramendi elkarteko arduraduna.
- Atxagazte gaztelekuko arduraduna eta 3 hezitzaileak.
- Musika eskolako arduraduna eta gitarra irakaslea.

·Eskoletako profesionalak:

Eskoletako profesionalei dagokienez, jardun eta betebeharrak ezberdinak dituzten profesionalekin elkarriketatu gara, ikuspuntu ezberdinak eduki ahal izateko. Elkarriketak binaka gauzatu dira: irakasleekin binaka egon gara, eta beste bikotea zuzendari eta orientatzaileak osatutakoa izan da. Elkarriketak, zentroetan egin dira.

Hau da elkarriketatuen zerrenda:

- Aretxabaletako Lanbide eskola: Irakasle eta ikasketaburua.
- Arrasateko Lanbide Hastapena: Zuzendaria (irakasle ere bada) eta irakasle bat.
- Kurtzebari eskola: Zuzendaria, orientatzailea eta bi irakasle.
- Arizmendi ikastolako Almen gunea: Zuzendaria, orientatzailea eta bi irakasle.
- Hitzhartu akademia: bi irakasle.

Pertsona horiez gain, garrantzitsuak iruditu zaizkigun hainbat esparru ezberdinetako beste batzuekin ere elkarriketatu gara: gurasoekin binaka elkarriketatu gara eta udaleko bulegoan gauzatu izan dira elkarriketak; osasun zentroko profesionalekin, osasun zentroan bertan eta guztiekin batera gauzatu da elkarriketa; familia hezitzailearekin udaletxeko bulegoan, eta udal teknikari ezberdinekin beraien bulegoetan gauzatu dira elkarriketak eta banaka.

Hauek izan dira elkarriketatuak:

- Gurasoak: Kurtzebarri eskolako 2 guraso eta Arizmendi ikastolako Almen guneko bi guraso.
- Osasun zentroa: Pediatra, familia mediku bat eta emagina.
- Udaleko teknikariak: Kultura teknikaria, gazteria teknikaria, berdintasun teknikaria eta parte hartze arloko teknikaria.
- Familia hezitzailea: Aretxabaletako familiekin esku hartzen duen hezitzailea.
- Sasoia: Drogen prebentzioan Aretxabaletako eskola eta ikastolarekin lanean aritzen den profesionala.

Eztabaida taldeei dagokienean, 5 eztabaida talde gauzatu ditugu. Alde batetik, gazteekin harremana duten baliabide ezberdinekin egon gara eta hiru multzo egin

Nerabeen Diagnostikoa

ditugu eztabaida taldeak gauzatzeko: batetik, hezkuntza ez formal bezala ezagutzen dena osatzen dutenak, hau da, aisialdiko baliabideak; bestetik, eskola edo hezkuntza formaleko profesional ezberdinen multzoa, eta azkenik, ikerketaren objektu diren gazteen gurasoek osatutako multzoa.

Talde bakoitzean pertsona ezberdinak batu dira, nahiz eta aurrez batera elkarrizketatuak ez izan. Eztabaida talde hauen helburua zein den kontuan izanik, garrantzitsua iruditu zaigu esparru berdinean lan egiten duten profil ezberdinetako pertsonak batzea, irten zitezkeen ekarpen, ondorio edo eztabaidak aberasgarriagoak izan zitezen.

Bestalde, gazteekin egin ditugu eztabaida taldeak, zikloka eta zentro ezberdinetako gazteak nahasturik. Inportantea ikusten da zentro ezberdinetako gazteekin batera egotea, informazio anitz eta aberasgarriagoa lortze aldera. Hauek, boluntarioak izan dira eta eskola orduetaz kanpo gehientsuenetan, beraz, etorri diren gazteen kopurua ez da oso arrakastatsua izan, esaterako, batxilergoko gazterik ez da etorri.

Eztabaida taldeak Arkupe kultur etxeko bigarren solairuko gela batean egin dira (maiz, eztabaidak sortu ahal izateko espazio fisiko egokia behar izaten baita eta gela horrek hori bermatzen baitu) aurrez prestatutako power point bat oinarritzat hartuz.

Hauek izan dira gauzatu diren eztabaida taldeak:

1.eztabaida taldea:

Hezkuntza ez formala edo aisialdiko baliabideena:

- LEKeko arduraduna
- Arizmendi Kirol elkarteko arduraduna
- UDAko arduraduna
- Leizarra Musika Eskolako arduraduna
- Atxagazte gaztelekuko arduraduna eta bi hezitzaile.
- Loramendi elkarteko arduraduna.

2. eztabaida taldea:

Hezkuntza formala edo eskola ingurukoa:

- Arizmendi ikastolako Almen guneko bi irakasle.
- Arizmendi ikastolako Almen guneko orientatzailea.
- Kurtzebarri eskolako bi irakasle.
- Kurtzebarri eskolako orientatzailea.
- HitzHartu akademiako bi irakasleak.
- Aretxabaletako Lanbide eskolako irakasle bat eta ikasketaburua.

Aretxabaleta

3.eztabaida taldea:

lkerketaren objektu diren gazteen gurasoak: 4 guraso.

4.eztabaida taldea:

1 eta 2. DBHko ikasleak: 34 ikasle.

5.eztabaida taldea:

3 eta 4. DBHko ikasleak: 20 ikasle.

7.- HERRI GUNEEN BANAKETA

Aretxabaletako udal-mugapeko 2.626 hektareetatik 76,68 inguru, hau da, %3,7a, lurzoru urbanoari edo erabilpen urbanoko lurzoruari dagozkie.

7.005 biztanlerekin, 91,35 biztanle eta 41,44 etxebizitza daude hektareako, eta gehienak haranaren behealdean kokaturik dagoen gunen nagusian biltzen dira, Deba ibaiaren ertzeko haranean. Bestiak, muinoetan eta haranaren erdi eta goi-hegaletan kokatutako bederatzita landa-guneetan bizi dira:

- Izurieta auzoa (Uzitta)
- Galartza auzoa
- Apotzaetxebarri auzoa
- Oro auzoa
- Larrino auzoa
- Aozaratza auzoa (Azatza)
- Goroeta auzoa (Korueta)
- Arkarazo auzoa
- Areantza auzoa (Arientza)

Gune hauek haranaren ardatzetik abiatzen diren gurgil-bide estuen bidez lotzen dira gunen nagusiarekin, herrigunearekin.

Landa eremu hauetan 10-24 artekoa da baserri kopurua eta auzo bakoitzean 12-63 pertsona artean bizi dira, guztira 372 biztanle. Gune hauek herrigunetik eta eskualdeko bide-saretik gertu egoteak erraztu egin du nekazal eta abeltzaintza jarduerak hiriko jarduerekin bateragarri bilakatzea. Gainera, landa-eremutako zerbitzuen gabezia eramangarriagoa izatea ere ahalbidetzen du gertutasunaren abantailak.

Gune nagusi edo **herrigunera** itzuliz, bizileku-eremuetako dentsitatea 71 etxebizitza/hektarea baino gehiagokoa da batzuetan. Hirigintza sailaren arabera, ez da gehiegizko dentsitatea baina udalerraren tamaina kontuan harturik, beheranzko doikuntza eskatuko luke, batez ere, hiri-parkeen gabeziagatik. Bestalde, dentsitateari dagokionez, orekatuak diren auzoen adibide positiboak lirateke Markole, guztiz urbanoak diren Belorrieta eta Beroa eta, dudarik gabe, erdigunea.

Laburbilduz, orokorrean hiri-habitataren ingurune-balantzea positiboa da, nahiz eta hobetzeko aukerak badauden, azkenaldian ekimen publikoko sustapen gutxi egon baita. Lorategidun espazio komun baten falta nabari da Hirigintza Sailaren aburuz; espazio horiek nahiko atomizatuta daude eta batzuk, erabilpen egoki baterako desegokiak dira.

Lan honetarako, herria **hiru zatitan** banatu dugu; erdigune osoa eremu bezala hartu dugu, eta honen alde bakoitzean dauden bi gunetako bakoitzarekin beste 2 eremu definitu ditugu. Hau da, beheko gunea, erdiko gunea eta goiko gunea. Hala ere,

herriaren erdigunea dinamika gehien biltzen duen eremua dela ikusita, beste 3 zati edo azpigunetan banatu dugu.

Banaketa edo zatitze hau, analisiaren lehenengo zatia izango den behaketarako egin da batez ere, teknika horretatik jasotako informazio eta ezagutza eremuka sailkatzeko. Gainera, ezagutza hori gune bakoitzaren deskribapen fisikoa kontuan hartuta interpretatzeko ere erabilgarri zaigu herriaren banaketa.

BEHEKO GUNEA (UDALETXERAINO ARTE)

Arrasate aldera gelditzen den zonalde honetan, beste bietan bezala, bailarako herriak lotzen dituen saihebidetako sarrera zuzena dago. Errepideak herri barruko abiadura muga izan arren, zirkulazioa nahiko handia da eta auzunea erdi-erditik igarotzen du (Otalora kalea).

Herrirako sarbide honen eskumako aldean zuhaitzek estaltzen duten espaloi luze bat besterik ez dago eta ezkerraldean, duela zenbait hamarkada egindako lau etxebizitza eraikin. Horien atzeko aldean, espazio berdea da guztia, bide-gorria bertatik igarotzen da eta **skate parkea** ere hantxe dago.

Erdigunerantz gerturatuz, eskuineko aldean egin berri duten Unibertsitatea daukagu, Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezkoen ikasketak egiteko eraikina. Hau ere, espazio berdez inguratuta. Hortxe hasten da herria zabalera hartzen eta errepidearen bi aldetara etxebizitza gehiago ageri dira. “**Kuartel zaharra**” dena ere, musika taldeek entseatzeko darabiltena, bertan dago, errepide ertzean.

Puntu horretantxe beste bi kale zabaltzen dira, bakoitza alde banatara: Santakurtz kalea eta Bedarretako San Migel. Lehenengoaren atzeko aldean bide-gorriak bere ibilbidea jarraitzen du; bestearen atzeko aldean berriz, Galartza landa auzorako errepidea eta Lausitta kalea daude. Lausitta kaleko etxebizitza multzoaren aurrealdean, bada, gune berdea ez den arren, haurren jolas parke bat dago, iturri eta guzti. Aurreko aldean GSR Debagoiena Adinekoen zentroa dago eta hortik aurrera jada, landa auzoetara edota Aramaiora iristeko errepidea besterik ez. Horren parean hasten da Txarapeako etxebizitza berrien ilara luzea. Duela gutxi eraikitako etxebizitzak dira, hori dela eta, jende gazte asko bizi da bertan eta haurrak ere dezente daude.

Otalora kalean segituta, horren eta Santakurtz kalearen artean etxebizitza baxuak daude, herriko baserri itxurakoak, gehienak beraien berdegune pribatuarekin. Ezkerraldera joaz berriz, Murubide plaza dago etxebizitza eraikin baten atzealdean. Plaza horretan, haurrentzako jolas parkea, iturria eta **frontoia** aurki daitezke. Azkenik, Otalora kale printzipaletik jarraituz, Udaletxera eta herriko elizara iritsiko gara.

Nerabeen Diagnostikoa

Beheko gunee honetan, etxebizitza eraikinak dira nagusi. Bi denda daude auzo guztian, supermerkatu txiki bat eta arrandegia. Honetaz gain, hiru taberna ere aurki daitezke, ile-apaindegi bat eta baita ingeles akademia bat ere. Unibertsitatea auzune honetan kokatuta egotea ere garrantzitsua da, bertan bizitza egiten duen jende kopurua zertxobait areagotzen baita.

Horrez gain, hainbat **espazio ireki** aurki ditzakegu. Haurrentzako ziburuak daude sei gunee ezberdinetan eta bertan, arratsalde partean jendea egoten dela behatu da, nahiz eta gutxi batzuk goizetan ere bertaratzen diren (aitona-amonak haur txikiekin batez ere). Honetaz gain, herri osoa zeharkatzen duen bide gorriak ere badu bertan garrantzia, izan ere, Arrasaterantz doa eta egun osoan zehar ikus dezakegu adin eta profil oso ezberdinetako jendea hara eta hona.

Goian aipatu bezala, skate parkea ere badago, eta gaur egungo patinete arrakastatsuekin ibiltzen diren 10-12 urteko neska mutikoz josia egoten da, arratsaldeetan batez ere. Aipatu beharra dago, gehiengo nagusia mutilak osatzen dutela gunee honetan. Unibertsitate aurrean ere, espazio berde eta irekia dago, gehienetan, unibertsitateko ikasleak egoten diren lekua izanik.

Aipatutako adinekoen zetroan ordutegi jakin batzuk dituzte bisitak jaso eta kalera irteteko. Herri askotako jendea dago bertan eta familiakoak etortzean, maiz, kalera irteten dira gurgildun aukietan. Ordu zehatz horietan, hau da, 11:00etatik 12:45era eta 17:00etatik 18:45era, sekulako mugimendua egoten da auzoan, nahiz eta, gehienetan, pasorako bakarrik izaten den. Gainera, Lausita auzoko etxebizitzaren ondoan, herriko autobus geltoki zentrala (Arrasaterako norantzan) aurkitzen da, horrek suposatzen duen jende andanarekin.

Auzoko **bizitza sozialari** buruz hitz egiterakoan, aurrez aipatu berri dugunaz gain, bi zatitan banatuko genuke auzoko bizitza soziala. Batetik, aisialdiaz gozatzen dagoen jendea aurki dezakegu, esaterako, parkeetan, bidegorrian eta abar. Bestetik berriz, kontsumitzen ari den jendea egon ohi da auzoan; bertako auzokideak dira gehienetan eta auzoak eskaintzen dituen baliabideak erabili ohi dituzte, ahal den neurrian, noski: bertako dendak, arrandegiak, ile-apaindegiak, tabernak... Kontsumitzaile gehienak bertakoak diren arren, taberna batzuetara eta gehien bat arrandegira, badira erdigunetik jaisten direnak ere. Tabernetan, goizeko eta arratsaldeko azken orduetan ikusten da mugimendu handiena, gizonezko gutxi batzuk txikiteoan batez ere.

Baina, bertan dagoen etxebizitza kopuruari eta kalean dabilen jendeari erreparatuz, esan daiteke bertan bizitza egiten duen auzokide gutxi daudela, edo ez beste leku batzuetan beste behintzat. Honekin esan nahi dena da, auzoan jendea bizi arren, askok beraien egunerokotasuna, erdigunean edo beste herriren batean egiten dutela.

ERDIKO GUNEA

Erdiko gunea, Belorrieta auzoan kokatzen den farmazia berritik hasita, Udala kokatzen den eraikinera arte markatu dugu. Eraikin hori eta eliza elkarri itsatsita daude ia-ia, eta hauen parean herriko plaza daukagu. Herriko puntu garrantzitsuenak, denak batera. Plazan erdiko lekua Kurtzebarri eskolako DBH-ko eraikinak hartzen du eta honen bi aldeetan etxebizitzak daude. Etxabeetan, 3 taberna, ileapaindegi bat, farmazia bat, litxarrerria denda bat, arropa denda bat eta **Arkupe Kultur Etxea** daude.

Plazatik aurrera jarraitzeko hiru kale ditugu: Santakurtz kalea, eskolaren atzealdean; Durana kalea, erdian, eguerditik aurrera oinezkoentzat bakarrik dena; eta azkenik, behealdean, ibaiaren ertzera gerturatuz, Errekabarren eta Txarapea kaleak. Erdiko kalea eguerditik aurrera trafikorako itxita egon ohi denez, herri barruko trafiko guztia SantaKurtz kaletik (Arrasaterako norantzan) eta Errekabarren kaletik (Eskoriatzarako norantzan) joaten da. Hori dela eta, hiru gunee oso ezberdin osatzen dira naturalki erdiko gunee honetan. Batetik, Santakurtz kaleko errepidetik gorakoa; bestetik, Santakurtz errepidetik Errekabarreneko etxe lerroa artekoa; eta azkenik, errekatik beste aldera gelditzen den eremua. Hau horrela, ikerketa honetan, hiru azpi-gunee ezberdin behatzea erabaki da, bakoitzak propio dituen ezaugarriak hobeto ezagutzeko asmoz.

- Lehenengo azpi gunea

Erdiko guneko lehen azpi gunea, goiko aldea dugu, hots, Santakurtz kalea eta herria inguratzen duen saihesbidearen artekoa. Beheko gunetik jarraiki, lehenengo aurkitzen den eraikuntza, Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako eraikina da, futboleko eta saskibaloiko kantzak eta bolatokia dituen jolasleku batekin. Eskolako irteera orduei erreparatuz, guraso zein aitona-amonak ikusten dira bertan. Behaketetan ikusi ahal izan denez, eguerdietan ateratzen diren haurren bila gehienetan aitona-amonak joaten dira, eta arratsaldeetan berriz, gurasoak gehiago izaten dira.

Eskolari itsatsita, **Iturrigorri frontoia** dago. Estalitako frontoia da eta herrian dagoen handiena. Zonalde horretan, haurrak ibili ohi dira jolasean, batetik, jolas orduetan eta bestetik, arratsaldetan eskola orduetatik kanpo. Bertan, haurren gurasoak eta haurrak biltzen dira eta arratsaldeko lehen orduetan giroa sortzen da. Gainera, frontoiaren erabilera publikoa da, nahiz eta eskola orduetan Kurtzebarri lehentasuna eduki. Beraz, Udalera joan daiteke edozein herritar, eta bertan, ordu jakinetarako frontoia

alokatu. Hau horrela, herritarrak ibili ohi dira, astean ordu batzuetan, frontoira sartu irtenean.

Frontoitik aurrera segituta, Santakurtz kalea amaitu arte, etxebizitza eraikinak ditugu errepidearen alde banatara. Frontoia eta Santakurtzeko etxeen atzeko aldeetan, inoren begiradatik babestuta dauden txokoak aurki daitezke, erabiltzekotan, nerabeak erabiltzen dituztelarik. Inguru honetako etxabeetan ez da komertzio askorik, baina, badago ferreteria bat eta baita haurren gauzak saltzen dituen beste komertzio bat ere. Jende helduaren mugimenduari dagokionez, beheko gunean bezala, bide gorrian hara eta hona dabilen jende ugari ikusten da. Gainera, beraien etxeetara sartu irtenean dagoen jendea ere behatu daiteke, batzuetan erosketekin mugitzen direlarik. Komertzioei dagokienean, ez da etengabeko mugimendua nabari, baina, jendea ibiltzen da.

Honetaz gain, Santakurtz kaleko etxebizitzak bukatzeaz bat, errepidearen alde berean, Aretxabaletako industrialde garrantzitsuena hasten da, hau da, **Basabe poligonoa**. Lehenengo eraikina Azbe enpresa zenaren fabrika da (duela urte dezente ez da jardun ekonomikorik bertan eta beraz, utzita dagoen eraikina da). Hala ere, Santakurtz kalea eta Azbe fabrikaren artean, trafikoa etengabea da. Biribilgune antzeko bat dago eta bertan biltzen dira Gasteiz eta Arrasatetik datozen saihebidetako sarrerak, Urkulu eta inguruko baserrietara nahiz saihebidera irteteko bideak, industrialdearako sarrera eta irteera, eta azkenik, herriko trafikoa bereganatzen duen Santakurtz kalea.

Azbe enpresaren aurrean, autobus geltokiak daude, bai Gasteizko eta baita Donostiako norantzan ere. Honetaz gain, finkatu dugun erdiko gunearen beste aldeko muga, Arizmendi Ikastolako Basabeazpi gunea kokatzen da, haur eskola, beraiek erabiltzen duten plaza txiki batekin. Hemen ere, erabiltzaileen sartu-irtenarekin, goizaldeko sarrera orduetan eta eguerdiko eta arratsaldeko irteera orduetan mugimendua ikusten da. Hemen ere eguerdiko sartu-irtenean gehienak aitona-amonak direla ikusi ahal izan da behaketetan, eta, arratsaldetan berriz, gurasoak.

Ezin da ahaztu gune guztian zehar beheko gunetik jarraiki datorren bide gorria igarotzen dela. Lehen aipatu bezala, berebiziko garrantzia hartzen du trafikoak gune honetan. Bidegorrian izan ezik, beste eremu guztietan, oinezkoa bigarren plano batean geratzen den gunea da. Trafiko industrialde etengabea da, eta autobus eta autoentzat ere bide nagusia izan ohi da, horrek suposatzen duen guztiarekin.

Azkenik, aipatu beharra dago herriko jaietan gune honek garrantzia berezia izaten duela. Bertan Aretxabaletako txosna gunea ipintzen da eta egun guztietan zehar etengabeko ekintza egitaraua egon ohi da, profil ezberdinetako herritarren elkargune

izaten delarik. Berdina gertatzen da bolatokiarekin, ospakizunen bat egoten den bakoitzean txapelketa egoten baita, herritar asko bertan biltzen direlarik.

- **Bigarren azpi gunea**

Bigarren azpi gunetzat, erdiko gunea hartzea erabaki da, Errekabarreneko etxe lerrotik Santakurtz errepideraino doan tartea, hain zuzen ere.

Herriko plaza ulertu da azpi-gune honetako puntu esanguratsuenetako bezala. Bertan, Kurtzebarri BHI institutua eta herriko **Arkupe Kultur etxea**, komertzioak, tabernak, botika eta ile-apaindegia ere badaude eta honek guztiak noski, bizitasun handia ematen dio. Honen erabilera eta beraz, hartzen duen itxura, desberdina izan ohi da eguneko momentuaren arabera.

Goizean goiz, eskolara doazen ikasle eta irakasleek hartzen dute plaza: ikasle asko eta asko ordua baino lehenago biltzen dira plazan bai lagunekin elkartzeko, bai hizketarako, bai jolaserako eta abarrerako. Talde txikietan bertaratzen direla ikusi da, eta adinean aurrera joan ahala bereizketa gero eta nabariagoa da neska eta mutilen artean.

Ordu horretatik aurrera, plaza lasaitu egiten da hamarrak inguru arte. Orduantxe hasten da berriz ere tabernara, liburutegira edo plazan besterik gabe egotera doan jendearen mugimendua. Ordu berean gainera, eskolako gazteek lehen atsedendia izaten dute.

Eguerdi inguruan, mugimendua areagotu egiten da, izan ere, jendea plazara bertaratzen da izan eskolako irteerara, izan bertako tabernetan zerbait hartzera, gainera DBH-koen bigarren atsedendiarekin elkartzeko dira (hauek talde handietan irteten dira, bai solasean edo jolasean aritzera, baita jateko zerbait erostera ere, kasu hauetan Durana kalera batik bat) . Berdina gertatzen da eguna aurrera joan ahala, bazkalostean, LH-koak berriz ere eskolara itzultzeko eta DBH-koak eskola eguna amaitzeko orduan.

Arratsaldean haurrak eskolatik irteten direnean hasten da plaza betetzen. Orduantxe hasten da mugimendua, seme-alabek jolas egin bitartean, haien kargu dauden gurasoak (gehienetan amak) plazan zerbait hartzera esertzen direnean. Horrez gain, plazan biltzen diren gazte talde batzuk ere badaude, eta antzeko orduan izaten denez, guztiak elkartzeko dira hantxe.

Asteburuetan, eguerdi eta arratsalde zein ilunkaran egoten da jende gehien, haurrak jolasen eta jende heldua tabernetan.

Aipatzekoa da Arkupe Kultur etxea plazan bertan dagoela eta, ekintza kulturaletara (ikuskizunak, zinema, erakusketak ...) bertaratzen den jendea ere ikusten dela, adin

eta profil desberdinetako jendea gainera. Honetaz gain, musika eskolara zein bestelako tailerretara ere gerturatzeko da jendea kultur etxera, gehienak gaztetxoak kasu honetan.

Durana kalea berriz, herriaren alde-zaharra dela esan daiteke. Eraikinak ere ordukoak dira, baxuak eta harrizkoak gehienak. Oinezkoen kale honetan saltoki asko aurkituko ditugu: bai arropa dendak, okindegia, tabernak, harategia, kioskoa eta abar. Kale honen jarraipena Mitarte Kalea da eta hau ere arratsaldean, oinezkoendako kalea da. Inguru honetan, bi plaza edo **espazio ireki** daude, biak etxe artean baina erabilpen librekoak. Okindegia, harategia, arrandegia, tabernak, supermerkatua eta beste saltoki batzuk ere aurkituko ditugu kale honetan.

Durana eta Mitarte kaleetan, goizetan, jende gehiena erosketak egiten ikusten da. Trafiko handiko gunea da ordu horietan, karga deskargarako trafikoari irekita dagoen momentu bakarrean. Erosketak egiten ari den jendeari erreparatuz, gehiengo nagusia emakumeak direla ikusten da nabarmen. Gainera, gehienak helduak edota adinekoak direla sumatzen da, hauetariko asko beraien bilobak zainduz erosketak egiten adibidez.

Arratsaldeetan, bidea trafikoari moztearekin bat, kalearen egoera aldatu egiten da. Tabernek terrazak ateratzen dituzte eta jende andana ikusten da bertan. Honetaz gain, haurrak zein gazteak ikus daitezke bai jolasean, baita, besterik gabe, pasadan ere.

Asteburuetan ere Durana kalearen "argazkia" desberdina da. Larunbat goizetan trafikoa egoten da baina gainontzeko momentuetan oinezkoentzako bakarrik da. Hori dela eta, jende gehiena bertan batzen da, taberna giroan, batez ere. Kalea autoei itxita egotean, haurren presentzia ere areagotu egiten da eta, lasai aritzen direla jolasean ikusten da.

Elizatik hasi eta ibai ertzetik abiatzen den **Errekabarren Kalean** ere badira herritarrentzako erabilgarri diren zerbitzuak. Lehenik eta behin herriko Osasun Zentroa aurkituko dugu, gaur egun erretiratuen elkarte bezala erabiltzen den eraikinaren alboan. Aurrera segituta, fruta-dendak edota arropa dendak ere aurkituko ditugu hemen. Astelehenero azoka egiten den plaza ere kale honetan aurkitzen da, Gernika plaza hain justu ere. Alboan, Andramari auzuneko etxe multzoak aurkitzen dira.

Astean zehar, eta gehienbat goizetan, jende ugari hartzen duen kalea da hau. Anbulatorioa bertan izanda, goizean goizetik ikusten da jendearen mugimendua, adin eta profil desberdinetako jendearena gainera. Horretaz gain, esan daiteke astelehenetan azokak eta asteko beste egunetan bertako jaki dendek inguru honi bizitasuna ematen diotela esan daiteke, jende askoren mugimendua dakartela.

Basotxon, erretiratuen elkartearen, adineko jende ugari biltzen da. Astelehenetik ostiralera zein asteburuetan, goizeko azken orduetan eta arratsalde osoan zehar,

jendez lepo egoten da, taberna batez ere. Bertan elkartzen dira herriko adinekoak eta karta-jokoan, solasean eta abarrean ikusten dira gehienak.

Kalean orokorrean bizitasuna dagoen arren, badago Errekabarreneko etxe-lerro eta errekaeren artean nahiko diskretua den eremu bat. Pasealekua eta esertzeko bankuak aurki daitezke bertan eta inguru honetako mugimendua, kalekoa bertakoa ez bezala, nagusiki gazteena dela esan daiteke, gehienak mutilak direlarik. Inoren begiradatik at egoteko aukera eskaintzen dietenez, gustura baliatzen dituzte espazio hauek.

Mitarte eta Durana kaleen atzealdean, beste kaleka bat ere zabaltzen da, plaza txiki bat (Ilargi plaza) eta berdegune bat dituelarik alde banatara. Aurreraxeago, asfaltozko futbol zelai txiki bat ere badago bi kaleen artean, Gernika plazaren atzealdean, Arlutz-eko kantxa bezala ezagutzen dena.

Ilargi plaza, aurretik aipatutako oinezkoentzako kaleetatik gertu egonik, mugimendu handiko gunea da. Taberna bat eta komertzioaren bat badira bertan eta egunaren amaiera partean izaten du bizitasun gehien, haurrak eskola amaitu, gurasoak tabernan zerbait hartzera eseri eta aisialdirako ordua denean, edo eta asteburuetan.

Plaza honen alboan Gernika plaza aurki dezakegu. Goian aipatutako tabernak bertan terrazatxoa du. Haur parke dotorea dago bertan eta baita, Algara Ludoteka ere. Hori guztia dela eta, Ilargi plazarekin gertatzen den bezala, arratsalde partean mugimendu handiko lekua izaten da. Algara Ludoteka atzealdean, Arlutzeko kantxa aurkitzen da. Bertan, gaztetxoak eta nerabeak egon ohi dira, baloiarekin jolasean. Aipatzekoa da, hemen ere arratsalde zein asteburuetan egoten dela jende mugimendurik nabarmenena, gehienak ia beti mutikoak izanik.

· **Hirugarren azpi gunea**

Azpi-gune honen muga bezala Deba ibaiaren bidea hartu dugu. Gune hau erdiko guneko eremurik lasaiena da. Ibaiaren alboan bidegorria eraiki berri da eta bertan jendea ikusten da paseatzen, baina hala ere, gaztetxoen mugimendua nabarmena da. Bidegorriko bankuetan edo bertatik goiko etxebizitzetara joateko eskaileretan gazte talde handitxoak ikusten dira, bai aste-barruan baita asteburuetan ere, errekaeren bestaldean (Errekabarren atzealdean).

Bidegorriaren beste aldean etxe ilara berri eta luzea dago. Etxebizitza hauetan, berriak diren heinean, jende gazte asko bizi da bertan, haur txikiak ere asko direlarik. Kale honetan ez dago mugimendu handirik baina eguneko ordu jakin batzuetan, goiz, eguerdi eta iluntzetan, jendearen joan-etorria nabarmena da.

Hala ere, orokorrean eta inguru honen bizitasun sozialari dagokionez, etxe-ilara bat bakarrik izanik, ez da erdiko guneko beste inguruetan ematen denaren bestekoa.

GOIKO GUNEA

Mitarte kalea amaitu eta **Araba ibilbidea** hasten den puntuan hasiko da Goiko gunea ere. Hortik hasi eta , Eskoriatza aldera, herria amaitzen den arteko eremua hartuko dugu Goiko gune bezala. Gune hau ere bi zatitan banatu da: batetik, Belorrietako etxebizitzaren amaierara arte, hau da, Basabe poligonoaren zati bat, Iralabarri, Belorrietako etxeak eta Txarapeako goi aldeko azken etxebizitza eraikinak; eta bestetik, herrian “Portasol” bezala ezagutzen den ingurua, herriko kiroldegia, futbol-zelaia, Araba ibilbidearen hasiera eta Loramendi kalea barne hartzen dituena.

Bi zatitan banatze hau, guneen bizitasunaren eta ematen zaien erabileraren arabera egin da.

• Beheko azpi gunea

Gune honetan, bailarako saihebidetaren alboan, Basabe poligonoaren jarraipena dago. Aurretik aipatu bezala, herrian nahastu egiten dira inguru batzuetan gune urbanoa eta industria guneak, eta kasu honetan horrela gertatzen da. Bertan, fabriketara doazen pertsonen joan-etorria ematen da eta baita kamioi zein bestelako zamalanetarako ibilgailuen trafikoa.

Bidegorria Basabe poligonoarekiko paralelo doa herriaren amaiera arte, eta modu batean, horrexek mugatzen ditu bizitza eremua eta eremu industrialak. Bidegorri horrek, lehen aipatu bezala, bailarako herriak lotzen ditu (Almen eskolarako bidea ere bada) eta jendearen joan-etorria etengabea da egunean zehar. Almenekoen sarrera-irteera orduan (goiz, eguerdi eta arratsaldeetan), bidegorria behatzen jarrita ikasleen joan-etorria ikusten da. Minutu gutxiko kontua da eta gainera, patinetean, bizikletan edo kotxeetan dabilenez, azkar irteten dira. Orokorrean, taldeetan bueltatzen direla esan daiteke, izan kotxetan izan bestela. Hala ere, adinean gora doazen neurrian, neskak eta mutilak gero eta gehiago bereizten dira, talde txikiagotan ibiltzen direlarik.

Aipatzekoa da Basabe poligonoaren eskuinaldetik Urkulu urtegirako oinezkoen bidegorria dagoela eta hau ere herritarren paseorako ohiko ibilbidea dela. Eguneko ordu batzuetan, esaterako, goizean goiz, eguerdian eta arratsaldeko lehen orduetan, jendearen presentzia nabarmenagoa da. Jende heldua edota adinekoa da batik bat, bakarrik doazen gizonezkoak edo talde txikietan ikusten diren emakumezkoak.

Basabe poligonoaren parean, **Iralabarriko etxebizitzak** daude. Inguru honetan, komertzio askorik ez dagoen arren, etxebizitzaren erdian gelditzen den “plazatxoan” pare bat taberna eta haurrentzako jolas-parkea zein eremu librekoa daude. Aste zehar, goizetan pertsona gutxi batzuk (erosketak egitetik datozenak batez ere) ikusten diren

arren, arratsaldeetan zein asteburuetan, giroa guztiz aldatzen da. Tabernetako terrazetan helduak biltzen dira hauen haurrak jolas-parkean dabiltzan bitartean.

Errepideak banatzen ditu Belorrietako eta Iralabarriko auzuneak, Gasteiztik edo Eskoriatzatik datorren errepideak, hain zuzen ere. Araba etorbidea izenarekin ezagutzen den errepidean, trafikoa handia ez den arren, etengabea izan ohi da.

Belorrietako auzuneak, bi “plazatxotan” biltzen ditu etxeak eta hauen etxabeetan, taberna bat, botika, Berbetan ingles akademia, Pausoka hartzaindegia, fisioterapia zerbitzuak eta abar daude. “Plazatxoetan” ez dago zibururik, hala ere, gaztetxoenen bilgune izaten dira, arratsalde zein asteburuetan. Etxebizitza hauen inguruan, joan etorrian dabilen jendea aurkitzen da gehienetan, nahiz eta taberna inguruan aisialdi orduetan ere jende dexente biltzen den .

Erreka zeharkatzearekin bat, aurrez, bidegorria aurkitzen da, baita Txarapeako etxebizitza lerroaren goialdea ere. Honetaz gain, Txarapeako etxebizitzetara igotzeko eskailerak dauden lekuan, jolas parke txiki bat ere badago. Erdiko gunean, aurrez azaldutako egoera bera errepikatzen da, baina, aipatzekoa da Txarapeako etxebizitza lerroa bukatzearekin bat, eraikitzeko bidean dauden etxebizitza batzuk aurkitzen direla. Noizbehinka, gazteak ibili ohi dira abandonatuta dauden eraikin horietan, aterpe bila ziurrenik.

- **Goiko azpi-gunea**

Belorrietako etxebizitzak bukatzearekin bat jarri da bigarren azpi-gune honen muga. **Araba ibilbideak** ere badu jarraipena gune honetan, eta aurrekoan bidegorriak egiten zuen bereizketa lana Araba etorbideak egiten duela esan daiteke: eremu industrialak eta eremu urbanoak banatzen ditu.

Eremu industrialean etxebizitza batzuk badauden arren, fabrikak eta lantokiak dira nagusi. Landa-auzoetarako errepide batzuk ere bertatik abiatzen dira eta beraz, trafikoaren mugimendua da nagusia eremu honetan, nahiz eta langileen joan-etorria ikusten den.

Araba etorbidea Loramendi kaleak gurutzatzen duen puntu berean, etxebizitza eraikinak hasten dira berriz ibilbidearen bi aldetara. Berriz ere gune urbanora itzultzen dela esan daiteke, tabernak eta etxebizitzek sortzen duten jende mugimendua dela eta. **Loramendi kalean** berriz, etxebizitza lerroak aurkitzen ditugu, hauen artean, zenbait gune ireki sortzen direlarik. Etxe hauen azpialdean, tabernak, okindegia eta bestelako komertzioak aurki daitezke.

Bi kale hauen artean, Gorbeia eta Aralar kaleak daude. Etxebizitza ugari dago bertan, baita tabernak, supermerkatua, ile-apaindegiak eta estankoa zein prentsa ere. Honetaz

gain, plaza ireki bat ere badago, **Gipuzkoa plaza**, haurrentzako jolas-parkearekin eta taberna batekin.

Inguru honetan guztian, hots, “Portasol” auzunean, bizitasun soziala handia dela hauteman da. Bizimodua bertan egitea erraza zaie bizilagunei eta aurretik finkatuta dagoen auzo-sentimenduari ere gogor eusten zaio oraindik. Eguneroko beharrianak asetzeko adinako baliabide eta zerbitzu dituzte bertan, eta horrek areagotu egiten du bertan bizimodu ia guztia egitearen ohitura. Auzuneak duen bizitasuna dela eta, komunitarioagoa da bizitza inguru honetan herriko erdigunean baino. Jendea bizilagunekin biltzen da eta elkarrekintza harremanak nabarmenagoak dira herriko beste edozein eremutan baino.

Aipatutako guztiaz gain, badira herri guztiarentzako klabeak diren gunek ere, **Ibarra kiroldegia eta futbol zelaia** hain zuzen ere. Hauen inguruan, Markoleko etxebizitzak, Aretxabaletako Lanbide Eskola (ALE) , KZgunea eta taberna bat daude. Eremu honetan, eskola ordu puntaletan jendearen mugimendua nabarmena da.

Bestalde, kiroldegian dagoen sartu irteneko mugimendua etengabea da. Orduaren arabera aldakorra den arren, adin eta profil ezberdinetako jende asko bertaratzen da kirol desberdinak praktikatzera. Honen aurrealdean, gunek berde ireki handi bat dago, zelai gunek bat. Gune berdea bera ez dago aprobetxatua (txakurrak ibili ohi dira) , baina berau inguratzen duen paseo bat dago bertan, bankuekin.

Futbol zelaian, aste zehar UDA zein Arizmendi taldeen neska-mutilak aritzen dira entrenatzen eta mugimendu handiko gunek da. Izan ere, jokalariek gain, entrenatzaile zein gurasoak bertaratzen dira, eta kiroldegiaren kasuan bezala, bertako tabernan ere mugimendua eragiten dute zerbitzu hauek. Gainera, asteburuetan, UDako taldeen partiduak daudenean, jende ugari biltzen da bertan, taldeak herrian zaleak badituenaren seinale. Futbol zelaian bertan taberna bat dauka elkarteak eta honen inguruan goiz zein arratsalde osoak ematen ditu jendeak, adin, genero eta profil desberdinetako jendeak gainera, partiduak ikusi bitartean. Nahiz eta jokalaria gehienak mutilak izan, aipagarria da ikusleen artean ia berdina dela gizon zein emakumeen presentzia.

Azpiarratu beharrekoa da “Portasol” auzoan, herriko beste auzo batzuetan ez bezala, auzoko jaien ospakizuna mantentzen dela oraindik. San Lorentzo jaiak uztailean ospatzen dira eta gaur egun antolaketan merkataria eta tabernaria aritzen dira batik bat egitarau aberatsa osatuz adin eta gustu ezberdin askotarako aukerekin. Hori dela eta, gainontzeko gunetan bizi diren herritarrak ere bertaratzen dira ospakizunak gauzatzen diren asteburuan, bertan jende dezente batzen delarik.

Beraz, laburbilduz, beheko eta goiko gunea dira, ikusi bezala, erdigunetik at gelditzen diren bi auzuneak. Hala ere, ez dute batak bestearekin ia zerikusirik: beheko gunea etxebizitza auzoa dela esan daiteke, mugimendu gutxikoa; eta goiko gunea berriz, auzo bizi-bizia, bertatik asko mugitu gabe bizimodua egiteko aukera ematen duena, eta beheko gunean ez bezala, auzo-sentimendu gehiagoko gunea.

Amaitzeko, garrantzitsua da aipatutako guztia genero perspektiba batetik lantzea. Hau horrela izanik, gure gizarteko alor eta espazio guztietan gertatzen den bezala, esan daiteke Aretxabaletako herrian ere genero ezberdintasunak nabariak direla zenbait une eta lekutan. Esaterako, goizaldean, kalean erosketak egiten ikusten den jende gehiena emakumezkoa da, arratsalde eta eguerdian, eskolako irteeran gertatu ohi den bezala. Aldiz, aisialdi eremuei begiratuta, kiroldegia salbuespen, gehiago dira gizonezkoak, emakumezkoak baino. Asteburuetan gehiago parekatzen da bi generoen presentzia, baina, astean zehar, gizonezkoak nagusitzen dira, gehien bat, taberna eremuetan.

Gazteei dagokienean, berdin gertatzen da. Mutikoek neskek baino presentzia handiagoa dute kalean, aisialdi joerak direla-eta. Hau da, mutilen aisialdi jarduerak, futbolak adibide, presentzia handiagoa dute kalean (Arlutz, Iturrigorri, Murubide, Ibarra...), neskenak baino. Hala ere, neska koadrilak ikusten dira kaleetan, baina, irudikatzen duten jarrera mutilena baino pasiboagoa izan ohi da.

6- IKERKETAREN ANALISIA

Ikerketaren analisiaren atalean elkarrizketa guztietatik ateratako informazioa era ordenatu batean ageri da. Lehenengo behin behineko analisi bat gauzatu da elkarrizketetan jasotako informazioarekin, baina, ondoren, talde eztabaiden bidez egin den analisi horren balorazio eta honi egin zaizkion ekarpenak txertatu eta hurrengo lerroetan aurkitzen den behin betiko analisia lortu da.

Lehenago aipatu bezala, informazioa ateratzeko hainbat pertsonarekin batu izan gara: alde batetik, gazteekin elkarreraginean dauden baliabide ezberdinekin (hezkuntza formala eta ez formala) eta bestalde, gazteekin beraiekin, ahalik eta era anitzenean profil ezberdinetako gazteak hautatuz.

Hala ere, beste zehaztasun batzuk ere lortu dira ikerketan zehar, nerabeen beharrei dagokienez. Nerabeen beharrak oso zabalak eta anitzak izan daitezkeela uste izan dugu eta era ezplizitu batean galdetzeaz gain, ezkutuan geratu daitezkeen hainbat beharretara ere iritsi nahi izan dugu, gazteen beharrak era holistiko batean hartuz.

Era ezkutatuan edo inplizituan geratzen den informazioaren inguruko analisia gauzatzeko, analisirako eskema¹³ bat eraiki da. Bertan, arlo ezberdinen inguruan jaso nahi den informazioa zehazten da eta elkarrizketetarako galderak ere berau izan dute oinarri.

Hautatu diren arloak hauek izan dira: pertsonala, familiarra, soziala eta interpersonala, aisialdi eta parte-hartzekoa eta hezkuntzako. Hurrengo lerroetan arlo hauek hautatzearen zergatia azaldu da, baina 7. eranskinean zehatzago agertzen da hauen inguruko informazioa, atal bakoitzean zehazki zeri so egin zaion, hain zuzen ere.

Ez da kasualitatea bost atal hauek hautatu izana, izan ere, bost atal hauek ikertzeak pertsona bere osotasunean eta gizartean dituen sistema ezberdinekin duen hartu-emanera era integral batean ezagutzea ahalbidetzen du. Honetaz gain, aipatzekoa da ikertutako alor ezberdin hauek beraien artean duten eragina. Maiz, bata aldatzeak bestean ere eragitea suposatzen du, esaterako, egin daitekeen hobekuntza edo ahalegin batek esparru baten baino gehiagotan eragin positibo bat ekarri dezakeelarik. Ikertutako atal bakoitzak, badu bere garrantzia:

¹³ Analisisirako eskema 7. eranskinean aurkitzen da.

Alor pertsonala: oso garrantzitsua da pertsonon inguruan berba egiten dugunean arlo honi buruz hitz egitea. Are garrantzitsuagoa iruditzen zaigu adin jakin batzuetan, esaterako, nerabezaroan, izanaren edo gure pertsonalitatearen eta barruaren eraikuntza garaia delako, alor pertsonaleko azpi atal ezberdin guztiak pil-pilean dauden bizitzako unea izanik. Hauetan eragiteko eta garapen prozesu egoki baterako une egokia dela iruditzen zaigu, eta behar duen garrantzia eman nahi izan zaio diagnosi honetan.

Alor familiarra: Familia ere sistema garrantzitsua izaten da pertsonaren bizitzako une guztietan. Hala ere, bizitzako lehen urteetan, berebiziko garrantzia duela azpimarratu nahi dugu. Hau horrela izanik eta nerabezaroan ere hala dela ikusirik, garrantzitsua iruditu zaigu hemen ematen diren gorabeherak ere ezagutzea. Nahiz eta etapa honetan (nerabezaroan) familiak bere presentzia zertxobait galtzen duen, guztiaren azpian eta plazaratzen ez duten arren, uste dena baino garrantzi handiagoa du. Garrantzi horren pertzepzioa eta hori azalertzeko duen era aldatzen joaten da, eta prozesu horretan zer gertatzen den ezagutu nahi izan dugu.

Arlo interpertsonal edo soziala: pertsona bat gizartean bizi den heinean, bere harremanak eta testuingurua aztertzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Ahalik eta era globalenean aztertu nahi izan dira hauek, egon daitezkeen gabeziak identifikatuz, uste baitugu adin tarte hau dela honetan eragiteko eta bere fruituak emateko sasoirik egokiena.

Hezkuntza alorra: Hezkuntza arloan ere zertxobait sartu gura izan dugu. Izan ere, gazteak egunean ordu pila bat sartzen ditu eskolan eta horri eskaini behar dion dedikazioa da, egunean lo egiteaz gain, ordu gehien hartzen diona. Gainera, hezkuntza gizarte baten balio eta heziketaren oinarri oinarria izanik, garrantzitsua iruditu zaigu hau aztertu ahal izatea.

Aisialdi eta parte-hartze arloa: Aisialdia eta parte hartze arloa hautatzearen arrazoi nagusia izan da hauek pertsona baten ongizatean daukaten garrantzia. Aisialdia norberak hautatzen duela kontuan izanik, honen azterketak datu interesgarri asko eman ditzake. Parte hartzea, berriz, gure testuinguruan dagoen inplikazioa eta testuinguruarekiko dagoen harremanaren inguruko informazioa eskaintzen du.

Hauek guztiak, lehen aipatu bezala, elkarreraginean dauden alorrak dira, beraz, bata bestearekin hartu-emanen ulertu behar dira, eta hori kontuan hartuta saiatu gara

Nerabeen Diagnostikoa

elkarrizketak egiten, analisia gauzaten, baita txostenaren amaieran datozen proposamenak egiten ere.

Goian aipatu bezala, era ezplizituan edo zuzenekoan ere galdetu zaie zeintzuk diren beraien beharrak Aretxabaletan, elkarrizketa bakoitzaren bukaeran galdera hau eginik: “Herriak eman edo eskaintzen duenaren inguruan, ze behar edo gabezi ikusten dituzue?”.

Hainbat eta hainbat izan dira erantzunak, eta sakonago 9.eranskinean azaldu ditugu, askotan errepikatu diren erantzunetan indarra jarriz, hau da, nerabe askoren behar partekatu direnak soilik hautatuz eta guztiak multzokatzen saiatuz.

Bestalde, hurrengo lerroetan ageri dira elkarrizketen bitartez hauteman ditugun behar inplizituak, 8.eranskinean era eskematikoan daude, eta hauek hautemateko eta arrazoitzeko erabilitako oinarri teorikoak:

8.1- ARLO PERTSONALA

Jakina da 12 eta 18 urte bitarteko gazteen egitekoa **nerabe izatea** dela. Joseba Azkarragarraren (HUHEZI-ko irakaslea) hitzei erreferentzia eginez, bizitzako esperientzia inportantea eta aberasgarria da nerabezaroa: pertsonaren izanaren eraikuntzako funtsezko uneetako bat da, bizitzako lehen urteekin batera. Prozesu horretan, aldaketak izaten dira nerabeengan gizakiaren hiru dimentsioetan: biologikoa, psikologikoa eta soziala.

Belaunaldien arteko talkak ematen dira garai horretan: sarritan gurasoentzat ulertzeko zailak direnak, eta nerabeentzat mingarriak.

Ikuspegi materialetik, nerabeek denetarik daukatela esaten da; ikuspegi psikosozialetik, aldiz, hauskorragoak dira; dena barruan daramate sarri nerabeek: psikea, emozioak, arazoak, segurtasunik eza, zalantzak, kontraesanak ...

“Nerabeek ez dakite nor diren, ezta zer nahi duten ere; aldakor sentitzen dira beraien helburuetan. Horrela, edozein kontsignen aurrean matxinatu egiten dira eta aurkako jarrera horien bidez, `ni ez naiz zu´ aldarrikatzen dute etengabe; beraien eta ingurukoaren mugak ezagutu beharra dute.”

Hala ere, nahiz eta autoritate mota guztien aurka jarri, eredu baten beharra dute garai horretan, erreferenteena, alegia: beraien zalantza egoerak lasaitzeko eta orientazio gisa balio izango dien ziurtasuna emango dien norbaitena.

Horretarako, ezinbestekoa da, gure ikuspuntutik, eraikuntza horretan nerabeari sortzen zaizkion zailtasunak normaltasunez hartzea bere ingurunean, eta, behar esplizitu zein inplizitu horien aurrean bizitzarako ezinbesteko izango zaizkien hainbat gaitasun lantzea. Horrela, arlo pertsonaleko behar edo gabezi bezala identifikatu ditugu:

- Autonomia sustatzea.
- Adimen emozionalaren lanketa.
- Autoestimu positiboa sustatzeko lana.

Autonomiaren kontzeptua argitzetik hasiko gara, hiztegiko definiziotik:

“Zerbaitek edo norbaitek, alor batean edo oro har, bere kabuz aritzeko duen askatasuna edo askatsun-maila”.

Baina, horrez gain, banakoek (pertsonek) beren egintzen ardura osotara beren gain hartzeko gaitasuna ere bada autonomia.

Gaztearen autonomia oso onuragarria da; bai bere buruarekin duen harremanerako, eta, baita, inguratzen duen mundu eta pertsonetikiko harremanetarako ere. Askatasunez ekiteko aukerak, oinarrizko segurtasuna garatzen lagunduko dio, eta, horrela, behar bezala gizarteratu ahalko da nerabea helduen mundura.

Autonomia haur edo gaztearen eskubide bat da eta hori garatzeko baldintzak ezartzen direla bermatu behar da. Alor denetan bermatzea hiritarren esku ez badago ere, udaletik, eskolatik edo bestelako gizarte ekimenetatik baldintza horiek ezartzea bermatu daiteke, edo hori sustatu, gutxienez.

Adimen emozionala trebetasun multzo bat da. Trebetasun horiek, emozioetatik datorren informazioa prozesatzen dute eta egokitze pertsonala eta soziala sustatzen dituzte. Horien artean, honako hauek azaldu daitezke:

- Emozioak egoki hautematea eta adieraztea.
- Emozioak eta sentimenduak ulertzea.

Nerabeen Diagnostikoa

- Emozioak erregulatzea.
- Emozioak prozesuak errazteko erabiltzea.

Gazteekin eta nerabeekin lan egiten dutenek emozioei buruzko informazio baliotsua dute egunerokoan, eta, horri esker, hobeto uler dezakete zein den nerabeen errealitatea, zeintzuk motibazioak, zeintzuk espektatibak eta zeintzuk jokatzeko moduak.

Bizitzaren lehen etapetatik joaten da hobetzen adimen emozionala. Gero eta gehiago ezagutzen direlako emozioak eta gero eta hobeto jakiten delako horiek nola kudeatu. Baina, nerabearora iristean, trebetasun horiek gainbeheran hasten dira; neurri handi batean etapa horretan ematen diren aldakuntzak eraginda.

Horregatik, funtsezkoa da, nerabearoko bizipen emozionalak identifikatzen eta kudeatzen ikastea. Beraz, eta gazteen garapenaren mesedetan, oso garrantzitsua da beraien emozioekin konektatzea, horiek ulertzea eta gai izatea gazteei laguntzeko, emozioei modu egokian erantzuten.

Autoestimua, hitz gutxitan azalduta, norberak bere balioaren gainean duen ustea da. Horren oinarri dira, bizitzan zehar, norbere buruaren inguruan bildu diren pentsamendu, sentimendu, sentsazio nahiz esperientziak, familiarik, eskolatik, edota gizartetik jasoak.

Autoestimua konplexutasuna auto-kontzeptu zehatzagoek osatzen dute, hala nola: fisikoa, soziala, emozionala, akademikoa... Pertsona esanguratsuekin (erreferenteekin) izaniko gizarte esperientzietatik abiatuta garatzen da eta norberaren eta gainontzekoen informazioa interpretatzeko, ulertzeko eta antolatzeo erreferentzia markoa da.

Horrela, haurtzarotik hori lantzen hasita, bai nerabearoan eta baita heldutasunean ere autoestima positiboa izatea funtsezkoa da norbanakoaren funtzionamendu egokirako, segurtasun eta osotasun sentimendua ematen baitio pertsonari.

Diagnostiko honetan, autoestimua lanketak nerabeen hezkuntzan bere lekua izan behar duela iritzita, hezkuntza alorrean edota familietan jarri dugu ikusmira eta gabeziatzat identifikatu da.

Familiei dagokienez ezin dugu baieztapenik egin, murrizta izan baita elkarrizketatuen lagina; baina, eskolei dagokienez, elkarrizketetan jasotakoaren arabera, autoestimua garrantzia aintzat hartzen bada ere, sakoneko lanketarik ez dagoela ageri da. Nerabeak auto-kontzeptu positiboaren gabezia moduren batean azalera duenean ekiten zaio lanari, baina ez da apenas lantzen guztiok, pertsona bezala, autoestima positiboa izatea.

Laburbilduz, eremu pertsonalari dagokionean hiru behar edo gabezi nagusi identifikatu ditugu: autonomia garatzea, adimen emozionala lantzea eta autoestimua lantzea. Ezaugarri edo garapen pertsonalei lotuta badaude ere, elkarrekintzan dauden hainbat sistema edo instituziotatik (eskolatik adibidez) egin daitezkeen lana eta horien garrantzia ikusita, behar horien inguruko orientabide edo proposamenak aurkeztuko dira diagnostikoaren amaieran.

8.2- ARLO FAMILIARRA

Gaztea bere osotasunean aztertzean, ezinbestekoa da familia esparruari begiratzea horrek nerabearen garapenean duen garrantzia dela eta. Familiak betidanik bete izan dute gizakion oinarriko babes-esparrua deritzona.

Ezinbestekoa den babes-esparru horretan nerabeak, batetik, beharrezko dituen laguntza, babesa eta maitasuna aurkitu behar ditu eta, bestetik, bere independentzia, perfekzio eta sormen beharrekiko errespetua. Horretaz gain, garrantzitsua da gurasoak malguak izatea, nerabeak izan ohi dituen aldaketetara egokitu behar baitira eta horretarako, Ane Ablanedo¹⁴ irakasleak dioskun moduan: “geu ere gazte izan gineneko bizipenaren gogorapena da nerabeen mundua ulertu nahi dugun helduok dugun tresnarik hoberenetako bat. (...) geure buruan arakatu eta barruan lozorroan bizi zaigun nerabea esnatu behar horretan datza.”

Gizakiak, jakina den bezala, ingurukoetatik ikasten du bizitzarako erabilgarri hautematen duena eta gazteak, are gehiago. Familiak balio eta kontra-balio transmisore garrantzitsuenak dira egungo gizarteko funtzionamenduan. Gazteen heziketan beraz, familiak duen eragina da nabariena, bertan ematen baitute denbora gehien; familiaren ispilu izan ohi dira. Baina, argi izan behar da, horrek ez duela gatazka egoeretan soilik eragiten; edozein egoerak, balioen transmisiok, harreman

¹⁴ Ane Ablanedo (Iruñea, 1973) bigarren hezkuntzako irakaslea da, psikoterapian eta neurosiaren prebentzioan aditua.

motak eta abarrek, positiboa ala negatiboa izan, hobea ala okerragoa izan, du eragina gazteetan (jarrera eta jokaeretan) eta horien guztien ispilu dira nerabeak.

Horrela, ezinbestekoa da, gure ikuspuntutik, gazte eta familiaren arteko harremanak duen garrantzia ikustea eta horretaz kontziente izatea. Horri dagokionez, hurrengo gabeziak identifikatu dira:

- Afektibotasuna
- Gurasoen orientazio beharra

Afektibotasuna da nerabezeroan dauden gazteen behar objektiboetako bat; asebetea izan ala ez, beharrezko den babes-funtzioa betetzen duen sentimendu eta emozio multzoa da. Adin horretan, haurtzaroarekin alderatuz, gazteek gurasoekiko distantzia bat markatzen dute, eta aurretik nerabezeroa azaltzean aipatu bezala, aurkako jarrerak hartzen dituzte “ni ez naiz zu” aldarrikatu nahiarekin.

Egoera horrek familiako kide guztiei eragiten die eta tentsio egoerak sortu ohi dira. Joseba Azkarraga HUHEZI-ko irakaslearen aburuz “(...) Guraso zein neba-arrebek pazientzia, entzuteko gaitasuna eta behatzeko gaitasun handia behar dute gaztea ulertzeko.(...) Kanpora begira era harrigarrian jokutzen du nerabeak: irabazteko helburu hutsez eztabaidatzen du, ez duen segurtasuna borroka dialektikoan bilatu nahirik bezala. (...) Autonomo izateko beharra dute eta gai batzuetan independentetzat har ditzaten behar dute. Baina, aldi berean – eta honek aztoratu egiten ditu gurasoak-sarritan ez dira erantzule agertzen beren ikasketen aurrean, gela txukuntzeko edo bere gastuez zentzuz arduratzeko. Borroka segurua da. Gurasoek aurpegira botatzen diete `zure bizitza egin eta independente izan nahi baduzu, gauza guztietarako izan beharko duzu: ikasteko eta zure bizitza hobeto antolatzeko´. Eta gazteen erantzuna lehorra eta gauza guztietarako berbera izaten da: `ez nauzue ulertzen eta horixe da nire arazo bakarra´.”

Nerabeen jarreretan ematen diren ohiko jokaerez gain, gurasoen kasuan honelako jarrerak ematen direla ikusten da Ablanedok dioen bezala: “ izan ginen eta jada ez garen ameslari eta errebeldearen ahotsaren xuxurlak eramango gaitu gure bizitza askotan mugiezinarene zutabe irmoegiak astindu eta kolokan jartzera (...) eta hori ez daramagu ongi, ez beti bederen, eta ez denok. Gaztea zerbaitek definitzen badu, poroetatik darion bizi-izerdiak definitzen du; bizitzaren zipiritin horietan noraino busti

nahi dugun edo noraino nahi dugun hori saihestu, horren aurreko gure jarrerak baldintzatzen du, neurri handi batean, sartu-irten horretatik biziberriturik, gazteturik- edo zaharturik- aterako garen.”

Azken finean, nerabezaroa negoziazio garaia da; bai gurasoek bai seme-alabek, bakoitzak bere aldetik eman behar dute zerbait.

Aurretik aipatutako hau guztia, norbanakoa gizarteko parte denetik, testuinguru sozialaren barnean ulertu behar da. Horrela, familiak izan dezakeen estruktura eta funtzioaz gain, gaztearen heziketan familia eta gizartea osagarriak dira. Azken hau, definizioz, etengabe aldatzen ari den fenomeno da, baina, gaur egun, aldaketa horiek hartu duten abiadura ez da orain artekoa bezalakoa. Horrek, familietan guraso eta gazteen artean betidanik izan diren desberdintasunak (gizartea eta bizitza ulertzeko belaunaldien arteko desberdintasunak) areagotu egin ditu, tartek handitu. Familiako kideen artean, beraz, elkar ulertzeko zailtasunak ageri dira, gero eta zailagoa baita, bai batzuen bai besteen aldetik, beraien ikuspuntuak elkarbanatzea.

Honen baitan, burututako diagnostikoan jasotakoaren arabera, adin tarte horretan dauden gazteen **gurasoek orientazio beharrak** dituztela antzeman dugu, baita horretaz ohartzera iristeko sentsibilizazio beharra ere (eskaintzen diren formazio saioak laguntza bezala ikustea adibidez). Elkarrizketa desberdinetan jasotakoarekin ikusi dugu, guraso askok gazteekin arlo desberdinetan lanketak egin nahi badituzte ere, “noraezean” sentitzen direla ikusi dugu eta horrek azpimarratu egiten du sumatutako behar hori. Azaleratu ahal izan ditugun behar zehatzen artean hauexek nabarmenduko genituzke:

- Garapen emozionalaren lanketarako ezintasunak hauteman dira. Hori gertatzea ez da harrizkeoa: batetik, adinaren ezaugarriak direla-eta, ez da erraza gazteen alor emozionalean sakontzea eta hainbat saiakera eginagatik ezer lortzen ez denean gurasoak nekatu eta frustrazioak sortzen dira, zaila baita lanketa horretarako testuinguru erosoak sortzea familiaren baitan; bestetik, gure gizartean 80.hamarkada ingurura arte tradizionalki baztertua izan den alor bat izanik, ez dira lanketa horietarako berezko gaitasunak garatu eta “noraez” horretan, emozioen lanketan formatzeko beharra ageri da.

- Gizarte ohituren kudeaketarako zailtasunak ikusi dira, hala nola: kontsumo ohituretarako, aisialdirako denbora kudeatzeko, teknologia berrien erabilerarako ...

Nerabeen Diagnostikoa

- Beraien (gurasoen) beldurrak kudeatzeko zailtasunak dituztela ikusi da, adibide nabaria izanik aipatu berri den gizarte ohituren kudeaketa. Ezagutza falta da sentimendu horien arrazoi nagusia, azken finean ez baita erraza norbera lehenengo pertsonan bizi izaten ari ez den zerbaiten inguruko informazio oso eta egokia izatea. Hori dela eta, kasu askotan, familien artean alarmismoa hedatzen da, eta gazteei ez die mesederik egiten.

- Beldur horiei eta ezagutza faltari lotuta, mugak ezartzeko zailtasunak dituzte egun gurasoek. Nekeza da maitasun edo babesaren eta askatasunaren arteko oreka lortzea; are zailagoa nerabezaroa heldutasunera bidetako prozesua izanik.

- Aurreko zailtasun horiek guztiak kontuan hartuta, sarri ematen den ondorioetako bat gainbabesa da (adibidez: erabateko debekua, larregiko babesa, seme-alabak egiten duen guztia jakiteko obsesioa ...). Gurasoen jarrera horrek gehiegizko dependentzia sortzen du nerabeengan eta, ondorioz, hainbat gaitasunen garapena oztopatu edo mugatzen dela ikusten da teorikoki, hala nola: autonomia, gaitasun sozialak, norbere buruarekiko konfiantza eta segurtasuna (autokontzeptua), norbere ekintzekiko erantzukizuna, enpatia, sormen gaitasuna, gatazken kudeaketarako gaitasuna eta abar.

Horrek guztiak horrek, nekea eta ezin egona sortarazten du familian, eta horiek partekatatu eta elkarbanatzeko, besteei entzuteko eta entzunak izateko beharra izan dezakete.

Gure ikuspuntutik, behar hori, sozialki edo era komunitarioan lantzea izango litzateke egokiena, eta ez indibidualki.

Hasiera batetik aipatu bezala, gazteak familiaren isla direla ulertuta, bata bestearengan duen eragina kontuan hartzearen beharra ikusi da. Eskolan, gizarte zerbitzuetan, osasun arloan edo beste hainbat esku hartzeetan arazo edo gatazkaren bat ageri denean familiako bi alderdiekin lan egiten bada ere, lanketak familietan gehiago sakondu beharko lukeela uste dugu.

Ikerketa guztian zehar, bai behaketetan baita elkarrizketetan ere, nabaritu den gabeziatiko bat “Aita”ren figurarena izan da. Gazteen zaintza lanak, etxeko ardurak eta abar emakumearen gain daude gaur egun ere eta beraz, nahiz eta alor horretan

lan egiten den, aldaketarako beharra dagoela esan dezakegu; osterantzean, ispilu diren gazte horiek beraien heldutasunean ere jada ezarritako rol horiek erreproduzituko baitituzte.

ARLO INTERPERTSONALA

Diagnosi hau egiterakoan, ezin da ahaztu pertsonaren dimentsio soziala. Gizarte baten bizi garen heinean, berezko gaitasun bezala daukagu sozializazioa, baina, hau landu eta garatzea beharrezkoa da. Pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera, gehiago edo gutxiago garatzen bada ere, guztiok daukagu behartzat.

Taldean bizitzeak ez du bakarrik harremanetan eragiten, izan ere, taldean bizi ahal izateko, elkar banatutako balore eta sinesmenetan oinarritzen dugu gure eraikuntza pertsonala eta baita taldekoa ere.

Gu bizi garen gizartearen dimentsioaren ondorioz, jada galdua dago norbanakoek taldearen onurarako sortutako balore eta sinesmenen multzoa. Gizartearen ezaugarriak direla eta, aurrekoen ordeztu, gizarte honen funtzionamendu egokirako interesen arabera sortu dira balore berriak, gizartea osatzen duten talde jakin batzuk gailentze aldera. Hau horrela izanik, ez da gizarte justu bat bermatzen eta horiek gabezi bezala identifikatu ditugu; ikuspegi sozialetik lan egiten dugun heinean, justizia soziala bermatuko duen gizarte bat eraiki nahian egiten baitugu lan.

Aurretik beste hainbatetan aipatu bezala, nerabeak inguratzen dituen munduaren isla dira eta beraz, gizartea hautemateko eta bertan aritzeko dituzten moduak ere ez dira isolatuak; gabezia horiek beraz, ez dira nerabezaroko propioak, gizarte osoko funtzionamenduan ikus ditzakegun gabeziak baizik.

Justizia soziala lortzeko bidean, gabezi garrantzitsu bezala identifikatu ditugu, gaur egun gogor ematen diren hainbat jokaera. Batetik, botere banaketa ematen da gazte gaztetatik, honen erakusle direlarik, besteak beste, matxismoa zein arrazakeria edo klasismoa. Bestetik, indibidualismoaren eta kontsumismoaren areagotzea eman dela esan dezakegu.

Botere harremani dagokienez, hauek desagerrarazteko lana egiten den arren, oso errotuta dauden ideologiei esker mantentzen dira eta inklusibitate ezaren adierazle ditugu.

Matxismoa oraindik ere, gizarteko esparru denetan ageri den ideologia da. Gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago direnaren ideia dauka oinarri, eta hortik abiatzen da gizarte funtzionamenduaren antolakuntza. Ematen diren ezberdintasunek agerian uzten duten bezala, gizarte antolamendu patriarkal duen gizarte batean bizi gara eta naturalizat hartzen diren eta matxistak diren jarrerak nonahi ikus daitezke oraindik, baita nerabeen artean ere; ez da adierazten duela hamarkada batzuk ematen zen portaeren bitartez, baina, era inplizituago batean bada ere, hor jarraitzen dute.

Nahiz eta ahaleginak egiten diren, etengabea da matxismoak dakartzan portaeren erreprodukzioa. Izan ere, txikitatik, neska edo mutila jaiotzearen gizartean leku bat edo beste hartzera daramatzagu. Horrek guztiak, nerabezaroan ere badu bere isla, besteak beste, taldeak eratzerako orduan, egokitu zaizkien rol eta estereotipoak erreproduzitzerako orduan, kirola praktikatzeko orduan, ikasketen hautuak egiterakoan edo beraiengandik espero dena betetzeko behar horretan.

Botere harremanetan jarraituz, **arrazakeriaren** edota klasismoaren fenomenoak ageri da. Ideologia horrek jarrera edo ikuspuntu desberdinak izan ditzake oinarri, hala nola: arrazakeria biologikoa, arraza bat biologikoki beste batzuk baino hobea denaren ideiarekin (herrian ez dugu hauteman); arrazakeria kulturala, norbere kultura besteena baino egokiagoa edo onargarriagoa denaren ideiarekin eta beraz, integrazioa besteen esku utzita gure kultura eta ideietara egokitu daitezzen exijitzea (egun hainbat jarrera baztertzailerik justifikatzeko erabilia); eta amaitzeko, arrazakeria edota klasismoaren baitan, “besteak” gurera etorri eta “gurea” dena (lana, etxebizitza, diru-laguntzak...) kenduko dizkigutenaren beldurra ikusten da gaur egun oso zabalduta.

Jarrera edota jokamolde horiek helduetan ikus ohi baditugu ere, nerabeek hortik jasotzen dituzte interpretazioak eta beraz, “besteen” gaineko irudi hori jasotzen dute egunerokoan. Horrela, modu desberdinetan baina “bestea” gutxiago denaren ideia plasmatuko dute, etorkizunean, beraien jarreretan. Honetaz gain, integrazio prozesuari begiratu, zenbait elkarrizketetan hauteman dugu gaur egun ere ez dagoela errotuta integrazioa gizarte guztiaren ardura delako ideia, uste baita besteen ardura dela soilik.

Gizarteko botere banaketa sustatzen duten bi ideologia horiek oztopatu egiten dute justizia sozialerako bidea. Hortaz, eta sarritan errepikatu bezala, gure lanaren jomuga gizarte parekide bat den heinean, horiek desagerrarazi eta balore berriak sorraraziko dituen **gizarte inklusibo** baten beharra azpimarratuko dugu, hori baita, gizarte bateko kide guztien parte hartze ekitatiboa ziurtatzen duen prozesua, izan hezkuntzan, izan ekonomikoki, izan legalki, izan politikoki, izan kulturalki eta abar. **Inklusibitate sozial** horrek aniztasunaren errespetua eta behar zehatzak dituen “bestea”ren onarpena eskatzen ditu.

Horrela, gizarte kideon honako behar hauek asetuko lituzke gabezi horren lanketak: ongizatea komunitatean, autonomia, hiritarren partaidetza, hiritarrentzako ondasun eta zerbitzuetarako sarrera eta erabilera, eta abar.

Beraz, gizarte inklusibo batek giza eskubideen bermea, duintasuna, hiritartasun aktiboa eta gizartea osatzen duten hiritarren aktibotasuna ahalbidetzeko tresnak eskainiko ditu.

Botere harremanez gain eta gizarte inklusibo horretatik at, arestian aipatu bezala, kontsumismoa eta indibidualismoa ere areagotu egin direla esan dezakegu.

Kontsumismoa gizartean orokortua dagoen joera da jadanik. Zoritxarrez, gure bizimodua merkatuaren menpe dago hein handi batean, eta gaur egun hori aldatzeko saiakerak egiten ari bagara ere, guztiok harrapatu gaituen gurpil-zorua da. Kontsumismoa da beharrezkoa denaz gainera gero eta produktu eta zerbitzu gehiagoren kontsumoa bultzatzen duen gizarte-jarrera, eta horrek gizabanakoengan duen ondorioa. Horrez gain, kontsumismoa kapitalismoaren baitako kontsumo-gizartearen ondorioa da eta publizitatea, moda eta beste mekanismo sozial zenbaitek indartzen dute. Horiek guztiek, esan bezala, eragin zuzena daukate gizarte osoan eta beraz, baita nerabeengan ere.

Joseba Azkarraga HUEZI-ko irakaslearen esanetan, nerabeak arreta berezia jaso ezean (edo hori jasota baina beste edozein arrazoirengatik), ulertuko dituen beste eragile baten arreta berezia bilatuko dute: merkatuarena. Bere aburuz, gaur egun merkatuak zuzentzen du gazteek daukaten autonomia gosea. “Kolonizatze hori gero eta goiztiarragoa eta masiboagoa da gainera. Eredu hegemoniko horiek kontsumismoari, niaren gorespenari, famari, arrakastari... lotuak daude”. Horretan helduen ardura edo erantzukizuna azpimarratzen du, bestelako eredu batzuk

Nerabeen Diagnostikoa

ikusaraztearen erantzukizuna, baina, aurretik esan bezala, horiek ere kontsumo-gizartean bizita, zaila egiten zaie horri aurre egitea.

Aurreko guztiaz gain, eta aurreko guztien bultzadaz, **indibidualismoa** ere areagotzen ari da. Gizartearen antolaketan, bikote harremanetan, familiaren eraikuntzan eta sozializazio prozesuetan, beste hainbaten artean, eman diren aldaketak gizarte erabat indibidualizatua sortzen lagundu dute. Joera horrek interes kolektiboan gainera norbanakoen interesak gailentzera eraman gaitu, interes horiek arrazoi askoren ondorio badira ere. Indibidualismo kontzeptuak bizitzako kontuetan norbanakoa erdigunean ezartzeari egiten dio erreferentzia.

Giro horretan heziak diren gazte edo nerabeak gatazka edo zailtasunak dituzte beste pertsonekin harremanak izateko, ez baitaukate besteen iritzi edo proposamenak onartzeko tolerantzia nahikorik. Azken finean, gizarteak bertako sistema ezberdinez baliatuz ikuskera edo jokaera indibidualistak sustatzen ditu komunitatearekiko desafiliazio bat sortuz eta horrela, hiritarrak batu, elkarbanatu eta antolatzea saihesten du.

Gazteekin izandako elkarrizketetan ere gai hau agertu da, eta gizartea zatikatuta eta banatuta ikustea beraien ezinegonetako bat dela adierazi dute, harremanetarako gaitasun gabeziak direla-eta, herrian zailtasunak dituzte beste talde batzuegana hurbiltzeko eta horrek aldaketarako, inizatibak aurrera eramateko, pentsamendu eta problematika ezberdinak partekatzeko edo bestelako arloak herri mailan jorratzeko mugak ezartzen dizkiela hautematen dute.

Indibidualismoa zer den jakinda, horrek herrian izan ditzakeen ondorioei begira jarri eta ondorengoak hauteman ditugu: herriarekiko, taldeekiko eta nerabeen interesekiko konpromiso urritasuna ; gaitasun kooperatibo baxua ; bizikidetzaren urria; harreman inbertsonalizatuak. Horiez gain, indibidualismoari zuzenean lotu gabe bada ere, horren garapenaren laguntzarekin beste gabezi bat identifikatu dugu herri mailan: harreman intergenerazional zein gure gertuko ingurune sozialetik haratago doazen harremanen falta. Hainbatetan nabarmendu dute gazteek beraien arteko harremanak, gehienetan, "kuadrila" barrura mugatzen direla eta nahasketa gutxi izaten dutela talde horien artean, genero edota adin desberdinetako beste gazteekin. Horrek ere herrian hainbat ondorio dakartzala jaso ahal izan dugu, hala nola: herrigintzaren urritasuna, gazteen presentzia baxua kalean eta bizitza sozial baxua.

Beste alde batetik, beste hutsune bat sumatu da nerabeengan teknologia berrien erabilera txarrari lotuta. Horrek, indibidualismoarekin zuzenean lotuta ez dagoen arren, berau sustatzen duela antzematen dugu, aurretik ere aipatu diren harreman inpersonalizatuak ondorio bezala ikusita, adibidez. Horrez gain, bizitza publiko eta pribatuaren arteko bereizketa falta aipatu da fenomeno horri lotuta, baita anonimotasunaren erabilerak sor ditzakeen gatazkak ere. Beraz, eta teknologia berrien erabilera egokiaren onurez baliatu ahal izateko, beharrezkotzat jotzen dugu horien inguruko heziketa, orain gertatzen ari den bezala, aurrerapen teknologikoek ez gaitzaten biluzik harrapatu eta menpekotasunen sarean sartu.

Esan bezala, aurreko guztiak ez dira inondik inora nerabegarora mugatzen diren gabeziak, baina, argi dago, nerabegaroa bizitza ulertzeko eta munduaren ikuskerak finkatzeko garaia izanik, garrantzitsua dela jokaera horiek hauteman eta aldaketzeko lan egitea, jokamolde horiek bizitza osorako errotu ez daitezen.

Aipatutako guztiaz gain, heldu eta nerabeen arteko **hartu emanen nolakotasunean** ere behar bat identifikatu dugu. Horrek bere erroa alor interpersonal edo sozialean badu ere, bizitzako beste alor guztietan eragiten du zeharka. Hartu eman horietan estatus edo balio mailakatzeari ikus daitekeela antzeman dugu; helduek nerabeekin harremanak eraikitzean beraien jokabide edo hitzek nerabeen bano gehiago balio dutela dirudi, nahiz eta inkontzientea den gehienetan, intentzio txarrik gabekoa. Nerabeek behar dutena guztiz alderantzizkoa da, hau da, garrantzitsua da beraiena kontuan izatea, beraien ere gai direla ohartaraztea eta kontuan hartuak direla ikustea. Maiz, saihestu egiten dituzte erantzukizun eta ardurak, baina, harremanetan eta erabakietan pisua banatu eta beraiengan ere jarriz gero, erantzukizun handiagoa izango dute; horretan ere, beste aspektu guztietan bezala, ikasi egiten baita. Nerabegaroa haurtzarotik helduarorako prozesu bezala definitzen da eta horretan ere, kanpotik eragin behar da. Erabakiak hartzean, jada haurra ez dela kontuan hartu behar da eta poliki-poliki bada ere, iritziak kontuan hartu, ardurak esleitu... behar zaizkie, heldutasunerako bidea eraikitzen laguntzeko; heldutasunari lotzen dizkiegun ezaugarrien lorpena ez da egun batetik besterakoa.

Aldi berean, kontuan hartuak direla eta gai direla ikusteak onurak eragingo dizkie parte hartzean, autoestimuan, autoerrealizazioan eta abarrean. Egoera hau, besteak beste, arauen eraikuntzan eman dela ikusi ahal izan da.

Nerabeen Diagnostikoa

Alor honetan sakondu nahian, Ane Ablanedo-ren hitzak jaso ditugu: “Geurea beste pertsona batekiko harremanean hazten eta garatzen den espeziea izanik, beste horren nolakotasunari begiratzea saihestezina da, garapen prozesuaren ondorioz sortu den produktuaren kalitatea ebaluatzerako orduan. Nerabeei dagokienez, beraz, geu gara fabrikatzaileak eta, beraz, erantzuleak, gizartearen ordezkari edo eragile garen heinean.(...) Gustatzen ez bazaigu ere, guri dagozkigun ardura eta erantzukizuna onartu behar ditugu, itzultzen diguten irudia geure haziera- eta heziketa- ereduaren ondorio baino ez denez.”

Hitz horiek kontuan hartuta antzeman dugu beste beharretako bat: **erreferente** diren pertsona eta eragileen jarrerak eredugarriago izatearena. Izan, badira, baina askotan, jomuga den gizarte justu horren aurka doazen pentsaera, jokaera edota jarrerak sustatzen dira oharkabeen.

Gazteak gizartean bizitzean ageri den beste arazoetariko bat, gizarte osoan zabaldua dauden **drogen kontsumo**arena da. Kontsumo horiek gizartean oso normalizatuta badaude ere, nerabeenak ardura berezia sortzen du, zaila baita garapen prozesuan dauden, orokorrean, emozionalki, ezegonkorrak diren eta esperimentazio garaia den adin tarte horretan, kontsumo egoki eta arduratsua eman ahal izatea. Sarri askotan, kontsumo horien arrisku faktoreez jabetze ezak ere erraztu egiten du kontsumoa, inpulsiiboagoak baitira eta arazoak urrunago ikusten baitituzte.

Sustantzia horiek betidanik presente egon direla eta egongo direla kontuan izanik, ahalegin guztiak debekuan edo “0” kontsumoan zentratu gabe, helburua kontsumoa jaitsi eta ahalik eta arduratsuenan izan dadin beharko luke. Egun, gainera, azken helburu horrekin egiten diren prebentzio lanek, luzarora bada ere, fruituak ematen dituztela ikusi da, izan ere, kontsumitzaileen kopuruak behera egin duela aipatu da elkarrizketetan, nahiz eta horretan hasteko adinak behera egin duen batez bestekoei begira. Hala ere, komenigarritzat jotzen dugu prebentzio lan horiek sustatzea, denbora luzeagoan irautea eta goiztiarragoak izatea.

Arlo sozialean hautemandako gabeziekin amaitzeko (azkena izan arren, ez garrantzi gutxiagokoa), aipagarria da **euskararen egoera** kaxkarra. Ezagutza, gaur egun, %100ekoa bada ere, erabilera gero eta baxuagoa da kalean, eta zenbakiak ikara sortzen duten egoera batera iritsi direla esan daiteke. Ezin da, aurreko kasuan bezala, nerabeengan utzi arazoaren zama osoa (ez hori baieztatu, behintzat) eta behar bada erroa beraiengan sortzen dugun kontzientziario maila eskasean edo eskaintzen

dizkiegun erreferenteengan egon daitekeela pentsatu behar da.

AISIALDI ETA PARTE HARTZE ARLOA

Ulermena errazte aldera, arlo honetan, banandurik azalduko dira, gazteen aisialdiaren analisia eta horiek maila desberdinetan duten parte hartzearen analisia nahiz eta bien arteko lotura nabarmendu atal honen amaieran.

·Aisialdia

Analisian sartu aurretik, ezinbestekoa da, aurretik egin den bezala, argibide teoriko batzuk aurkeztea eta, hala, gaian adituak diren hainbat pertsonen azalpenak jasotzea.

Aisialdia subjektibitatearen adierazpen librearen bidez, atsedena hartzea, ondo pasatzea edo zaletasun bat lantzea helburu duen denbora libreari deritzo. Hala ere, esanahi horrek, ezinbestean, hiru aspektu ezberdin hartzen ditu bere gain: denbora librea, askatasuna eta gozatzea.

Horrez gain, Freire-ri erreferentzia eginez, ekintzaren beraren gaintik, ekintza horren bizipena gailendu beharko litzateke, esperientzia horren baitan maila pertsonala, soziala eta ingurumenarena barne hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, gazteen aisialdia ezinbestekotzat ikusten da identitatearen garapenerako. Orain arte hainbatetan aipatu bezala, nerabezaroaren gaketzat hartzen den prozesu psikosoziala da identitatearen garapen hori: lotura horrek, beraz, aisialdiak nerabezaroan duen garrantzia eta eragina azpimarratzen du.

Denbora horretan garatzen diren ekintzak, aukeraketa propio maila altukoak izanik, norbere identitatearen adierazpenak direla esan daiteke, eta, aldi berean, horren eraikitzaile ere badirela.

Hau guztia jakinda, herriko gazteek denbora horretaz baliatzeko dituzten modu eta aukerei so eginez hainbat behar edo gabezi, esplizitu zein inplizitu, identifikatu ahal izan ditugu:

Nerabeen Diagnostikoa

- Aste barruan, aisialdirako denbora falta.
- Kaleaz gain, ez dago aisialdi librerako espaziorik.
- Adin-tarte honetarako ekintza eta guneen egokitzapen falta.
- Lokalen kudeaketa egoki baterako beharra.
- Eskolen arteko banaketa.

Aste barruan aisialdirako denbora falta dutela ikusi ahal izan dugu eta hala nabari dute beraiek ere. Hezkuntza formalak eskatzen dituen orduz gain, beste hainbat ekintzaz josia izan ohi du egunerokotasuna gehiengo handi batek, elkarrizketatu ditugun gazteek jakinarazi bezala. Horien artean, bi mailatan banatu daitezkeen ekintzak nagusitzen dira: batetik, hezkuntza formalerako errefortzu klaseak, errefortzua bera edo ingeles akademia bezalakoak; bestetik, musika, kirola edota marrazketa bezalako ekintzak.

Azken horiek, aurretik aipatu dugun aisialdiaren esanahiarekin bat datozela dirudien arren, ez da beti horrela izaten: sarri ez da gazteak aukeratua, eta erabakitzen duten gauza bakarra da txikitik gurasoek hartutako erabakiarekin segi edo ez. Lehenengo multzoko ekintzak aldiz, hezkuntzarako errefortzu orduena, elkarrizketatuen ia kasu guztietan, gurasoek derrigortuta izan dira, egunaren zati handi bat hezkuntza formalera bideratzen da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako "Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan" liburuan ageri den bezala, "Horrek guztiak, eskola-denbora ez den eta aurretik aipatutako beste ekintzetan aritzeko denbora ez den, bestelako denbora murriztea ekarri du; antolatua ez den denbora murriztea, alegia. Bide honetatik, Gipuzkoako haur eta gaztetxoek aisialdian, behinik behin, betebeharrei eta formazio erantsiari eskainitako denbora gehitu egin da azken urteetan.

Aisialdia nolabaiteko betebeharra bilakatu dela esaterakoan, bi esanahi erantsi nahi dizkiogu baieztapen horri. Alde batetik, aisialdiko denbora "bete" edo "okupatu" beharra sumatzen dela gaur egun; eta bestaldetik, betebeharrekoak gaztetxoarentzat behar edo lan berriak direla. Bateko eta besteko, kaleko jolas libreak ez du gaur egun lehenagoko presentzia."

Asteburuetan, gazteek aisialdi librerako denbora gehien duten egunetan, horretarako **espazioen beharra** ageri da. Bada herrian Gaztelekua, gazteek positiboki baloratzen dutena, baina, diotenez, 12-14 urte bitarteko gazteetara mugatzen da

horren erabilera orokorrean, ekintza motagatik edo monitorizatu izateagatik. Muga horiek, noski, ondorioak dituzte gazteen sozializazioan. Negu partean aterpe bila ibiltzen dira gazteak eta leku egokiagorik ez dutenez, kaleko etxabeetan egon ohi dira, horrek dakartzan aisialdiaren garapenerako mugekin. Horrez gain, talde edo “kuadrila” bakoitza bere ohiko guneetan bildu ohi da eta horrek herriko beste gazteekin harremantzea oztopatzen du. Azken ondorio honek gainera, gazteen parte-hartzean zein aisialdian eragin nabarmena du: kolektibo mailan ez batzeak eta, beraz, beraien artean ez ezagutzeak, herriko ekintza desberdinetan parte hartzea zailtzen du eta horretaz gain, gazteek izan ditzaketen inizatibak aurrera ateratzea oztopatuta gelditzen da.

Honen aurrean gazteek, indibidualki bada ere, alternatiba bezala “lokalak” erabiltzen dituzte. Izan ere, berauek autogestionatuko dituzten, arauak jarriko dituzten eta herritarren begiradetatik at egongo diren guneak nahi izaten dituzte. Jakina da herrian, azken urteetan eman diren gertakariak erakusten duten bezala, herritarrekin (bizilagunekin, gehienbat) gatazkak sortzen dituztela “lokal” hauek, gehientsuenetan zarata eta txukuntasun kontuak direla medio. Orain artean, afera honetan esku hartu ez izatea ere, gabezi bezala identifikatu dugu, nahiz eta arazoaren erroa ez dugun “lokal” horietan ikusten, aurrez aipatutako espazioen beharraren ondorio baita lokalen erabilera.

Gazteak batzeko edo lagunartean elkartzeko espazioez gain, sormenerako espazioak ere falta dira herrian, hau da, sormena garatzen hasteko edota gazteek martxan dituzten ekimenak garatu eta elkarbanatu ahal izateko espazioak: adibidez, musika edo antzerkian arituko diren taldeentzako, graffitiak orain arte ezkutuan eta bakarrik egiten zituen gaztea antzeko interesak dituen beste batzuekin biltzeko edota edozein proiektu aurrera atera nahi duen gazteentzako espazioak. Gaur egun, egon badago herrian antzeko espazioen bat baina, analisisian ikusi ahal izan dugunez, ez dago egoera onean, txiki gelditu da, adin-txikikoak ezin dira bertan aritu, eta bi ekintza nagusitara mugatu da bertako jarduna: musikara eta antzerkira.

Berriz ere 12-18 urte bitarteko adin-tarteari erreferentzia eginez, eta elkarrizketetan beraien partetik jasotakoak hona ekarriz, **herriko ekintza eta guneen eskaintzaren egokitzapenean gabezia** bat nabari da, bereziki nerabezaroko lehen urteetan. Herriko Kultur Etxean, Arkupen, hainbat ekintza antolatzen dira hilabete bakoitzerako, asteroko zine emankizunak barne. Horiek adibide hartuta, dagoen eskaintza haurrentzakoa da, hau da, beraien baino gazteagoentzakoa, edota

helduentzakoa, eta nerabegarorako eskaintzetan hutsunea igartzen dute. Horiez gain, herrian aisialdira edo jolasera zuzendutako guneetan ere gabezia bat antzematen dute: jolas parkeak haur txikientzako dira eta beste era batekoak, beraiek jolasteko ere balioko dutenak Eskoriatzako tirolinadun jolas-parkearen tankerakoak.

Herriak bere osotasunean nabaritzen duen gabeziak bat **herriko eskola** (Kurtzebarri eskola) **eta ikastolaren** (Arizmendi ikastola) **artean ematen den banaketa** da. Horrek, beste hainbat konturen artean, aisialdian ere eragin zuzena du eta ekintza desberdinetan parte-hartzean banaketa horiek islatzen direla azpimarratu da elkarrizketetan.

Horrez gain, herrian batera egin daitezkeen zenbait ospakizun zaildu egiten dira, maiz bakoitzak bere aldetik berea egin eta ekintza bera bikoiztutaz.

.Parte hartzea

Gai honen azalpenerako, lehenik eta behin, parte hartzearen definizioa aurkeztea ikusi da ezinbesteko. Parte hartzea kontzeptu zabala izanik, kontu asko hartzen ditu bere barnean, eta, horietan guztietan sartzearen zailtasunak kontuan, alor honetara, hau da, gazteenera eta parte hartze sozialera mugatzen direnak nabarmendu dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eginiko definizioa egoki ikusi da: "Parte-hartzearekin ez dugu ekintzetan parte-hartzea soilik ulertzen, parte hartzea zerbait gehiago da. Parte-hartzea zentzu zabal batean, norbanakoek bere ingurua eta harremanak aldatzeko duten gaitasun bezala ulertzen dugu, beraien bizitzarekin zuzenean ala zeharka zerikusia duten baldintzetan eragina izanik, horretarako baldintza hauen inguruan erabakiak hartuz eta beraien garapen pertsonal nahiz kolektiboa ahalbidetuz. Hitz bitan esanda, hiritartasun aktiboa."

Parte hartzearen inguruko adituek, hainbat sailkapen egiten dituzte kontzeptuaren inguruan. Alde batetik, parte hartze formei egiten diete erreferentzia: momentuko parte hartzea, eragile ezberdinek momentu zehatz baten helburu sozial, politiko edo kulturekin egiten duten parte hartzea; derrigorrezko parte hartzea, hauteskunde edo kontsulta egunetan instituzioek eskaintzen duten parte hartzea; eta eragindako parte hartzea, talde edo instituzioetatik kanpo dagoen norbaitek, interes komuneak diren proiektu edo programa jakin batzuk garatzeko eragindako parte hartzea.

Aurrekoaz gain, parte hartze maileri buruzko sailkapenak ere egiten dituzte, bi maila nagusi ezberdinduz. Batetik, parte hartze pasiboa, hau da, bere gain informazioa eskaini eta kontsulta bat egitea hartzen dituen; eta, bestetik, parte hartze aktiboa, bere barne lau aspekturen garrantzia azpimarratzen duena: boterea dutenengan presioa egitea, taldeen arteko kooperazioa, kudeaketa partekatua (boteredun instituzioarekin batera kudeaketa partekatua izango duena hasieratik bukaerara) eta autogestioa.

Honen bueltan, eta gaur egun Aretxabaletan, arlo desberdinetan, dagoen parte hartzearen urritasuna ikusita, hainbat gabezi identifikatu ahal izan dira nerabeen kasuan ere:

- Parte hartzeko espazio falta.
- Zuzenean eragiten dieten erabakietan ez dira kontuan hartuak izaten.
- Ardurak ekintzen erabaki eremuetara zabaltze falta.
- Parte-hartze kulturaren gabezia.

Parte hartzeko espazio faltari dagokionez, aisialdi arloan aipatu diren espazioez gain, espazio fisikotik haratago doan parte hartzeko eremu bat izateari egiten zaio erreferentzia. Teorian aipatu denaren arabera, eragindako parte hartzea eta nola ez, aktiboa sustatzea ezinbestekoa da. Parte-hartzea herritik sortu behar den arren, ohitura horiek galduta dauden eta jada instituzioen esku utzi ditugun honetan, eskubide eta betebeharrak horiek berriz ere geureganatzea da erronka. Nahiz eta, aipatu bezala, herritik gauzatu beharreko lana izan, udalak edo beste edozein elkarte edo eragilek, espazio horiek zabalduz, parte hartzea sustatu beharko litzatekeela ikusi da; gazteengan potentzial bat egon badagoela nabarmendu da elkarrizketa batzuetan, baina hori indartu eta eragin erreal bat izan dezaten espazioak falta direla.

Adibide nabarmen bezala, elkarrizketa askotan aipatu dute gazteek herriko jaietan ez dutela beraiei egokitutako eta beraien gustuko diren ekintzarik. Zaila da izan adin-tarte horretarako eskaintza egokia aurkitzea, baina hori heldu batek edo beste norbaitek egin gabe, gazteek beraiek egin beharko lukete, beraiek ekintzan bertan zein horren antolakuntzan parte hartzea bultzatuz. Batzordeak egin egiten dira, eta udaletik gazteen parte hartzea sustatu nahi da, baina gazteek, beraien adin eta ezaugarriak direla eta ez dira bertara joatera ausartzen; horregatik guztiagatik, ahalegin berezi bat

egitea garrantzitsua dela ikusten da, eta herri osoari zabaltzen zaion deialdi orokorraz gain, gazteengana gerturatzeko beste modu batzuk baliatu.

Aurrekoari oso lotuta dagoen beste gabezietako bat da **zuzenean gazte edo nerabeei eragiten dieten erabakietan ez direla kontuan hartuak izaten**. Gizarteak eta instituzioek daukaten antolatze modua dela eta, kolektibo hau guztiz kanpo geratzen da hartu daitekeen ia edozein erabakitatik. Adin txikikoak direnez, ez daukate lau urtetik behin, norbanakook gure “iritzi edo ikuspuntua” emateko aukeragun aukera. Hau horrela izanik eta parte hartzeko espazioak garatzen edo sustatzen ez direnez, ez daukate kontuan hartuak izateko inolako aukerarik, beraiek herritar bezala daukaten erabakiak hartzeko eskubidea guztiz gutxien delarik.

Hori azaltzeko, gaur egun, Aretxabaletan pil-pilean dagoen gaia hartuko dugu adibidetzat, “lokalena”. Nahiz eta, aurrez aipatu den bezala, arazoaren erroa lokaletan ez egon, afera honi erantzun bat emateko beharra begi bistakoa da. Gai honetan, hiru agente aurreikusten dira: jabeak, lokalak hutsik dituztenak; gazteak, lokalen demanda eta erabilpena egiten dutenak eta Udala, herritarren errepresentazioaz gain, bitartekari lanak egingo dituena. Hau horrela izanik, parte hartze aktiboa bermatuko den prozesua ikusten dugu egokien, geroko proposamenetan zabalago azalduko dena, izan ere, guztiak maila berean ahotsa izan behar dutela ulertzen da; helburua, bertan negoziazio bat eman eta guztion adostasunarekin onartutako akordioak lortzea baita, bide batez, herritar aktiboagoak sortzea ahalbidetuz.

Aurretik aipatutako guztiaz gain, parte hartzeari lotutako beste gabezi bat hauteman da, arduren kontua, alegia. Kolektibo hau ekintza, jokaera edo pentsaera desegokien arduraduntzat hartu ohi da sarritan. Aldiz, ez da beraiengan ardura edo erantzukizunik jartzen ekintza horien aukeraketa, prestaketa edo antolakuntzan. Beste modu batera esanda, instituzio, eragile edo elkarrekin gazteei zuzenduta egiten dituzten ekintzetan duten parte hartzea, normalean kuantitatiboa, ebaluatzen da, errealitatean ez direnean horien aurretiko erabakien arduradun izan. Pisu hori beraien gain jartzekotan, prozesu osoan parte hartu dutenean izan ahalko litzateke soilik. Modu praktikoago batean adieraztearren, hurrengo gertatzen dela ikusi ahal izan dugu: herrian antolatzen den edozein ekintzatan, ohikoa da, “beraiantzat antolatu da eta ez dute parte hartu” bezalakoak entzutea, baina, parte ez hartzearena ez da beraien ardura soilik, izan ere, horrelakoak erabakitzerakoan ez badira kontuan hartuak izan, ezin daiteke jakin, beraien behar edo nahiei erantzuten dien, aurretik aipatu dugun lokalen kontuarekin gertatzen den bezala.

Analisiaren atal honetan identifikatu dugun azken behar honek aurreko guztiak hartzen ditu bere barne. **Parte hartze kultura** gabezia hauteman dugu Aretxabaletan, beste hainbat herritan ageri den bezala, zaila baita egungo mundu globalizatu eta indibidualizatu honetan, herriko funtzionamenduei buelta bat eman eta beste aukera batzuk ikustea. Atal honetan aipatu ditugun gabeziak, gaur egun, erantzun baten beharra dute; baina, parte hartze kultura hori zabalduz gero, aurrerago, naturalki emango diren jarrerak izan daitezen, gaur egun ikaste prozesu bat eskatzen dute.

Parte hartzean, Marco Marchioni bezalako adituak direnek ezinbestekoa ikusten dute parte hartzea gertukoena den instituziotik garatzea, hau da, herri baten kasuan, udal mailatik. Azken urteetan eman den indibidualismo eta pribatutasunaren hazkundeak ez dio onik egiten herritar aktiboak sortzearen ideari, izan ere, bakoitzaren etxea edo bizitzaz haratago, ez dirudi komuna den ezeren gaineko ardura ez erantzukizuna egon behar denik ere. Herriaren garapenerako eta komunitate proiektuen garapenerako (esaterako, herrigintzako edozein proiektu) hutsune nabaria da, udalak eragindako benetako parte hartzea ez gauzatzea, izan ere, horrela bakarrik bukatu baitaiteke konfiantza falta, lehiakortasuna eta pasibitatea bezalakoekin.

Ondorioz, gabezi hau ere, aurretik beste arloetan aipatu direnetako asko eta asko bezala, hezkuntzari lotuta ikusten da zuzenean. Ikusita gaur egungo gizarteak ez dituela parte hartzeko aukerarik onenak bermatzen, parte hartze kulturaren garrantzia txikitatik jasotzea eta horren alde bizitzako lehen urteetatik lan egitea ezinbestekotzat jotzen dugu. Horretarako, modu ezberdinak egon daitezke, noski, baina herrirako egokien ikusten direnak proposamenetan zehaztuko dira.

HEZKUNTZA ARLOA

Hezkuntza arloa analisi honetan sartzeari erabaki bada ere, ez da beste arloen sakontasunarekin landuko; izan ere; udalaren esku ezer gutxi dago egiteko arlo horretan, Eusko Jaurlaritzaren eskumena baita Hezkuntza sistema eta erkidego osoarentzat garatzen diren proiektu eta curriculumen menpe baitaude ikastetxe guztiak.

Hala ere, garrantzitsua da beste arlo guztiekin batera sartzeari hau ere, gaztearen eguneroko bizitzako parte handi bat zentro eskolarretan ematen baita. Gainera, beste

atal guztietan aipatu bezala, hezkuntza da aldaketak eragiteko oinarritzko tresna. Beste esparruetan identifikatu diren gabezia edo problematika desberdinen prebentziorako gakoa hezkuntza dela ikusten dugu eta, horrekin batera, bizi nahi dugun gizarte justu parte hartzaileko baloreen heziketarako gakoa ere bada. Horrek, familiako heziketarekin batera, gazteen garapen integralaren bultzatzaile eta berme izan beharko luke.

Analisia egitean, elkarrizketetan jasotako iritziak kontuan hartuta, gabezi edo behar hauek identifikatu dira:

- Eduki teorikoa banatzera mugatzen da, oso akademizista da.
- Inkontzienteki balore desegokiak transmititzen jarraitzen da.
- Alor emozional-afektiboaren lanketa urria
- Ikasleen partetik motibazio falta.

Hezkuntza sistema planteatuta dagoen moduan, praktikan, pertsonetan oinarritzea falta zaiola ikusten da oraindik. Ahaleginak egiten badira ere, sistemaren mugen barruan eta ohikoak diren inertziak medio, **garrantzi gehiago** ematen zaio **barneratzeari** pertsonaren garapen integralari baino.

Edukien barneratze horretan gainera, oraindik ere, emaitzari ematen zaio garrantzia eta ez ikasketa horietan egin den prozesu osoari; hau da, kalifikazioen arabera bizi dute gazteek beraien heziketa. Horrela funtzionatzeak, **indibidualismoaz** gain **lehiakortasuna** sustatzen du ikasleen artean eta eskola urteetan zehar hori garatzeak bizitzarako balore moduan ezartzen du lehiakortasuna. Hala ere, azpimarratu beharra dago, azken urteotan, herriko ikastetxeetan metodologia aldaketak egin direla, besteak beste, talde-lana eta kooperazioa sustatze aldera. Baina, oraindik ere, guztia oinarrian daude banakako kalifikazioak eta guzti horren eragin negatiboa azpimarratu dute baita hezkuntza munduko profesional desberdinek ere.

Txosten honetan lehenago aipatu bezala, **emozio eta afektibitate arloan gabeziak** ageri dira bizitzako esparru desberdinetan. Horiei hainbat alorretatik erantzun behar bazaie ere, hezkuntza horretarako tresna oso baliagarria dela ikusten da eta lanketa horiek falta direla azpimarratu da behin baino gehiagotan. Pertsonak garen heinean, emozioak, sentimenduak eta afektibitatea ditugu alde guztietatik eta norberak horien kudeaketa egokia egitea bizitzako esparru guztietarako onuragarria dela esan daiteke. Hezkuntza, orain arte ikusi dugunaren arabera, adimen logiko-matematiko-linguistikora

mugatzen da orokorrean, beste adimen mota batzuen garapenean eragin gabe, esaterako emozionalean.

Ikasleekin egindako elkarrizketetan jasotakoarekin, **hezkuntzarekiko duten motibazioa oso baxua** dela ikusi da. Derrigorrez joan behar direlako ideia errotuta daukate baina ez dute momenturako baliagarri ikusten. Horrez gain, eskolaratuta igarotzen dituzten urte guztiak, unibertsitaterainokoak esaterako, inertziatz egingo dituztelako ustea edo ikuspuntua daukate gazteek; bide horretan zehar egiten ari direna kuestionatu gabe eta benetan bakoitzak dituen nahi eta espektatibak garatzeko betarik hartu gabe, bat-batean, batxilergoa bukatzean ez dute beraien burua horrelako erabaki “garrantzitsu” bat hartzeko egoeran ikusten.

Analisiaren atalari bukaera emateko, aipatu beharra dago, behar hauek ezin direla ulertu bata bestea gabe, izan ere, sekulako eragina dute alor batean ematen diren beharrak, beste batzuetan ematen direnekin. Gizartean bizi garen pertsonok eta gizartean dauden sistema ezberdinak, pertsonekin ez ezik, beraien artean ere erlazionatzen dira eta guztiak beraien artean eragiten dira. Hau horrela izanik, hurrengo orrietan emango diren orientazio edo egingo diren proposamenetan horrela ulertzen saiatu izan da.

9.- ESKU HARTZERAKO ORIENTAZIO eta PROPOSAMENAK

Diagnosi honetan, gazteen beharrak eta gabeziak identifikatu behar izan dira. Hori egin eta gero, garrantzitsua ikusi da esku hartzerako ildo edota orientazio batzuk aurkeztea, hemendik aurrera gauzatuko diren ekintza, proiektu eta abarretan kontuan hartuak izan daitezzen.

Nolabait, egin daitezkeen proposamenak bi multzotan sailkatu eta aurkeztuko ditugu. Batetik, esku hartzeko garrantzitsutzat jotako zenbait ildo aipatuko dira, orientazio gisa horietariko batzuk, herri mailan orokorrean dauden gabeziei erantzungo dietenak, ikusmira gazteengan jarriz betiere. Bestetik, ekintza edo programa zehatz batzuk aipatuko dira, hainbat beharri erantzuteko baliagarriak izango direnak eta erantzun globalagoa eman dezaketenak. Modu eskematikoak aurki daiteke 10.eranskinean.

ESKU HARTZERAKO ILDO eta ORIENTAZIOAK

Aipatu berri dugun moduan, herrian gazteei zuzenduta egiten den edozein ekintzatan edota martxan dauden zerbitzu eta baliabideen funtzionamenduan kontuan izan beharreko aspektu sozio-hezitzaileak azalduko dira jarraian. Analisiaren bidez identifikatutako beharrei erantzuteko ezinbestekoak diren lan-ildoak dira azalduko direnak.

1.- Parte-hartze kulturaren sustapena

Ikerketa honetan behin eta berriz ikusi dugu gazteen parte hartze erreala gauzatzeko beharra. Horretarako, ezinbestekoa jotzen da; herriko eragile, baliabide eta zerbitzuetan era transbertsal batean parte-hartze kultura garatzea horrela, denboraren poderioz, gazteen parte hartzea era natural eta erraz batean emateko eta, bide batez, pentsamendu kritikoa garatzeko.

Parte hartze kultura hori garatzeko gazteen motibazioan eragin behar da. Horretaz gain, aukera eman eta ikaskuntza parte-hartzaile bat landu behar da, parte hartzea ez baita jaiotzetik datorkigun zerbaite eta prozesu bat behar duen ikaskuntza eskatzen baitu. Baina ez da teoria hutsean jausi behar, parte hartzen parte hartuz ikasten da. Beraz, praktikatze horretan dago herri mailan egin beharreko lana, eragile, elkarte, baliabide eta zerbitzu guztietatik abiatuta.

Guri herri mailan garatzea dagokigun parte hartzea maila mikrosozialekoa izango da, hau da, udal mailako programa, proiektu edota ekintza sozial edo kulturaletako benetako parte hartze eraginkorra, gertuko interesak defendatuko dituen. Horretarako batzorde irekiak eskaintzen badira ere, kontuan izan behar da gazteek gero eta asebetetze maila altuagoarekin parte hartzen dutela beraien berdinekin elkarbanatzen dituzten espazioetan eta autokudeaketa maila altua dutenetan. Beraz, udalari dagokio orain arte eskaini izan diren parte hartze espazioak gazteengana gerturatzea eta prozesu horiek erraztea.

2.- Balio hezitzaileen lanketa

Garrantzitsua da etorkizun batean gure herriko helduak izango direnekin, balio hezitzaile positiboen lanketa egitea. Jarrerak aldatu badira ere, eta orokorrean tolerantzia maila altuagoa erakusten bada ere, lan asko dago egiteko hezkidetzaren, kulturartekotasunaren edota aniztasunen alorrean. Zer nahi ez dugun argi daukagu (arrazakeria, matxismoa ...) baina horren ordezkioak landu gabe daude orokorrean eta, hori horrela, oso erraza da berriz ere botere harreman horietan erortzea.

Lan-ildo hau ere herri mailan era transbertsal batean landu beharrekoa da. Hala ere, Udalak badu gai honetan bere erantzukizuna eta beraz, baita bere zeregina ere. Hainbat kanpaina egin arren, herriko baliabide eta zerbitzuak balio horien bidean lan egiten dutela bermatu behar du eta horretarako beharrezkoak diren formakuntza edo sentsibilizazio saioak eskaini.

3.- Izaera edo sentimendu komunitarioa bultzatzea eta gazteen harremanak sendotzea

Aretxabaletan komunitate izaera azpimarratuko duten ekintzak ez dira oso ugariak, eta beharrezkoa ikusi da sentimendu komunitario hori sustatzea hautemandako beste beharrei (eta sortuko diren behar berriei) erantzuteko oinarri moduan. Gazteen kolektiboaz haratago, herri edo komunitate osoaren batura berregin beharra dago.

Horrela, komunitatea indartuta, herrian kolektibo edo pertsona desberdinek izan ditzaketen beharriaz erantzun indartsu eta baliagarriagoa emango zaie eta, denborarekin, bazterketa egoerak ematea ere ekidingo litzakete.

Horretarako, batetik, herriko belaunaldi, kultura edota jatorri ezberdinak batuko dituzten ekintza edo programak garatu behar dira, ahalik eta parte hartze altuena bermatuko dutenak, bai horien sorrera eta garapenean, baita egikaritzan ere.

Bestetik, gazteen kolektiboak ere beraien talde izaera indartuko duten harremanak sendotzea behar du. Gaur egungo taldeak, handiak izan arren, izaera itxikoak dira gehientsuenak, beraien berdinekin harremanak sortzeari mugak jartzen dizkietenak, nahiz eta beraiek nahi ez izan. Izaera itxi horrekin apurtu gabe, baina beste gazteekin harremanak izatea ahalbidetzeko, herri mailako ekintzak areagotu beharra dago.

Hori guztia lortzeko, herria, denok elkarbanatzen eta bizitzen dugun espazio ireki bezala ulertzea izan daiteke ardatza eta horri begirako elkarlana sustatzea. Komunitatea lehenengo planora ekarriz, gazteak gertuen duten ingurunera zabaltzea ahalbidetuko duten ekimenak jarri behar dira abian: auzolana eta herrigintza indartzeko ekintzak.

4.- Erreferente heldu positiboak lantzea

Diagnostikoan hautemandako beharretatik abiatuta, herrian erreferente heldu positiboak, hezitzaileak, sortzeko orientazioa sortu da.

Jakina da gazte eta nerabeengan herriko beste gazte batzuk "eredu" direla, baina ez guztiak eredu positibo. Joera horretan, eredutzat izango dituzten herriko pertsona helduak aukeratu behar dira; gazteek norengana jo eduki behar dute.

5.- Hezkuntza formala, hezkuntza ez formala, eta gurasoen arteko hartu emanen sendotzea

Diagnostikoan aurkitutako behar bati baino gehiagori erantzun bat bilatu nahian, hezkuntza formala (horren barnean ikastetxeak eta bertako ikasketekin zerikusia duten herriko baliabideak), hezkuntza ez formala (aisialdira eta eskolatik kanpoko ikaskuntzetara bideratutako elkarte edo zerbitzuak) eta gazte eta nerabeen gurasoak batuko dituen sare bat eratzeko orientazioa eman nahi da. Zehazkiago, edo beste modu batera esanda, helburu baten inguruan batzen direnen harreman eta elkarrekintzea sare bat sortzeari buruz ari gara.

Hiru multzotan sailkatu ditugun agente edo aktore horiek guztiek herriko gazte eta nerabeekin harreman zuzena dute, eta beraz, beraien lanean dago, beste batzuen lanarekin batera, gazteen ongizate integrala sustatzeko gakoa; hala nola, parte hartzea sustatzea, balio hezitzaileen lanketa, herriko eskolen arteko banaketarekin amaitzea eta abar.

Horrez gain, izaera horretako sareak sortzeak aurretik lanerako ildo garrantzitsu moduan aipatu dugun izaera eta sentimendu komunitarioa bultzatu eta indartzea ahalbidetzen du.

6.- Gurasoekin esku hartuz heziketarako gaitasunen lanketa

Lan hau egiterakoan izandako hainbat elkarrizketetatik sortu da hurrengo orientazioa: gurasoei nerabeen heziketarako gaitasunetan trebatzen laguntzeko orientazioa.

Diagnostikoko analisian sakonago azaltzen den moduan, nerabezaroaren ezaugarriak, testuinguru eta errealitate aldaketak, eta beste hainbat faktore dela medio, guraso askok zailtasunak izaten dituzte seme-alaben heziketako alor desberdinetan. Azaro edo zailtasun horiek, kasu askotan antzerakoak direla ikusita, taldean landu daitezkeen beharrak direla esan daiteke. Gainera, beste hainbat gai edo problematikatan ezagun den moduan, taldeko lanketek inpaktu oso positiboa izan ohi dute, bai partaideengan, baita horien inguru hurbilean ere.

Hala ere, badira arrazoi ezberdinegatik arazo edo problematika espezifikoak dituzten guraso edo familiak. Horiek gizarte zerbitzuetan jada jarraipen eta babesa jasotzen duten arren, gainontzeko gurasoekin taldeko lanketetan parte hartzeak eragin positiboak izango lituzke bai beraiek bizi duten egoerarekiko ikuspuntuan, bai guztion inklusibitatean eta baita beste hainbat aspektutan ere.

7.- Herriko eragileen arteko harremana eta koordinazioa sustatzea

Aretxabaletan badira herri mailan lanean ari diren hainbat elkarte eta zerbitzu, baina, orokorrean bakoitza bere lanean ari da, bakoitza bere aldetik. Batak bestearen berri badute ere, ez dago elkarlana ahalbidetzen duen espaziorik.

Bada, lan horretan, gazteei eskainitako aisialdi eskaintzari dagokionez, norabide, helburu eta jarduteko moduak eztabaidatu eta bat egitearen hutsunea ikusi da. Beraz, eta elkarlanerako dagoen nahia ikusita, eragin oso positiboa izango luke herriko eragileen harremana sendotuko duen eta koordinazioa ahalbidetuko duen espazio baten sorrerak.

Horrez gain, mugimendu horiek guztiek gazteei begira egiten duten lana, horien egoera eta beharrei egokitu izan dadin, espazio edo mahai horrek herriko eskolekin ere harreman zuzena izan beharko luke. Horrela, bide batez, aurretik aipatutako izaera komunitarioa indartzeko guneak ere ahalbidetuko lirateke; gazteek eskolari beste zentzu edo balio bat emateko, eta, baita, eskolatik herri edo komunitatera begira egiten diren ekimenei ere (Agenda 21, hezkidetzak taldeak ...) zentzu bat emateko.

Mahai horren sorrerak, eta horrek eskolarekin izan dezakeen harremanak, herrian dagoena eta egiten dena ikusgarri bihurtzea ekarriko luke. Herrian parte hartzea eta herrian aritzea, herrigintza, sustatuko lituzke gazteek zerbitzu, baliabide, elkarte eta herri mugimenduak gertutik ezagutzeko aukera horrek. Gainera, horrek gizarteratze positibo baterantz begirako ekintza inklusibo eta kulturalen eraikitzea dakar, gazteek herrigintzako esparru ezberdinetan parte hartzea sustatuta.

Horrela, gizarte sareak haziko lirateke eta, bide batez, herrigintzak beharrezkoa duen belaunaldien arteko erreleboa erraztuko litzateke. Azken finean, herrigintzan aritzen diren herritar antolatuek sortzen dute herria, horiek gabe herriak galdu egingo bailuke.

8.- Ongizaterako zerbitzuen esku-hartze integrala garatzea

Diagnostiko osoan zehar behin eta berriz aipatu den bezala, azken helburua gazte eta nerabeen ongizate integrala bermatzea izanik, hurrengo orientazioa horretarako jada ezarrita dauden zerbitzuen ingurukoa izango da. Ongizate sistemaren baitan, Osasun-zentroa, Gizarte Zerbitzuak eta Prebentzio saila eta hezkuntza-zentroak aurki daitezke herrian.

Horietako bakoitzean ematen den zerbitzua eta esku-hartzea noraino heltzen diren eta nolakoak diren behatzera sartu gabe, hiru instituzio horien arteko elkarlanaren inguruan jardutea proposatzen dugu. Gazteei begira jarrita, eta batez ere beraietako batzuk ikasketekin dituzten zailtasunak ezagututa, horren erroaren edo zergatien esku-hartzea hiru instituzioen arteko koordinazio eta elkarlanean egitea proposatzen da.

Horrez gain, herritar guztien ongizatea bermatzeko bidean, ezinbestekotzat jotzen dugu Osasun-zentroak, Gizarte Zerbitzuak eta Prebentzio sailak eta hezkuntza-zentroek herrira begira lan egitea eta maila horretako erantzunak ematea. Gaur egun, bakoitzak bere egunerokoan, indibidualki edo familia mailan artatzen dituzten erabiltzaileekin betetzen dute beraien jarduna eta herri mailako esku-hartzeak alde batera utzi dira.

9.- Nerabeekin komunikazioa: eraikitzailea eta positiboa

Lan ildo moduan proposatzeko sortu den beste orientazioetako bat nerabeekin izan beharreko komunikazio motarena da. Sarritan ohartzen ez bagara ere, pertsonen arteko komunikazioak uste baino gehiago eragiten digu. Hori horrela ulertuta, gazteengan aspektu horrek eragina duela ikusi dugu, eta sarritan eragin negatiboa gainera. Heldu garenok boteretik hitz egiten diegu gazte edo nerabeei, gure hitzak beraienak baino gehiago balio duelakoan eta desoreka egoerak sortzen ditugu. Bide horretan, gainera, botere harremanak errepikatzen eta sustatzen ari gara oharkabean, boteretik hitz egiteko guztiok ez baitaukagu maila bera emakume, gizonezko, euskaldun edo atzerritar izan.

Gazte eta nerabeak interes, eskaera eta arrazonatzeko gaitasun propioak (helduenetik desberdintzen direnak) dituzten kolektibo moduan aitortzetik hasi behar da lanean, eta boteretik hitz egin eta arautzeari utzi. Lan-ildo horretan, gazteei eragiten dieten erabakietan edo ekintzen antolaketan gazteak kontuan hartuak izatetik hasi daiteke, beraiena gerturatu, beraiekin hitz egitearen balioa azpimarratu eta parte hartze zuzena izan dezaketela erakutsi behar zaie, beste edozein herritar heldu bailitzan.

Adibide garbia izan dezakegu lokalen kudeaketari erantzunen bat emateko orduan. Gazteak beraiek erabiltzaileak izanik, lokalen inguruan zer esan badutela ikusita eta herritar moduan kontuan hartuak izan daitezten, horiek arautzeko edo horien inguruko ordenantza egiteko ezinbesteko aktore izan daitezke. Horrela, norbera erabakiaren parte izanda, arauen onarpena eta inguruarekiko errespetua handiagoa izango da beraiekiko errespetua ere badela ikusita.

10.- Kultura, belaunaldi eta genero ezberdinetakoen arteko harreman osasuntsuak sustatu

Gizarte osasuntsu bat edukitzeko, ezinbestekoa da bertako kideek beraien artean harremanak izatea. Horretaz gain, norbere garapen pertsonal zein sozialerako garrantzitsua da gizarte sare bat osatua edukitzea, edozein zaugarritasun egoera era errazago batean ekidin ahal izateko.

Horien falta ikusita eta horiek sustatze aldera, udaletik bultzatzen diren ekintzetan jardura kolektiboa anitza izatea bermatu behar da, irekia eta ez unformatua genero, kultura, ideologia edo adinaren arabera.

Horretarako, adin, jatorri eta zaletasun ezberdinetako pertsonak batuko dituen ekintzak antolatzea dagokio udalari, eta gazteek ere bertan parte har dezaten bidea erraztea. Ekintza horietarako, herriko aniztasuna baliatu daiteke, eta adibidez teknologia berrien ezagutza, erretiratuen elkarteak, eskolak, munduko janari eta jolasak, eta abar erabili elkar trukerako.

Horrela, ezagutzak partekatuz, zaletasunak konpartituz, harremanak sortuz eta sareak eraikiz aurretik aipatutako sentimendu komunitarioa indartzea ere ahalbidetuko litzateke.

11.- Aisialdi hezitzailea garatzea

Udalak bi erronka dauzka nerabe eta gazteei begira, beraientzat antolatzen dituen ekintzetarako. Alde batetik, hezkuntza ez formalaren bitartez eta balio positiboak landuz, nerabe eta gazteei norbere autonomiaren garapena posible egitea; eta, bestetik, gaztaroa gozatu, esperimintatu eta heldutasunaren bidean oinarri diren aldi horiek osotasunean bizi ditzaten laguntzea. Beste modu batera esanda, oinarrizko gaitasunen garapenean eragin behar du; laguntza eman autonomoak, askeak eta gizartean inplikatuak izan daitezen, jada Gaztelekuan erabiltzen den formatua adin ezberdinetara egokituta. Horrez gain, garrantzitsua ikusten dugu alor honetan ere, euskararen erabilpenaren sustapenean hausnartzea; egin egiten da lan baina eredu izatean jarri behar da arreta.

Gaztelekuan sustatzen diren balioak, era asanblearioan batzea, gazteen parte hartze zuzena, norbere iritzi kritikoa garatzea, besteen aurrean hitz egiten ikastea,

elkartasuna eta beste hainbat, oso egokiak dira gizarte justu bateranzko bidean, eta horiek gazte kolektiboa inguratzen duten beste zerbitzu eta baliabideetara ere transferitu beharko lirateke; gazteek zentzu bat eman behar diote leku bakoitzetik jasotzen dutenari eta beraz, dena antzeko bidean baldin badoa, errazago egingo dute.

Aurretik balio hezitzaileen lanketa aipatuta, eta orain aisialdi hezitzaileaz hitz egiten, biak bat egitearen proposamena datorkigu. Balio hezitzaileak zeharka eta herritar guztiakin landu behar badira ere, gazteekin lan egitean zentratu gara gu. Horretarako, aisialdia ondo baliatu beharreko tresna bezala ulertzen da, gazteek beraien denbora librean eta ondo pasatzen duten bitartean, balio hezitzaileak jasotzeko eta ikaskuntza informalerako gakoa baita.

Gaztelekuak, aipatu bezala, betetzen du aisialdi hezitzailearen eskaintza, baina horren erabilera adin tarte batera (12-14) mugatzen da; horren osagarri moduan, kale heziketa programa bat abian jartzeak, gainontzeko gazteak kalean egiten duten bizimoduan aisialdi hezitzailea garatzea ahalbidetuko luke, eta baita beraien hutsune eta beharrak modu interaktiboan erantzun bat jasotzea ere. Honek guztiak, analisisian aurkitu diren behar bati baino gehiagori erantzungo lioke, hala nola, kontsumoen prebentzio eta lanketari.

12.- Gazteen espazio beharrari erantzuna ematea

Analisi honetan, gazteekin egoterakoan ikusi da, beraien behar nagusia espazio bat dela. Eurek, gaur egun, lokal pribatuak ikusten dituzte horren irtenbide moduan baina agertu dira bestelako espazioetarako proposamenak ere. Hori horrela izanik, guk bi multzotan sailkatu dugu orientazio hau: espazio komun, libre eta ireki bat batetik, eta lokalen arazoaren kudeaketa bestetik.

Gure lanaren helburua ikusita eta gazteek herrian izan behar duten papel aktiboa aintzat hartuta, ez dugu lokalen erabileraren alde egingo, baizik eta espazio komun eta libre baten sorrera ahalbidetu. Azken horrek, gazteen espazio beharrari erantzuteaz gain, beste hainbat behar ere beteko lituzke eta beraien arteko harremanak sendotzea, autonomia eta autogestioa garatzea eta norbere burua aktibo eta baliagarri sentiaraztea ekarriko luke; eta hori da, hain zuzen ere, garapen pertsonala sustatzeko bidean beharrezko gakoetariko bat.

Ez da kasualitatea, egungo gazteek lokal pribatu eta itxietarako joera izatea, baina espazio komun baterako aukerarekin hezi izan balira, ez dugu uste eskaria berdina izango litzatekeenik.

Horrez gain, nerabezaroa sorkuntzarako baliatzen duten gazteei ere aukera bat eskainiko lieke espazio horrek. Egungo entsegu lokalek ez dituzte guztien beharrak asetzen, eta beste sorkuntza mota batzuk ere beraien lekua izango lukete espazio horretan.

Hala ere, garrantzitsua da gaur egun lokalekin dagoen arazoari erantzun bat ematea. Elkarbizitza arazo horretan, gazteak, lokalen jabeak eta inguruko bizilagunak daude harremanetan eta guztiek nahi dute egoerari irtenbideren bat ematea. Hori horrela, eta udalaren bitartekaritza oinarri hartuta, lan egin behar da guztien artean irtenbide komunak eta ahalik eta kontsentsu handienekoak aurkitzeko bidean. Horretarako, parte guztiei hitza eman eta, ikuspuntu ezberdinak elkarbanatzeko, guztiak batuko dituen prozesu bat jarri beharko litzateke martxan. Horren helburua, guztien artean eraikitako, eta ondorioz guztiek errespetatuko duten araudi antzeko bat sortzea izango litzateke, eta horrela, elkarbizitza hobetzea lortuko litzateke.

13.- Gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen inklusioa lantzea.

Nerabeen artean ere, gizartearen orokorrean gertatzen den bezala, badaude gizarte bazterketan edo horretarako arrisku egoeran aurkitzen diren pertsonak. Horiei babes eskaintzeko eta egoera horri erantzuna emateko tresna aproposa Gizarte Zerbitzuak dira. Horiek banakako, familiako eta komunitateko lanketak egin behar dituzte egoera guztiei erantzun oso bat eman ahal izateko, baina gaur egun alor horretan duten lan-karga dela-eta, ezinezkoa egiten zaie komunitate mailako esku hartzerari iristea.

Hala ere, maila horretan lan egiteak, indibidualki zein familia maila artatzeak besteko garrantzia du gizartearen eta norbanako horien ongizatea lortzerako bidean. Hori dela eta, hainbat norbanakoekin zein komunitatearekin berarekin lan egin duen eta Gizarte Langileen lanaren osagarria izango den kale heziketa programa martxan jartzea proposatzen da. Horrela, aurretik den beharrari erantzuteaz gain, bazterketa arriskuan dauden pertsonak ere komunitatearen barne izan daitezen ahalbidetuko da eta guztiekin batera lan egin.

14.- Udala, instituzio bezala, herriratzea.

Herritarrek orokorrean udalarekiko eta gainontzeko instituzioekiko duten konfiantza eza oztopo bezala ikusten da sortu nahi dugun gizarterako bidean. Hori horrela, gazteei dagokienez ez da gauza askorik aldatzen. Udalarekiko eta horren funtzio eta lanekiko ezagutza falta dela medio, oso urrun sentitzen dute udala nerabeek; ez diote erabilgarritasunik ikusten eta konfiantza ere nulua da.

Hori dela eta, eta aurretik analisisan aipatutako guztia errazte aldera, udalak beste komunikazio kanal batzuk aurkitu beharra dauka gazteei dagokienean. Analisi honi esker egin dituzten eskaeratariko asko, azkarrago eta modu sinpleagoan eztabaidatu edo erantzungo lirateke beraiek zuzenean udaletxeko norbaitekin kontaktua izanez gero. Aukera izan badute batzorderen baten edo besten parte hartzeko, baina ez dute beraien burua hor ikusten eta beraz, teknikak edo metodologia aldatu beharko liratekeela uste dugu.

PROGRAMA edo EKINTZA PROPOSAMENAK

Analisian nabarmendutako beharrei erantzun bat emateko eta aurretik aipatutako orientazioak zehazte aldera, 4 programa edo ekintza proposamen aurkeztuko dira jarraian. Zehaztasunez azalduta egon arren, hauetariko bat martxan jartzerako orduan berriz ere begiratu bat eman eta herrira egokitu beharko litzateke.

1.- KALE HEZIKETA PROGRAMA

Zer da?

Nerabeei zuzendutako ingurune irekiko esku-hartze giza hezitzaile programa da.

Helburuak:

- Adingabeen eta gazteen ongizatea eta garapen pertsonal osoa sustatzea beraien inguru naturalean.
- Garapen pertsonalean eta arlo sozialean zailtasunak dituzten gazte eta nerabeak, elkarbanatutako inguru eta herritar guztiei zuzendutako baliabideetan integratu ahal izatea.

Nori zuzendua:

- Komunitate osoari ; bereziki, herriko gazte eta nerabeei.

Metodologia:

Nerabeen Diagnostikoa

1. **-Banakakoa:** Banakako hezkuntza proiektuak: Hezitzaileek adingabekoei laguntzen diete euren bizitzako proiektu positiboaren garapenean; horretarako, helburu batzuk zehazten dituzte beraiekin, dituzten beharren arabera eta beraien gaitasun eta motibazioak kontuan hartuta. Gazteak zailtasunak dituen eremuetan eskuhartuko da: hala nola, familia, eskola, ikasketak, lana, beste gazteekin harremanak...
2. **-Taldekkoa:** Taldeko hezkuntza proiektuak: Beti daude banakako heziketa proiektu batekin lotuta. Arrisku egoeran dauden gazteak euren talde naturalean, edota guk egituratutako batean, biltzen dira, eta gazteak sartuta dauden proiektutako helburuak lortzera bideratutako ekintzak egiten dira.
3. **-Komunitatekoa:** Proiektu komunitarioak komunitatearekin harremanak sortzeko eta mantentzeko erabiltzen dira; hezitzaileen lana ikusgai egin behar da, hartara, nerabe guztien eskura egon dadin. Modu horretan, gure lan maila guztiak elkarlotu eta komunitateak eskaintzen dituen baliabide zein gizarte eragileekin harremanetan jarriko genituzke.

- Hau guztia, Gizarte Zerbitzu eta Prebentzio sailarekin elkarlanean egingo da: disziplina anitzetako profesionalekin lan egiteko espazioak sortuz.

Aurrekontua: Aurreko programak oinarri hartuta 40.000 euro inguru kalkulatzen dira.

2.- GURASO ESKOLA

Zer da?

Seme- alaben heziketak dakartzan zailtasunen aurrean, gurasoei heziketa horretarako beharrezko gaitasunak lortzen laguntzea.

Helburuak:

Helburu orokorra familiak eta berau osatzen duten partaideek bizitza kalitate hobea lortzea da. Hortik abiatuta, familiari lagundu nahi diogu, zailtasunak modu autonomoan kudeatzeko beharrezkoak diren gaitasunak lortzen.

Helburu zehatzak:

- Familiakideen arteko harremanen kalitatea bere osotasunean hobetzea.
- Bizitza ziklo desberdinetara egokitze asmoz, familiak gaitasunak indartzea.
- Errealitate berrien aurrean familiak sostengua izatea.
- Inguruko baliabide komunitarioen erabilpena sustatzea.

Landu beharrekoak:

- Gurasoak portaera eredu bezala: nerabeentzat erreferente izatea, frustrazio eta beldurrak beraiengan proiektatu gabe.
- Babes eta kontrolaren arteko oreka praktikatzea (afektua eta arauak)
- Emozioen adierazpen egokiaren garrantzia, seme-alabek imitatu beharreko eredu bezala.
- Hezkuntza demokratikoren eredia praktikatzea
- Eskola eta familiaren arteko harremana sustatzea. (harremanari zentzu bat ematea)
- Aitaren inplikazioa lantzea.
- Egungo nerabetasunaren inguruko gakoak ematea
- Gatazka egoeretatik urrundu eta objetiboagoak izateko gaitasunak lantzea.

Nori zuzendua:

- Seme-alaba nerabeak dituzten gurasoei
- Egoera desberdinen ondorioz haurren tutore direnei (aiton-amonak, beste era bateko familikideak, etb).
- Elkarbizitzeko edo harremanetarako zailtasunak dituzten pertsoneri edo familiei.

Metodologia:

Bideo, mintegi, eztabaida-saio, rol-playing eta abarren bitartez lan egingo da.

Aurrekontua: Profesional ezberdinen interbentzioa dela eta, 5 000 euro kalkulatu dira.

3.- HEZKUNTZA ETA GURASO FOROA

Zer da?

Elkarlanaren bidez ekintzen antolaketa eta elkarleen funtzionamendu egokia indartzeko foroa da. Helburu orokor edo zehatzak lortzeko batuko dira, eta taldean edo bakoitzak bere alorrean eramango dira aurrera.

Helburuak:

Nerabeen Diagnostikoa

- Saretzeko prozesuak sustatzea.
- Herriko gazteen ongizatea bermatzea eta garapena sustatzea.
- Egungo egoeraren balorazioa egin eta ezagutza elkarbanatzea, lanerako lehentasunak ezartze aldera.
- Proiektu komunak garatzea.

Metodologia:

Helburu oso zehatzen edo orokorren inguruan batu daitezke, edota izaera iraunkorrago batekin sortu.

Foroaren osaera:

· Koordinatzaile – moderatzaile : gazteria teknikaria

· Parte-hartzaileak:

HEZKUNTZA FORMALA

- Kurtzebarri BHI
- Arizmendi Almen gunea
- Lanbide hastapena
- Aretxabaletako Lanbide eskola

HEZKUNTZA EZ FORMALA

- Leizarra musika-eskola
- Gaztelekua
- Loramendi elkarte
- UDA
- Leintz Eskola Kirola (LEK)
- Arizmendi Kirol Elkarte

GURASOAK

- Guraso elkarteko kideak
- Nerabeen gurasoak

Interesdunak izan daitezkeenak: HitzHartu errefortzu akademia, Loramendi Dantza Taldea, Leber akademia, Berbetan eta abar.

Aurrekontua: Ez dauka kostu ekonomikorik.

4.- ELKARTEEN FOROA

Zer da?

Existitzen diren elkarten ezagutza zabaltzeko eta beraien arteko elkarlana zein funtzionamendu bateratua sustatzeko foroa da.

Elkarlanaren bidez jada existitzen diren eta antolatuko diren ekintzen funtzionamendu eta antolaketa egokia indartuko da. Helburu orokor edo zehatzak lortzeko batuko dira eta taldean eramango dituzte aurrera.

Helburuak:

- Saretzeko prozesuak faboretzea eta sustatzea.
- Herriko gazteen ongizatea bermatzea eta garapena eta aisialdi hezitzailea sustatzea.
- Egungo egoeraren balorazioa egin eta ezagutza elkarbanatzea, lanerako lehentasunak ezartze aldera.
- Lanerako norabide elkarbanatua ezartzea.
- Proiektu komunak garatzea.
- Izaera iraunkorra bultzatu.

Metodologia:

Helburu oso zehatzen edo orokorren inguruan batu daitezke, guztiak norabide berean lan eginez.

Foroaren osaera:

- Koordinatzaile – moderatzaile :
 - Kultura teknikaria
 - Gazteria teknikaria
 - Kirol teknikaria
- Parte-hartzaileak: herrian aktibo diren eragile edo gizarte mugimendu desberdinak, besteak beste:
 - Loramendi Dantza Taldea
 - Leintz Eskola Kirola

Nerabeen Diagnostikoa

- Arizmendi Kirol Elkartea
- Leizarra musika eskola
- Loramendi Elkartea
- UDA
- Murrukixo Mendizale Elkartea
- Zaraia Mendizale Elkartea
- Jaiki Elkartea
- Kuku Miku Elkartea
- Gaztelekua
- Hiruatx Elkartea
- Aratz Elkartea
- Okila taldea
- Basotxo Elkartea
- GuHaziakGara laguntza elkartea
- Gazte Ekimena
- Atxabaltako "Erdu" Feministak
- Atxabaltako Abesbatza
- Arlutz Xake Elkartea

...

Aurrekontua: Ez dauka kostu ekonomikorik.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA


·Heriotza tasaren inguruko informazioa:

Heriotza tasari erreparatuz ere, jaiotza tasen antzerako zerbait gertatzen da, hau da, heriotza tasa egonkorra da, ez dago hazkunde progresiborik, nahiz eta urtearen arabera datuak ezberdinak izan. Azken urteetan, biztanleriaren hazkundera ematen delarik, normala, da heriotza tasa ere hazten joatea eta ikusten da datuei begiratuz, azken urteetan, orokorrean, heriotza gehiago eman direla, nahiz eta badirudien, hori ere, beheranzko tendentzia hartzen ari dela. 2009 eta 2010.urteetan eman dira, heriotza tasa altuenak 60 heriotzekin urte bakoitzean. Emakume eta gizonen artean ez da ezberdintasun handirik ematen, hala ere, gizon gehiago hiltzen dira emakumeak baino, izan ere, biztanleriari dagokionez, gizonezkoak, emakumezkoak baino gehiago dira.

2. ERANSKINA

·Aretxabaletan dauden etorkinen ehunekoa.

12.GRAFIKOA: 2015eko biztanleak (etorkinen zenbatekoa)



ITURRIA: Ikuspegi

3. ERANSKINA

·Aretxabaletan aurkitzen diren etorkinen jatorria:


Aretxabaletako herrian, txostenean zehar hainbatetan aipatzen den bezala, 35 herrialde ezberdinetako etorkinak daude. Hauek Europa, Asia Afrika eta Ameriketatik etorritakoak dira. Etorकिनen gehiengoa, Europar kontinentetik etorritakoa da. Kontinente barruan, herrialde nabarmenena Portugal da eta bertatik etorritako 77 pertsona bizi dira herrian eta atzetik Bulgaria aurkitzen da, herrian Bulgariatik etorritako 45 pertsona bizi direlarik. Afrikari dagokionean, jende gehien etorri den herrialdea Maroko da (51 pertsona) eta ondoren Argelia (36 pertsona). Amerikari so eginez, 25 pertsona dira Kolonbiatik etorritakoak, 9 Perutik eta 7 pertsona berriz, Ekuadorretik. Azkenik, Asiatik etorritako biztanleak ere badaude Aretxabaletan, 32 Pakistandik eta 8 Txinatik etorri direlarik. Honetaz gain, beste hainbat herrialdeetatik etorritako herritarrak ere badaude, besteak beste, Erresuma Batutik, Senegaldik, Nigeriatik, Boliviatik, Brasildik edo Venezuelatik.

4. ERANSKINA

·Aretxabaletako langabezia datuak Gipuzkoa eta Debagoienarekin alderatuz:

Debagoienan, 3389 langabetu daude eta Aretxabaletak horietako % 9,11 suposatzen du, beheko grafikoan adierazten den bezalaxe.

13.GRAFIKOA: Aretxabaletako langabezia Debagoienana.



ITURRIA:Lanbide.


Debagoienan, 1859 dira langabezian dauden emakumeak eta osotasunaren %54,7a suposatzen dute, gizonezkoak 1533 diren bitartean eta %45,23a suposatzen dute bitartean.

Gipuzkoan berriz, 42278 dira langabezian dauden pertsonak. Langabezia tasa dagokienean, %12,1koa da Gipuzkoako langabezia tasa emakumezkoena %14,1koa da eta gizonezkoena berriz, %10,3koa.

5. ERANSKINA

·Euskararen erabilera gizon eta emakumeetan:

14.GRAFIKOA: Euskararen erabilera (emakumeak eta gizonezkoak)



ITURRIA: Aretxabaletako Udaleko Euskara Zerbitzua

6. ERANSKINA

·Lanaren kronologia:

Hemen ageri den diapositiban, ikerketaren kronologia ageri da, egin ditugun ekintza guztiak, hilabeteka kokatuz.

Azarotik maiatzera joan den prozesua izan da:

·Azaroa:

Herriaren deskribapena egiten aritu gienen, herriko datu soziodemografiko ezberdinak aztertuz.

·Abendua:

Behaketa orokorrak egin ditugu, herria fisikoki hiru ataletan banatu eta indikadore ezberdinak kontuan izanik, azterketa bat egineko herriko eremu ezberdinak duten herri bizitza, komertzioen bizitza, herritarren joan etorriak... Elkarrizketak prestatu ditugu eta hasi ere egin gara, hainbat baliabiderekin.

·Urtarrila:

Behaketa orokorrak bukatu eta baliabideen elkarrizketekin jarraitu dugu.

·Otsaila:

Baliabideekin elkarrizketak bukatu eta gazteen elkarrizketekin hasi.

·Martxoa:

Gazteen elkarrizketekin jarraitu.

Analisirako teoria batu.

Analisia gauzatu.

Eztabaida saioen prestaketa.

·Apirila:

Eztabaida saioekin hasi.

Esku hartzeko proposamenak egin eta idatzi.

·Maiatza:

Txostena idatziz garatu.

Aurkezpen irekia.

7. ERANSKINA

·Analisirako eskema:

ARLO PERTSONALA

- Autoestimua (nola ikusten duzu zeure burua?)
- Garapena: adimen kognitiboa eta adimen emozionala
- Autoerrealizazioa
- Autonomia

ARLO FAMILIARRA

- Afektibitatea
- Autonomia (etxean: arauak...)
- Elkarbizitza (etxeko rolak, barne antolaketa, ...)
- Zer ematen diogu elkarri? (bidirekzionala)

ARLO INTERPERTSONALA / SOZIALA

- Bizi-kalitatea
- Bizi-eredu desberdinak
- Harremanak (adinekoekin, auzokoekin, figura formalekin...)
 - Ze zailtasun? Nolako harremanak? Ze onura?
- Gatazkak (eta nola kudeatzen diren)
- Gizarte formetarako adaptazioa eta gizarte arauen onarpena
- Kontsumo ohiturak
- Herriaren erabilera (nola baliatzen den)
- Inklusibitatea (arraza, sexua, egoera ekonomikoa, ...)
- Etorkizuna (ze espektatiba, ze ikuspegi...)

ARLO ESKOLARRA / HEZKUNTZAZKOA

- Motibazioa
- Asistentzia
- Eskolaren adaptazioa nerabeen beharretara
- Baliabideak
- Pertsona-Familia-Eskola harremanaren trataera

AISIALDI ETA PARTE-HARTZE ARLOA

- Ze espazio daude herrian? (formalak, arautuak, ireki edo itxiak.../ herriaren erabilera)
- Iniziatiba
- Konpromisoa (nolako, ze mailatan...)
- Autogestioa
- Beharrak eta hauen erantzuna
- Parte-hartzea (horretarako aukera/mugak, espazioak...)

8. ERANSKINA

ANALISIKO BEHARREN ESKEMA:

1.- Arlo pertsonala

- Autonomia sustatzea
- Adimen emozionalaren lanketa
- Autoestimuaeren lanketa

2.- Arlo familiarra

- Afektibotasuna
- Gurasoen orientazio beharra
 - Garapen emozionalaren lanketa
 - Gizarte ohituren kudeaketarako
 - Beldurrak kudeatzeko
 - Mugak ezartzeko (babesa eta askatasunaren arteko oreka)
 - Gainbabesa
- Aitaren figuraren falta zaintza lanetan

- Gazte eta familiaren arteko elkarreraginaren balioa

3.- Arlo soziala edo interpertsonala

- Botere harremanak
 - Matxismoa
 - Arrazakeria - klasismoa
- Gizarte inklusiborako balio falta
- Kontsumismoa
- Indibidualismoa
- Harremanen nolakotasuna
- Erreferente heldu falta
- Drogen kontsumoa
- Euskararen erabilera

4.- Aisialdi eta parte hartze arloa

Aisialdia

- Aste barruan aisialdirako denbora falta
- Espazioen beharra (sormenerako espazioak ere)
- Herriko ekintza eta guneen eskaintzaren egokitzapena
- Lokalen kudeaketa egoki baterako beharra
- Eskolen arteko banaketa

Parte hartzea

- Parte hartzeko espazio falta
- Zuzenean gazte edo nerabeei eragiten dieten erabakietan kontuan hartuak izatea.
- Ardurak ekintzen erabaki eremuetara zabaltzea
- Parte hartze kulturaren gabezia

5.- Hezkuntza arloa

- Eduki teorikoak gailentzen dira
- Inkontzienteki, balio desegokiak transmititzen jarraitzen da
- Alor emozional-afektiboaren lanketa urria
- Ikasleen aldetik motibazio falta

9. ERANSKINA

- Gazteen behar ezplizituak, "Herriak eman edo eskaintzen duenaren inguruan, ze behar edo gabezi ikusten dituzue?" galderari erantzundakoak.

Zerrenda honetan agertzen diren eskakizunak edo beraiek aipatutako beharrak, ez dira esandako guztiak. Behar edo eskakizun batek zilegitasun bat eduki dezan, ulertzen da, gazte talde baten edo banakako ezberdinen behar konpartitu bat izan behar duela eta horrela, hemen ageri diren beharrak, behin eta berriz gazteen ahoetan errepikatutakoak dira.

Askotarikoak eta oso ezberdinak dira bata bestearengandik baina, hala ere, multzokatzen saiatu gara, informazioaren trataera errazte aldera.

GAZTEEN BEHARRAK:

Zer nahi duzue?

1.- Ekintza konkretuak:

- Gazteen harremanak sustatzeko zerbait egitea.
- Gazteen presentzia handitzeko zerbait egitea, gaztekonkris antzekoak: kirolak, lehiaketak ...
- Urtean zehar gauza eta ekintza gehiago antolatzea herrian.
- Herriko jaietan gazteei zuzendutako ekintza gehiago egitea.
- Euskararen eguna, emarock ... bezalako egun gehiago antolatzea, giro gehiago egon dadin. Horrelako egunetan herriko musika-taldeak ezagutzera ematea.
- Goitibeheren inguruko gauzak antolatzea: ikastaroak, karrerak, erakusketak ...
- Gaztelekutik ekintza edo irteera gehiago gauzatzea eta horiek herriari zabaltzea, plaza gehiago jartzea.
- Arkupeko kultur-eskaintza, esaterako pelikulak, beraien adin tartera ere egokitzea (askotan haurrentzat edo helduentzat soilik dira)
- Udaleko irekiak adinez luzatzea eta denboran ere luzatzea.
- Adin desberdintasunak aprobetxatuta, ekintzak antolatzea.
- Egun bateko ikastaro desberdinak antolatzea: sukaldaritza, adibidez.
- Eskaintzen diren ekintzak ez izatea familian egitekoak.
- UDAk antolatzen duen kuadrilen arteko txapelketa gazteagoentzat ere izatea.

2.- Lokalak

- Kuadrila ezberdinak egoteko gelak izango dituen eraikina, aterik gabekoa.
- Gazteentzat autokudeaketarako leku bat.
- Leku handi eta ireki bat, batez ere negurako.
- Etxerako lanak eta talde-lanak egiteko lokalak, liburutegian isilik egon behar baita.

3.- Herrirako gauza fisikoak

- Aterpe gehiago.
- Graffitiak egiteko lekuak, bestela ezkutuan eta ilegalki ibili beharra daukate.
- Jolas-parkeak handi nagusiagokoak direnentsat, esaterako Eskoriatzako tirolinako bezalakoak.
- Tennis pistak, padel pistak, ping-pong mahaiak Kirol ekintza ezberdinetarako instalazioak (kiroldegi aurreko zelaian).
- Kirol-elkarteentzako laguntza gehiago. Ez dago entrenamendurako lekurik eta ordaindu beharra izaten dute.
- Errepideak konpontzea, zulo handiak daude leku batzuetan.
- Leku handi eta ireki bat, batez ere negurako.
- Gaztelekua txiki gelditu da, leku handiago batera aldatu.
- Skate-park-a handitzea, egokitzea ...
- Kiroldegiko kantxa beti okupatuta dago, eskoriatzako kirol-taldeek entrenatzen dute bertan eta guk ezin izaten dugu erabili.
- Iturrigorri frontoia konpontzea. Herriko bakarra da eta itoginez eta filtrazioz betea dago, arriskutsua da.
- Hondatuta edo egoera txarrean dauden parkeak konpontzea.
- Jolaslekuetan aterpeak jartzea.
- Kanpoko igerilekuak jartzea.
- Txakolirik Txarapeara igotzeko eskailerak jartzea.

4.- Parte hartzea

- Musika-taldeen gain, bestelako sorkuntza motak kontuan hartzea.
- Udalak gazteak kontuan hartzea: gazte talde bat sortzea prozesu ezberdinetan parte hartzeko.
- Udalari eskaerak egiteko eta ekintzen antolaketan parte hartzeko aukera gehiago eskaintzea.
- Herrian talde ezberdinak antolatzea; gai desberdinen inguruan herrigintza arituko direnen beharra dago.
- Ikasgeletako parte hartzea handitzea.
- Herriko kontuetan parte hartzeko eskubidea izatea.

5.- Ekintza/programak

- Bakarrik dauden edo bestelako beharrak dituzten gazteentzat, “kabia” programa antzeko zerbait (Kale Heziketa programak).

6.- Bestelakoak

- Gazteentzako dauden gauza, ekintzen... inguruko informazioaren difusioa beste modu batean egitea, sarritan ez baitira enteratzen.
- Kirol elkarteentzako laguntza gehiago. Ez dago entrenamendurako lekurik eta ordaindu beharra izaten dute.
- Urkulurako autobusa jartzea.

10. ERANSKINA

ESKU HARTZERAKO ORIENTAZIO ETA PROPOSAMENEN ESKEMA

Esku hartzerako ildo eta orientazioak

- 1.- Parte hartze kulturaren sustapena
- 2.- Balio hezitzaileen lanketa
- 3.- Izaera edo sentimendu komunitarioa bultzatzea eta gazteen harremanak sendotzea
- 4.- Erreferente heldu positiboak lantzea
- 5.- Hezkuntza formala, hezkuntza ez formala eta gurasoen arteko hartu-emanen sendotzea
- 6.- Gurasoekin esku hartuz heziketarako gaitasunen lanketa
- 7.- Herriko eragileen arteko harremana eta koordinazioa sustatzea
- 8.- Ongizaterako zerbitzuen esku hartze integrala garatzea
- 9.- Nerabeekin komunikazioa: eraikitzailea eta positiboa
- 10.- Kultura, belaunaldi eta genero ezberdinetakoen arteko harreman osasuntsuak sustatu
- 11.- Aisialdi hezitzailea garatzea
- 12.- Gazteen espazio beharrari erantzuna ematea
- 13.- Gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen inklusioa lantzea
- 14.- Udala, instituzio bezala, herriratzea

Programa edo ekintza proposamenak

- 1.- Kale Heziketa programa
- 2.- Guraso Eskola
- 3.- Hezkuntza eta guraso foroa
- 4.- Elkarteen foroa

11. ERANSKINA

BALIABIDEEN GIDA:



Aretxabaletako
Udala

Hemen Aretxabaletako udal sailen, udal zerbitzuen eta gainontzeko baliabideen zerrenda:

-Berdintasuna

Arduradun politikoa: Miren Lorea Lana

Arduradun teknikoa: Amets Beltran de Guevara

Helbidea: Otalora kalea, 1

Tel.: 943711862

E-posta: berdintasuna@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

-Enplegua-Garapena

Arduradun politikoa: Unai Elkoro Oianguren (Alkatea)

Arduradun teknikoa: Nahia Agirre Alegria

Helbidea: Udaletxea. Otalora kalea, 1

Tel.: 943711862

E-posta: nahia@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

-Euskara eta Hezkuntza

Arduradun politikoa: Aitor Gabilondo Arenaza

Euskara Teknikari-itzultzailea: Ane Lore Estala Arizmendi

Helbidea: Udaletxea. Otalora kalea, 1

Tel.: 943711862

E-posta: euskara@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

-Gizarte Zerbitzuak

Arduradun politikoa: Miren Karmele Uribarri

Gizarte langileak: Begoña Arenaza Madinabeitia eta Mirari Aiastui Antxia

Prebentziorako teknikaria: Myriam Beltran de Heredia Perez de Mendiguren

Berdintasun teknikaria: Amets Beltran de Guevara

Helbidea: Otalora kalea, 1 (Liburutegi zaharra)

Tel.: 943711862

E-posta: ongizate@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

-Haur, nerabe eta gazteen sustapena

Arduradun politikoa: Nerea Etxabe Otadui

Arduradun teknikoa: Maider Etxaniz Belategi (Gazteria teknikaria)

Helbidea: Udaletxea. Otxalora kalea, 1

Tel.: 943711862

E-posta: gazteria@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

-Hirigintza, obra eta zerbitzu publikoak

Arduradun politikoa: Unai Elkoro Oianguren -Hirigintza eta Ingurumena- eta Pilar Leanizbarrutia de Bizkarralegorra -Obrak-

Arduradun teknikoak: Jose Maria Segovia Canto (Hirigintza, obra eta zerbitzu publikoak sailko burua) eta Jose Ramon Urrutia Isasisasmendi (Zerbitzu publikoen arduraduna)

Helbidea: Otxalora kalea, 1 (Liburutegi zaharra)

Tel.: 943711862

E-posta: hirigintza@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

-Idazkaritza

Arduradun politikoa: Unai Elkoro Oianguren (Alkatea)

Arduradun teknikoa: Xabier Mendizabal Garate (Idazkaria)

Helbidea: Udaletxea. Otxalora kalea, 1

Tel.: 943711862

E-posta: udala@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

-Ingurumena

Arduradun politikoa: Unai Elkoro Oianguren (Alkatea)

Arduradun teknikoa: Anabel Díez Ugarte

Helbidea: Arkupe kultur etxea. Santa Kurtz, 20

Tel.: 943081001

E-posta: anabel@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

-Kirola

Arduradun politikoa: Mikel Uribetxeberria Barrena

Arduradun teknikoa: Asier Mujika Altuna

Helbidea: Ibarra Kiroldegia. Markole Auzoa z/g

Tel.: 943039842

E-posta: kirola@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

Web: <http://ibarrakiroldegia.com/>

-Kultura



Arduradun politikoa: Jose Miguel Uribarren Azpiazu

Arduradun teknikoak: Inma Miguel Quintero (Kultura teknikaria) eta Anabel Díez Ugarte (Kulturako laguntzailea. Lan jarduna egun erdikoa)

Helbidea: Arkupe Kultur Etxea (2. solairua). Santa Kurtz, 20

Tel.: 943081001

E-posta: kultura@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

Web: <http://www.arkupe.eu/>

-Ogasuna

Arduradun politikoa: Unai Elkoro Oianguren (Alkatea)

Arduradun teknikoa: Juan Antonio Mtz. de Agirre Etxabe (Kontuhartzailea)

Kontuhartzailea: Juan Antonio Mtz. de Agirre Etxabe (juanantonio@aretxabaleta.eus)

Kontu-hartzailetzako teknikaria: Begoña Arenaza Bengoa
(barenaza@aretxabaleta.eus)

Diru-bilketako administraria: Maia San Miguel Ibabe (maia@aretxabaleta.eus)

Helbidea: Udaletxea. Otalora kalea, 1

Tel.: 943711862

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

-Udal Artxiboa

Helbidea: Udaletxea. Otalora kalea, 1

Tel.: 943711862

E-posta: udala@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

-Argazki Artxiboa



Helbidea: Arkupe Kultur Etxea. Santa kurtz 20

Tel.: 943081001

E-posta: argazki.artxiboa@aretxabaleta.eus

-Udaltzaingoa

Arduradun politikoa: Unai Elkoro Oianguren (Alkatea)

Arduradun teknikoa: Martin Garai Lasa (Udaltzainburua)

Helbidea: Aretxabaletako udaletxea, Otalora 1

Tel.: 943 - 71.18.63

E-posta: udaltzaingoa@aretxabaleta.eus

Web: <http://www.aretxabaleta.eus>

KULTUR ETA AISIALDI BALIABIDEAK

-Arkupe Kultur Etxea



Arduraduna: Kultura teknikariak

Helbidea: Santa Kurtz 20

Tel.: 943081001

Web: www.arkupe.eu

-Atxagazte Gaztelekua



Arduraduna: Gazteria teknikaria

Helbidea: Arkupe. Santa Kurtz 20

Web: <http://blogak.goiena.eus/atxagazte/>

Kudeatzailea: TXATXILIPURDI (Arrasate)

-Udal Liburutegia



Aretxabaletako
Udala

UDAL LIBURUTEGIA

Liburutegiko arduraduna: Joseba Lopez de Armentia

Liburutegiko laguntzaileak: Izaskun Leibar Balanzategi eta Nerea Altuna Arkauz

Helbidea: Arkupe Kultur Etxea. Santa Kurtz, 20

Tel: 943081001

Web: www.arkupe.eu

E-postak:

liburutegia@aretxabaleta.eus

haurliburutegia@aretxabaleta.eus

•Leizarra Musika Eskola



Arduradunak: Mariatxen Urkia eta Marian Uribesalgo

Helbidea: Santakurtz kalea, 20

Tel.: 943081001

Helburua: hezkuntza eta kultura musikala bultzatzea

Ekintzak: solfeoa, armonia, musika tresnak, musika banda...

E-posta: leizarra.mariatxen@gmail.com

•Aretxabaleta Abesbatza



Helbidea: Parrokia aretoa / Posta kutxa: 44

Tel.: 655715185 (Arantza)

Angel Barandiaran –zuzendaria-

Arantza Akizu –lehendakaria-

Ordutegia: astearte eta asteazkenetan: 20.30 - 22.00

Helburua: kantua eta musika korala sustatzea

Ekintzak: kontzertuak, Elizaren ospakizunak, entseguak, ahozko teknikei buruzko ikastaroak, gorputz-espresioa

Web: <http://aretxabaletaabesbatza.kzcomunidades.net>

E-posta: coroare@gmail.com

-Okila Taldea



Arduraduna: Joxe Ugarte

Helbidea: Murubide plaza 5.

Helburua: zura lantzen ikastea.

Ekintzak: taila ikastaroak, erakusketak...

-Loramendi Elkarte



Helbidea: Durana kalea, 11

Tel.: 943770970

Helburua: Aretxabaletan euskararen normalizazioa lortzea.

Ekintzak: hitzaldiak, ikastaroak, jaialdiak, kanpainak, herriko beste talde batzuekin harremanak...

Web: www.loramendielkarte.eus

E-posta: loramendielkarte@gmail.com

-Kuku Miku Elkartea



Helbidea: Durana kalea, 30

Helburua: Etxeko txikienen zein gurasoen garapenean bidelagun izateko asmoz, familientzako topagunea izan nahi du elkarte honek.

Ekintzak: hitzaldiak, familiaratean gozatzeko ekintzak, babes taldeak...

E-posta: kukumikuelkartea@gmail.com

-Algara Ludoteka



Helbidea: Gernika Plaza

Tel.: 943 790 581

Helburua: haurrei aisialdirako aukerak ematea.

Ekintzak: jostailu-mailegutza eta beste hainbat ekintza.

Web: www.loramendielkartea.eus

E-posta: algaraludoteka.aretxabaleta@gmail.com

-Loramendi Euskal Dantza Taldea



LORAMENDI TXISTU TALDEA

Arduraduna: Jokin Antxia

Tel.: 688876421

Helburua: euskal dantzak eta txistua mantendu eta suspertu.

Ekintzak:

Santageda mutilak.-Soka Dantza.

Karnabalak- Diana , Txino Dantza eta Soka Dantza

Otala-Zelai – Diana-Dantzak.

San Juan Bezpera – Buruhaundiak - Zortzikoa

Andramaixak- Dianak- Ikurriñari agurra- Alkate soinua.

San Migelak- Diana- Buruhaundiak.

Olentzero – Kalejira eta Olentzero.

Hurren Egunak.

E-posta: jokinantxia@gmail.com

-Jaiki Elkarte



Arduraduna: Maier Etxebarria

Tel.: 943534396

Helburua: mugimendu, dantza eta gorputz adierazpenaren bidez taldeko zein norbanakoaren garapena erraztu

Ekintzak: ikastaroak, erakustaldiak, topaketak...

Facebook: <https://www.facebook.com/jaiki.elkarte> **Error! Referencia de hipervínculo no válida.**

E-posta: jaikielkarte@yahoo.es

KIROL BALIABIDEAK

-Ibarra Kiroldedia



www.ibarrakiroldedia.com

Arduraduna: Asier Mujika

Helbidea: Markole Auzoa z/g

Tel.: 943039842

Web: <http://ibarrakiroldegia.com/>

E-posta: info@ibarrakiroldegia.com

-UDA Aretxabaleta Kirol Elkartea



Arduradunak: Adrian Merino eta Agurtzane Elkoro

Harremanetarako: Igor Arenaza

Helbidea: Ibarra Futbol Zelaia / Markole auzoa

Tel.: 943797629

Helburua: kirola sustatzea.

Ekintzak: futbola, pilota, areto futbola, txirrindularitza, karate, gimnasia erritmikoa...

Web: <http://www.udaretxabaleta.eus/>

E-posta: udaretxabaletake@gmail.com

-Leintz Eskola Kirola



Ikastetxeetako, guraso elkarreketako eta udalen proiektua.

Kudeaketa: Athlon (Loramendi 4, 20500 Arrasate)

Arduraduna: Oinatz Agirre

Tel.: Athlon bulegoak 943 712033

Helburua: kirola sustatzea, eskaintza anitza osatzea, lema "kirolaz hezi, kirolaz bizi, osasuna irabazi" da.

Ekintzak: LH 1-2 Kirol jolasak / LH 3-4 eta 5-6 multikirola programa edota aisialdi programa / DBH 1-2 espezializazioa edo fitness jarduerak

Web: <http://leintzeskolakirola.com/>

E-posta: oaqirre@athlon.es

Helbidea: LEK Elkano 27, 20500 Arrasate.

-Arizmendi Kirol Elkarte



Arduraduna: Urtzi Amiano

Helbidea: Torrebaso Pasealekua, z/g.

Telefonoa: 943772025

Helburua: kirola sustatzea.

Ekintzak. Aretu futbola, boleibola, futbola, igeriketa, mendi lasterketak, ...

Web: <http://www.arizmendi.eus/eu/hezkuntza-ez-formala/kirol-elkartea/>

-Dorletako Ama Txirrindulari Elkarte



Harremanetarako: Iñigo Azkarate

Helbidea: Murubide plaza 5, behea.

Tel.: 635859134

Helburua: Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak neska mutikoak txirrindularitzan hezitzen dituen kirol eskola bat da, honek daraman guztiarekin: laguntasuna, bide heziketa, talde lana, errespetua, sakrifizioa...

Ekintzak: urtean zehar haurrekin entrenamentuak, lasterketak, hitzaldiak...

Gure bailaran prestatzen dugunaz gain, Gipuzkoan zehar egiten diren lasterketetan parte hartzen dugu, eta Kadete mailan Euskal Herriko zenbait herritan egiten diren ekintzetan parte hartzen dugu, bai kamiñu, mendi edo ziklo-krosean. Mendi Bizikletakoak kanpora ere joaten dira, ahal den neurrian.

E-posta: dorletatxe@hotmail.com

-Zaraia Mendizale Elkartea



Arduraduna: Martin Garai

Helbidea: Iralabarri plaza 12, behea

Posta-kutxa: 103

Helburua: mendizaletasuna praktikatzea eta sustatzea, gure ingurua ezagutzuz.

Ekintzak: domeketan irteerak, bisita kulturalak (museoak, haitzuloak, elizateak), ikastaroak, filmak...

-Murrukixo Mendizale Elkartea



Arduraduna: Iñaki San Miguel

Helbidea: Durana kalea 11

Posta kutxa 34

Tel.: 943799374

Helburua: kirol desberdinak eginez, aisialdirako aukera berri bat eskaintzea.

Ekintzak: igandeetan irteerak, bidaiak, kanpamendua, piraguismoa, eskia, erakusketak...

E-posta: murrukixo@outlook.com

-Arlutz Xake Elkarte



ARLUTZ XAKE ELKARTEA
ARETXABALETA

Arduraduna: Aitor Alcaide

Helbidea: Iralabarri plaza, 4-5 behea

Helburua: Aretxabaletan xakea sustatzea eta nahi duten guztiek parte har dezaten saiatzea

Ekintzak: egunero entrenamenduak egiten dira eta larunbatetan txapelketak,

Federazioak ezarritako egun eta orduetan.

E-posta: alcaide.aitor@gmail.com

HEZKUNTZA BALIABIDEAK

-Kurtzebarri Herri Eskola



HH-LH (2-12 urte)

Helbidea: Herriko plaza, 2 / Santakurtz 19

Tel.: 943790049

Ikasketak: Haur eta Lehen Hezkuntza (2-12 urte)

Ekintzak: ekintza jakin batzuk ikastetxean bertan egiten dira eta beste batzuk, herrian antolatzen dira jarduera kultural desberdinetan parte hartuz.

Web: <http://www.kurtzebarrihi.hezkuntza.net>

E-posta: 012015aa@hezkuntza.net

Kurtzebarri B.H.I.

DBH (12-16 urte)

Helbidea: Herriko plaza 1

Tel.: 943795740

Ikasketak: Bigarren Hezkuntza (DBH 12-16 urte)

Web: <http://www.kurtzebarribhi.hezkuntza.net>

E-posta: 012945aa@hezkuntza.net

-IEFPS Aretxabaleta GLHBI (Lanbide Eskola)



Helbidea: Apotzagaetxebarri auzoa, z/g

Tel.: 943797900

Ikasketak: Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak, Formazio ez Aarautua

Web: www.iaretxabaleta.com

E-posta: ia@iaretxabaleta.com

-Pausoka Haur Eskola



Helbidea: Belorrieta auzoa, 8

Tel.: 943770377

Helburua: . 0-3 urte bitarteko haur eta familiei gertukoa eta konfiantzazkoa izango den bigarren etxe bat eskaintzea eta bere garapeneko prozesuan bidelagun izatea.

0 eta 3 urte bitarteko haurrak haztea eta zaintzea

Ekintzak: mugimendu askea, jolas askea, arreta konpartitua, hizkuntza, harremanak, proiektuak...

Hiru talde, bakoitza bere ekintzekin:

Urte batera arte.

Urte batetik bi urtera arte.

Bi urtetik hiru urtera arte.

Web: www.pausoka.eu

E-posta: pausoka@euskalnet.net

pausoka.he@gmail.com

•ARIZMENDI IKASTOLA



•Basabeazpi Gunea

HH (2-6 urte)

Helbidea: Basabe poligonoa 2

Tel.: 943772025

Ikasketak: Haur Hezkuntza (2-6 urte)

Web: www.arizmendi.eu

E-posta: arizmendi@arizmendi.ikastola.net

•Almen Gunea

LH (6-12 urte)/DBH (12-16 urte)/Batxillergoa (16-18 urte)

Helbidea: Torrebaso pasealekua z/g

Tel.: 943772025

Web: www.arizmendi.eu

E-posta: arizmendi@arizmendi.ikastola.net

•Ikastetxeetako Guraso Elkarteak

Helburua (k): gurasoei orientabideak ematea; laguntza ematea seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntzaren inguruko gaietan; ikastetxearen jardueretan lankidetzat eskaintzea; ikastetxearen kudeaketan ikasleen eta gurasoen parte-hartzea sustatzea; gurasoentzat eta ikasleentzat onuragarriak diren prestakuntza jarduerak osagarriak antolatzea; euskal hizkuntza eta kultura sustatzeko jarduerak antolatzea; ...

- Kurtzebarri Eskolako Gurabarri Guraso Elkartea

(gurabarri.kurtzebarri@gmail.com)

- Arizmendi Ikastolako Leintz Guraso Elkartea

-Leintz Udal Euskaltegia



Helbidea: Nafarroa, 2 eta 4

Tel.: 943792168

Arduraduna: Karmele Agirregabiria

Helburua: Aretxabaleta eta Eskoriatzako biztanleak euskaldundu eta alfabetatzea.

Ekintzak: euskalduntze eta alfabetatze maila guztietarako euskara klaseak; Titulazio ofizialak. Talde bereziak (dendariak, gurasoak, merkatariak...). Etorkinei bideratutako ikastaroak. Itzulpengintza, Euskalkia... Online ikasteko aukera.

E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

-Leizarra Musika Eskola



Arduradunak: Mariatxen Urkia eta Marian Uribesalgo

Helbidea: Santakurtz kalea, 20

Tel.: 943081001

Helburua: hezkuntza eta kultura musikala bultzatzea

Ekintzak: solfeoa, armonia, musika tresnak, musika banda...

E-posta: leizarra.mariatxen@gmail.com

-Mondragon Unibertsitatea. Aretxabaletako campusa.



Humanitate eta hezkuntza zientzien fakultatea.

Helbidea: Otalora 31

Tel.: 943 71 41 57

Web: www.huhezi.mondragon.edu

E-posta: harrera.huhezi@mondragon.edu

-KZ Gunea



Harremanetarako: Beñat.

Helbidea: Markole auzoa 5, behea

Tel.: 943023614

Helburua: alfabetatze digitala. Euskadiko udalerrri guztietan IKTen erabilpena eta formazioa sustatzea.

Ekintzak: teknologia berrietan oinarritutako formazioa; Interneten nabigatzea eta IT

Txartelaren proben gainbegiraketa eta egiaztaketa.

Web: www.kzgunea.net

E-posta: tutor.aretxabaleta@kzgunea.net

-Hitzhartu

Errefortzu akademia.



Arduradunak: Aida Merino eta Eukene Marrodan

Helbidea: Mitarte 8

Tel.: 943087632

Helburua: Herriko haur, nerabe zein helduei ikasketa programa pertsonalizatua eskaintzea, beraien beharretara eta erritmora egokitutako laguntza eskainiz.

Ekintzak: (ikasleekin egindako apartekoak) postal lehiaketa, jolasak, marrazki lehiaketa...

Web: <http://www.hitzhartu.com/>

E-posta: hitzhartu@gmail.com

-Berbetan Akademia

Hizkuntzak.

Helbidea: Belorrieta 4

Tel.: 943790069

E-posta: berbetaneskola@gmail.com

-Leber Gabinete CB

Arduraduna: Virginia Armentia

Helbidea: Basabe industrialdea 7

Tel.: 943795698

-UP English School

Helbidea: Loramendi 3

Tel.: 679963447

BALIABIDE SOZIALAK

-Basotxo Elkarte



Lehendakaria: Jose Ignacio Isasmendi Zubillaga

Helbidea: Errekabarren kalea, 10

Helburua: bilgunea izatea eta elkarbizitza bultzatzea.

Ekintzak: hitzaldiak, ikastaroak, mendi ibiliak, eskulanak, lehiaketa gastronomikoak, peregrinazioak, omenaldiak, dantzak, bidaiak, abesbatza...

E-posta: basotxo@gmail.com

-GuHaziakGara Laguntza Elkarte



Arduraduna: Paloma Martinez

Helburua: baztertze arriskuan dauden pertsonen alde lan egitea. Lagundu eta kooperatuz, pertsona hauen integrazio totala lortzera heltzea.

Ekintzak: prestakuntza ikastaro teoriko edo/eta praktikoak; prestakuntza eta ludikotasun tailerrak; informazio zabalkuntza; ekintza kultural desberdinen antolakuntza edo/eta parte hartzea; ortua; Elikagai Bankuko produktuen organizazio eta banaketa; (pinata tailerra, joskintza tailerra, ...)

E-posta: guhaziakgara@gmail.com

-Karitas Aretxabaleta



Harremanetarako: Paloma Martinez


Helbidea: Herriko plaza 4, behea

Helburua: behartsuei laguntzea.

Ekintzak: langabeei lagundu eta beste zenbait ekintza zehatz antolatu.

E-posta: caritas.aretxabaleta@gmail.com

-Aratz



Aretxabaletako adimen urritasuna dutenen Elkartea

Harremanetarako: Jokin Antxia

Helbidea: Durana kalea, 13 behea

E-posta: jokinantxia@gmail.com

Helburua: adimen urritasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetu (adimen urritasuna duten haurren hezkuntza berezia erraztea; tailer berezietan lanbide eta okupazio sustapen planak bultzatzea).

Ekintzak: baliabide ekonomikoak eta erakundeen aldetik konpromisoak lortzeko kanpainak.

-Hiruatx taldea



Arduraduna: Iñigo Trueba

Helbidea: Murubide plaza 5, behea

Helburua: hirugarren munduari laguntzea

-Boheri taldea

Helbidea: Araba ibilbidea 42, 3. D

Tel.: 943533166

Helburua: Gobernu Kanpoko Erakundeei laguntzea

EUSKARA BALIABIDEAK

-Leintz Udal Euskaltegia



Helbidea: Nafarroa, 2 eta 4

Tel.: 943792168

Arduraduna: Karmele Agirregabiria

Helburua: Aretxabaleta eta Eskorjatzako biztanleak euskaldundu eta alfabetatzea.

Ekintzak: euskalduntze eta alfabetatze maila guztietarako euskara klaseak; Titulazio ofizialak. Talde bereziak (dendariak, gurasoak, merkatariak...). Etorquinei bideratutako ikastaroak. Itzulpengintza, Euskalkia... Online ikasteko aukera.

E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

-Loramendi Elkarte



Helbidea: Durana kalea, 11

Tel.: 943770970

Helburua: Aretxabaletan euskararen normalizazioa lortzea.

Ekintzak: hitzaldiak, ikastaroak, jaialdiak, kanpainak, herriko beste talde batzuekin harremanak... Gaztezero eta Auzoko.

Web: www.loramendielkartea.eus

E-posta: loramendielkartea@gmail.com

OSASUN BALIABIDEAK

-Osakidetza Anbulatorioa

Osasun zentroa

Helbidea: Errekabarren 8

Tel.: 943711959

-GSR Debagoiena Egoitza

Helbidea: Lausita kalea, 30

Tel.: 943.77.20.88

Helburua: Debagoiena eskualdeko adineko pertsonen arreta-eta zaintza- beharrak artatu

Web: <http://www.gsr.coop/3adinekoen-egoitzak/aretxabaletako-3adinekoen-egoitza>

E-posta: gsr@gsr.coop

GIZARTE MUGIMENDUAK

-Atxabaltako "Erdur" Feministak Elkarte

Helbidea: Ilargi Plaza 5.

E-posta: atxabaltakofeministak@gmail.com

Helburua: Aretxabaletako herrian genero berdintasuna sustatzea, bereziki emakumearen ahalduntzeari erreparatuz eta kontzientzia feminista sustatuz.

-Gazte Ekimena



Atxabaltako Gazte Ekimena

E-posta: aretxabaletakogazteekimena@gmail.com

Helbidea: Durana 11

Helburua: gazteak antolatzeko aukera ematea, ekintzak, proiektuak, hausnarketak... gauzatu ahal izateko.

12. ERANSKINA

-Historia:



Leintz Bailarako mankomunitatearen sorrera Aretxabaletako bilakaera historikoaren abiapuntua da. Orduko herrialde hark, XIII. mendeko lehen urteetan, Aretxabaleta, Leintz Gatzaga, Arrasate eta Eskoriatza batzen zituen. Arrasatek (1260) eta Leintz Gatzagak (1331) denbora gutxian utzi zuten mankomunitatea, bakoitzak bere biderei bakarka jarraitzeko. Eskoriatzak eta Aretxabaletak, aldiz, Leintz Bailarako zutoihala harturik, aurrerantzerako biderei ekin zioten elkarrekin.

Hamazazpi herrigunez osatua zegoen Bailara eta Alkate, Kontzeju eta arau propioak zituzten. Nahiz eta herrigune bakoitzeko arazoetan parte hartzeko boteririk ez izan, izate gorenaz zuten Kontzejuak eta Anaiarteko Alkateak. Kargu hori auzoko edozein aitonen seme betez zezakeen.

1374an, Gaztelako Enrique II.ak hartutako erabakiak Leintz Bailarako historiaren pasarte penagarrienetakoa eragin zuen. Gaztelako erregearen nahia betez (Gaztelako Enrike II.a), Bailara osoa Beltran de Guevarari, Oñatiko Kondeari, eman zitzaion. Ondorioz, Oñatiko Kondeak inposatutako legeen menpe gelditu zen. Erabaki horrek ondorio txarrak besterik ez zuen izan bertako biztanleentzat. Jauntxoaren boterea jasateaz gain, haren banderapean borrokatu behar izan zuten. Esate baterako,

Urrexolagarai batailan (Bailarako eta Oñatiko bizilagunak elkarren kontra jarri zituen), eta 1423an zigorra jasan behar izan zuten.

Berriz Gipuzkoan sartzea

Hamazazpi herriguneak Arabako Anaiarteetan barneratzeko erabakiak bailarako biztanleen ondoeza areagotu zuen. Bailarak Errege Katolikoengana jo zuen, eta horiek, "Real Cédula" delako baten bidez, berriz Gipuzkoan sartu zuten. Erabaki hori Bidania eta Uzarragako Batzar Orokorretan onetsi zen, 1497ko apirilaren 29an. Bere burugogorkerian tematuta, Oñatiko Kondeak, ez zuen onartu erabakia eta bailaran arazoak sortzen jarraitu zuen, 1524ko alardean egindakoekin leintzarren pazientziarekin bukatu zuen arte. Azkenean, erregearen kontrako beste protesta batek askatu zuen Leintz Bailara jauntxoaren menpetik eta, ondorioz, errege-lurraldea izatera pasatu zen. 1556an, Leintz Errege Bailara izenpean gauzatu zen independentzia.

Eskoriatzarrengandik aldentzea

Epealdi berrian, Eskoriatza eta Aretxabaletaren arteko harremanak okertu egin ziren, biek eskualdean izan nahi zuten posizio hegemonikoagatik. Partidu buru izateko edo kartzela, zepoa edo pikota edukitzeko pribilegioak lortzeko arazoak 1630 urterarte luzatu ziren; Felipe IV.ak bailara banatzeko agindu zuen arte, hain zuzen. Alde batean, Eskoriatza gelditu zen; eta, bestean, Aretxabaleta eta bere elizateak: Aozaraza, Arkarazo, Areantza, Bedoña (Arrasateko auzoa da 1966. urteaz geroztik), Galartza, Isurieta eta Larriño. Horrek, Leintz Bailararen izate juridikoa hautsi eta bi udaletxeren sorrera bultzatu zuen, bakoitza bere eskumenekin.

Banatu arren, udalen arteko arazoek bere horretan jarraitu zuten, XIX. mendeko lehenengo herena bitartean. Besteak beste, mugaketak, herriei izena ezartzea eta Batzar Nagusietan eta Alardeetan eserlekuak banatzea izan ziren euren arteko liskarren arrazoi, bizilagunen arteko harremanak zailagoak eginez. 1828an, ordea, azken arazo-iturri ziren lurrei buruzko akordio batera iritsi ziren.

Aretxabaleta zeharkatzen zuen "Postarien Errege Bidea" ("Camino Real de Postas de Madrid a Francia") eraikuntzak Udalean eragin sakona izan zuen XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran. Izan ere, Aretxabaleta zeharkatzen zuen bide horri esker, bailara zeharo biziberritu zen, eta zenbait bainuetxe eraiki ziren, Madrilgo gizarte diruduna bertara erakarriz. (Ibarrako Bainuen azken arrastoak 1987an bota ziren eta Otaloreako bainuetxea 1896an itxi zuten).

Industrializazio prozesua

Nekazaritza eta abeltzaintzako sektorea, baserriko ekoizpenean oinarritzen zena, Aretxabaletako egitura ekonomikoaren ardatza izan zen XX. mendearen lehen zatian. Poliki-poliki, industriak ordezkatu ditu jarduera horiek, sarrailagintzan eta metalaren bestelako eraldaketetan aritzen denak, batez ere. Gaur egun, udalerriko biztanleria aktiboaren %53ak industrian dihardu lanean, eta herriko zerbitzu-enpresek industria jarduera hori dute euskarri.

Sarrailagintza 50eko eta 60ko hamarkaden artean ezarri zen Aretxabaletan eta, horrekin batera, bestelako hainbat enpresa txiki sortu ziren. Gaur egun, CVL da sektore horretako enpresa nagusia. Era berean, 60ko hamarkadan kooperatiben esperientzia sortu zen bailaran, eta udalerriko adibide garrantzitsuena COPRECI da, etxetresna elektrikoek piezak egiten dituenak.

Eskoriatzako udal-barrutian kokatuta dagoen arren, EDERLAN kooperatibak, automobilgintzarako piezak fabrikatzen dituenak, dibertsifikatzeko eta zabaltzeko prozesuaren barnean, aluminio-injekziorako planta modernoa ezarri du Aretxabaletako Etxebarri poligonoan.

1984an Udalak bultzatuta, Aretxabaletako Industrialdea S.A eratu zen, Eusko Jaurlearitzaren eta Foru Aldundiaren partaidetzarekin (ARINSA).

Garai batean ARINSA zena, gaur Debagoieneko Industrialdea S.A da.

14. ERANSKINA

GUNE ESANGURATSUEN ARGAZKIAK

